

# Goienkaria

2007ko azaroaren 9a > Egubakoitza > VII. urtea > 308. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Justizia lortzea  
da gure  
helburua, gure  
alabek merez  
dute esfortzu  
hori"

Julia Esther Cano  
Ciudad Juarezko am  
bat > 09

G2a

Debagoieneko  
Lehen Kultura  
Zirkuitua > 43-44

OSASUNA

Erditze naturaletarako bi gela eskatu  
ditu PSE-EEk ospitale berrian > 04

OROIMEN HISTORIKOA

Frankismoak "ahaztutakoak" gogoan  
izango dituzte gaur Arrasaten > 06

BEHOBIA-DONOSTIA

Debagoiendar ugarik hartuko dute  
parte herri lasterketan > 40-41

GARRAIO PUBLIKOA > BATZAR NAGUSIEN PROPOSAMENA

## Autobusean bidaiatzea %40 merkeago izango da

**GIPUZKOAN** Linea guzietan izango da beherapena eta, orain arte ez bezala, lehen bidaiatik ezarriko dute, ez 11.etik

**UMEAK** 10 urtetik beherakoek ez dute ordaindu beharrik izango; erabakiok urte hasieran sartuko dira indarrean > 05

ENPRESA > TEKNOLOGIA

## Microsoft enpresa, Garaia gunera

Microsoft informatika enpre  
sa ezagunak Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean kokatu nahi du. Ikerketa, gara  
pen eta berrikuntza zentroa ezarri nahi du han Microsoft. Andoni Gartzia Garaiako arduradunaren esanetan, orain dela urtebete hasi zituzten harremanak bi aldeek eta dagoeneko oso aurrera doaz negoziazioak. Datorren urteko lehen hiruhilabetekoan Microsoften zentroa martxan jartzea espero dute. > 04

GIZARTEA > ZAHAR ETXEA

## Ibarrerako zahar etxe berria egiten hasi dira

Hasi dira ibar osoari zerbitzu emango dion zaharren egoitzera erakitzeko lanak. Aretxabaletan hasi dira eraikitzen. 170 pertsonaren dako lekua izango du eta eguneko zentro ere izango da. 170 leku horietatik 30 aldi baterako izango dira, gehienez urtebetearako; gainrako 140 lekuetako erdiak Aldundiarekin hitzartutakoak dira. 10 milioi euroko aurrekontua du, 110 langilek jardun go dute eta 2009ko urtarrileko zabalik egongo da. > 31



BERRITUTA Jauregi etxearen erdiko erliebea berritu dute. Goian, erliebearen detaile bat.

EDORTA SANZ

## XVI. mendeko Estatuko erliebe hoberena, are ederrago

Bukatu dituzte Bergarako Jauregi etxearen erdiko erliebea berritzeko lanak. Bost hilabete iraun dute eta 260.000 euroko aurrekontua izan dute. Izan ere, ez da nolanahiko lana izan, balio handiko erliebea da-eta bergararek San Martin plazan

dutena. 1500. urte inguruko da eta Alemaniako grabatuetan oinarrituta dago. Adituen esanetan –Eudald Guillamet zahar berritzale ezaguna, besteak beste–, Estatuan ez dago halako besterik. Monumentu Nazional izendapena ere badu. > 24

## AURKIBIDEA


Debagoiena > 02-07  
Elkarritzeta > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-42  
Kultura > 45  
Sailkatuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55

Ford Focus 12.900€ -tik aurrera

MUGARRI AUTOAK  
Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE

Feel the difference

Ford



- Merkatuko lehen markak
- Gremioen koordinazioa
- Mota askotako estiloak
- Etxebizitzen errehabilitazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA  
**Ipar**  
project, s.l.  
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA-ALTZARIAK

Telleria 23, D5 pabilioia  
Labegarieta Industrialdea BERGARA  
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44  
[www.iparproject.com](http://www.iparproject.com)

MCC > TELEFONIA MUGIKORREKO ENPRESA BERRIA JARRIKO DU ABIAN

# Eroski taldea telekomunikazioen alorrean murgilduko da hilabete honetan

## ZERBITZUAK EUSKARAZ

Eroskik euskaraz eskainiko ditu telefonia zerbitzuak; sakelako telefonoko menua, adibidez, euskaraz jarri ahal izango da

MIRIAN BITERI > BERGARA

Negozi berriean sartzen jarraitzen du Eroski taldeak. Hala, telekomunikazio arloarekin ausartuko da orain. Hilabete honetan bertan ekingo dio telefonia mugikorrari. Taldeko komunikazio bulegoko kide Ainara Zarragak egitasmo berri horri buruzko zehaztasunak eskaini ditu.

Eroskik ez du sare fisiko propiorik izango. Alegia, antenak eta horrelako azpiegiturak. Vodafone operadorearen bitarte funtzionatuko du. Uztailean akordioa sinatu zuen esandako enpresarekin, haren azpiegiturak erabili ahal izateko.

Aldez aurretiko ordainketarekin hasiko dela azaldu du Zarragak. Hala, txartel bidezko ohiko funtzionamendua izango du eta betiko zerbitzuak eskainiko ditu, hala nola mezuak bidaltzeko aukera eta erantzungailua jartze-

ko zerbitzua. Bada, kontsumitzalearentako interesgarria izan daitekeen nobedaderik ere badu: telefonia zerbitzuak euskaraz eskainiko ditu. Modu horretan, adibidez, poltsikoko telefonoko menua euskaraz eduki ahal izango du bezeroak (orain arte Alcatel markako telefonoek baino ez zuten aukera hori ematen).

**ARRASATEKO HIPERMERCATUAN**  
Negozi berria Eroski hipermerkatuetan jarriko da martxan. Debagoiendarrek Arrasatekoan aurkituko dute zerbitzu hori. Zarragak azaldu duenez, "prezioezin hobeak izango ditugu eta informazio gardena eskainiko diegu gure bezeroi".

Telekomunikazioaren inguru berriaz gain, taldeari buruzko informazio gehiago ezagutu izan da azkenaldian. Urriaren 29an, adibidez, MCCren urteko

## CAPRABOREN EROSKETA

Capraboren erosketari esker, Eroskiren aurtengo fakturaziona igoko dela jakinarazi du MCCko lehendakari Jose Mari Aldekoak

## ALDAKETARIK EZ

Capraboren erosketak ez du epe laburrera eraginik izango gurean, baina denborarekin produktu berriak ekar ditzake ibarreko dendetara

**Eroski taldeak ez du telefonia mugikorreko sare fisiko propiorik izango**

**Vodafoneoperadorea ren bitarte funtzionatuko du; azken horrekin akordioa sinatu zuen uztailean, haren azpiegiturak erabili ahal izateko**

fakturaziona 16.000 milioi euro izango dela jakinarazi zuen MCCko lehendakari Jose Mari Aldekoak. Iazko datuekin alderatuta, %20 handituko dira emaitzak. Igoera horretan Eroskik eragin zuzena izan duela azpimarratu zuen Aldekoak. Caprabo supermarket katea erosi du taldeak.

Eroskirekin jarri gara harremanetan erosketa horrek gurean izan ditzakeen ondorioak ezagutzeo. Eroskik ez ditu Aldekoak eskainitako datuak baiezta gura izan eta urtea amaitu aurretik kopururik ez duela emango esan du: "Arinegi da ezer esateko, baina oraingoz gure aurreikuspenak betetzen ari gara", dio Zarragak.

## CAPRABO KATEA

Argi dagoena da igoera horretan zerikusi zuzena izan duela Caprabo katea erosi izanak. Kate katalanaren %75 erosi zuen joan den ekainaren 6an. Gainontzeko %25a, berriz, aurreko jabeen eskuetan geratu da. Akordio horren ondorioz, 500 saltoki lortu ditu. Katalunian eta Madrilen 350 inguru daude. Horrez gain, 12.000 langile gehiago ditu taldeak. Behargin horiek Eroskikoek dituzten baldintza berak dituztela jakin zen operazioa egin zenean.

Erosketaren ondoren, Capraboren egoitzak Katalunian jarraitzen du eta izena gorde du merkatuan barneratuenen dagoen tokietan. Eroskiren dendak nagusi diren tokietan, aldiz, MCCren enpresaren izena hartu du.

Erosketa horrek ibarrean izan dezakeen eraginaren inguru, Eroskiren dendetan bezeroek ez dutela ezer sumatuko jakinarazi du Zarragak: "Printzipioz, Debagoieneko bezeroek ez dute inongo aldaketarik sumatuko beraien eguneroko erosketak egitera doazenean, dendak ez dira aldatuko".



ARRASATEKO HIPERMERCATUAN Telefonia mugiko

Baina denborarekin, dendetako apaletan produktu berriak aurki daitezkeela gaineratu du. Tamaina horretako erosketa bat egiten denean, normalean, taldeak hornitzaleekin dituen harremanak azterzen dituela aipatu du Zarragak.

Hala, "kontsumitzaleek aukeratuko dute zein produktu jarratuko duten gure dendetan eta zeintzuk gehituko diren orain daukagun eskaintza zabalera", azpimarratu du.

Aukeraketa hori erosketen bidez egiten dela azaldu du: "Harrera ona duten Capraboren produktuak eskuragai ipiniko dizkiegu gainontzeko kontsumitzalee", dio Zarragak.

## KATALUNIAN ETA MADRILEN

Espainia mailan, Caprabo katea erostearen onurak berehala igarri ditu Eroskik. Banaketa arloan, adibidez, "geneukan lider tokia guztiz finkatu dugu integrazio horrekin", aipatu du. Horren harira, Espainiako Esta-



IF LURRIN DENDAK Eroski hainbat arlotan dago sartuta. IF lurrin dendak, adibidez, bere gain ditu.

M.B.



rraren negozio berria hipermerkatuetan jarriko du abian Eroskik. Debagoiendarrek Arrasatekoan aurkituko dute zerbitzu berri hori.

MIRIAN BITERI

tuan supermerkatu gehien dituen taldea dela gogorarazi du. Erosketa egin aurretik, Mercadona zen Espainiako Estatuan supermerkatu gehien zituen katea. Era berean, lehen presen-tzia txikia zuen tokietan indar handiagoa izatea lortu du, bere-ziki Madrilen eta Katalunian: "Orain denda gehiago ditugu,

eta, beraz, kontsumitzale gehiagok izango dute aukera Eroski ezagutzeko eta gure dendetan erosketak egiteko", esan du Zarragak.

**EUROPAN NEGOZIATZEKO AUKERA**  
Espainiako Estatuan ez ezik, Europa mailan ere bultzada jaso-ko duela jakinarazi du Zarra-

gak: "Gure tamaina berriak nazioarteko erosketa zentraletan indar handiagoa emango digu", adierazi du. Horrek negoziatzeko aukera zabalagoa eskainiko duela gaineratu du.

Horrez gainera, "prezio hobekak lortzeko aukera izango dugu. Denborarekin, horrek isla izan beharko luke gure dendetan,

eskaintza osatuagoarekin eta prezio oso lehiakorrekin", azpimarratu du Eroskiko komunikazio bulegoko kideak.

Taldeak dituen langileen inguruaren ere hitz egin du. Caprabo integratu ondoren, gaur egun, Eroskin 47.000 pertsona inguruk lan egiten dutela jakinarazi du. Horietatik, 335 lagunek Debagoie-

#### EROSKI TALDEA HERRIZ HERRI

##### > ARRASATE

- Eroski hipermerkatua.
- Gasolindegia.
- Eroski/Centera.
- Forum Sport denda.
- If lurrin denda.
- Eroski/bidaia denda bi.

##### > BERGARA

- Eroski/Center bi.
- Eroski/bidaia denda bat.
- If lurrin denda.

##### > OÑATI

- Eroski/Centera.
- Eroski/bidaia denda bat.

##### > ARETXABAleta

- Eroski/Center bat.

##### > ANTZUOLA

- Eroski/City bat.

nean kokatuta dauden dendetan egiten dute lan. Guztira, 15 den-dia ditu gaur egun Eroski taldeak gurean. Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan eta Antzuolan, hain zuzen.

Jakina denez, arlo ezberdinean sartuta dago gaur egun taldeak: "Familiaren beharrak aztertzen ditugu eta berauei erantzuten saiatzen gara", azpimarratu du Zarragak. Hala, gogorarazi du lehen pausoak elikadurarekin eman zituela, orain dela 39 urte.

Asko aldatu dira gauzak ordutik hona. Hipermerkata eta supermerkatuekin hasi bazen ere, apurka negozio berriak zabaltzen joan da, "kontsumitzaleen behar ezberdinei erantzuteko", esan du Zarragak. Gaur egun, besteak beste, bidaia agentziak, gasolindegia, kirol dendak, lurrin dendak, aisiaaldi dendak, optikak eta aseguruak ditu bere gain.

#### ESKAINTZA ZABALA

Eroski taldearen presentzia handia da Debagoienean. Bada, indar horrek ez ditu beste supermerkata kate batzuk iztu dendak zabaltzeko orduan. Gaur egun, eskaintza zabala dago gurean.

Arrasaten, adibidez, Lidl, Dia eta Super BM markako supermerkatuak aurki ditzake kontsumitzaleak. Oñatin eta Bergaran ere Dia eta Super BM daude. Azken herri horretan Super Amara ere topatuko dute debagoiendarrek. Horiei guztiei, gainera, komertzio txikiak gehitu behar zaizkie. Supermerkata eskaintzarik, behintzat, ez da falta gurean.

 **Omega Elevator, s.a.**

- Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
- Gremioen koordinazioa
- Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ  
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96  
omegaelevator@omegaelevator.com

**SSANGYONG RODIUS BERRIA**



22.900 €-tik aurrera

MONOBOLUMENA 7 ESERLEKU  
ETA MALETATEGI IZUGARRIA

MERCEDES-BENZ MOTORRAREKIN  
270 XDI 165 ZP

  
**SSANGYONG**  
**VERTIZ MOTOR**

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR  
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA  
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE  
Tel.: 943 46 92 99

ENPRESAK &gt; GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA

# Garaia Gunean jarriko dute Microsoft enpresa

Datorren urteko lehen hiruhilabetekoan zentro berria martxan jartzea espero dute

Berrikuntza zentro espezializatua jarri nahi du Microsoft informatika enpresa

**AINZANE IRIZAR > ARRASATE**  
Orain dela urtebete inguru hasi zituzten akordio batera heltzeko elkarritzak Microsoft enpresa eta MCCk, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gaiak (Telekomunikazioen Euskal Klusterra). Microsoft informatika enpresa ezagunaren nahia da Garaia Berrikuntza Gunean kokatzea.

**INFORMATIKA ZENTROA**  
Ikerketa, garapen eta berrikuntza zentroa ezarri nahi du Microsoftek Garaian. Enpresa iturrien arabera, euren helburu

nagusia da Arrasate inguruan eta Gipuzkoan lanpostuak eta aberastasuna sortzea.

Spainian era horretako beste bost zentro dituzte: Huescan, Valladolidean, Noainen (Nafarroa), Santanderren eta Manresan (Bartzelona).

## NEGOZIAZIOAK BUKATZEAR

Andoni Gartzia Garaia Berrikuntza Guneak arduradunak adierazi duenez, orain dela urtebete hasi zituzten harremanak eta dagoeneko oso aurrera doaz negoziazioak. Datorren urteko lehen-dabiziko hiruhilabetekoan Microsoften zentroa martxan jarriko dutela espero dute. Pare bat hilabete beharko dute behin betiko akordiora iristeko.

## ESALDIA

### "Microsoft enpresa Garaia Gunea aukeratu izanak erakusten du bide onetik goazela"

Andoni Gartzia > Garaia gerentea

## MCC-RENDAKO ABANTAILA

Microsoft enpresa Garaia Berrikuntza Gunean garatuko ditu berrikuntza proiektu konkretuak eta hasiera baten, MCCko enpresek erabiliko dituzte proiektu horiek.

Hasieran, Garaia Berrikuntza Guneak aurten inauguratu duen eraikin nagusian kokatuko da Microsoft. Etorkizunean, baina, baliteke beste eraikin bat egitea.

## GARAIKOAK POZIK

Andoni Gartzia pozik azaldu da: "Garaian kokatzeko Microsoften erabakiak erakusten digu bide onetik goazela. Oso pozgarria da guretako Microsoft bezalako enpresa bat gurera etortzea eta beste enpresa batzuk ere ikus dezatela horrelako guneak ze egoikak diren berrikuntzarako".

Gartzia esanetan, oraindik goiz da esateko zenbat lanpostu berri sortuko diren eta zenbaletainoko indarra izango duen ikerketa zentro berriak: "Hasieran ez da proiektu handia izango, pixkanaka joango da indarra hartzen; dena dela, etorkizunari begira onurak ekarriko dituela, hori seguru".



ZIENTZIAREN ASTEA Bergarako ikasle talde bat Garaia instalazioak ikusten. A.I.

Microsoft enpresa garrantzi handia ematen dio ikerketari eta garapenari. Horren adibide da honako datu hau: urtero 4.820

milioi euro inbertitzen ditu ikerketan, garapenean eta berrikuntzan. Kopuru hori da fakturatzen duenaren %20.

## BISITA GIDATUA ETA FILM EMANALDIAK

### Zientziaren Astea Arrasateko Garaia Gunean

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astearen barruan, Ikerlan, MU, Garaia, AOTEK, Fagor Automation eta MCCK hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Bisita gidatuak egin dituzte Ikerlan, MU, Garaia eta MCCko enpreseetara. Bestalde, hainbat film eskainiko dituzte Garaia auditorioan, 11:00etatik 13:00etara. Bihar, zapatau, honako filmak: *Fisicos forenses: científicos y detectives; Los límites del espacio; Terremotos eta I want to be a pilot*. Domekan, honakoak: *Calentamiento global, un problema del tamaño del planeta; Los misterios de la electricidad* eta *Sinfonia celular*.



ERDITZE GELAK Arrasateko ospitaleko gaur egungo erditze gela bat. GOIENKARIA

OSASUNA &gt; ESKUALDE OSPITALE BERRIAREN PROIEKTUA

# Ospitale berrian erditze naturaletarako bi gela eskatu ditu PSE-EEk

Eusko Legebiltzarrean aurkeztu du proposamena PSE-EE alderdiak eta espero dute aho batez onartuko dutela, otsail inguruan

**AINZANE IRIZAR > ARRASATE**  
Blanca Roncal arrasatearra da Eusko Legebiltzarreko Osasun batzordean PSE-EE alderdiaren bozeramailea eta hura arduratu da proposamena aurkezteaz. Debagoieneko eskualde ospitale berria egiteko prozesua aurrera doa; orain dela aste batzuk Jose Luis Angulo ospitaleko gerenteak iragarri zuen espero dutela urtea amaitu baino lehen lanekin hastea.

Bada, ospitale berria egin behar dutela aprobetxatu nahi du PSE-EEk esperientzia piloto bat martxan jartzeko. Proposamenean eskatzen dute erditze naturaletarako bi gela jartzea, dilatazio garairako bainuontziarekin, bestak beste.

Proposamen hori ez dute oraindik eztabaideatu Legebiltzarrean; Roncalek adierazi duenez, espero dute otsailean izango dela eztabaidea eta aho batez onartuko dutela alderdi guztiekin. Dena dela, Legebiltzarra proposamena onartzeak ez du esan nahi Osasun Saila hori egitera behartuta dagoenik.

**HERRITARRAREKIKO ERRESPETUA**  
Blanca Roncal sozialistaren esanetan, helburua da "herritarren nahiak errespetatzea eta aukera-keta egiteko eta hain garrantzitsua den erditze prozesuan zuzean parte hartzeko aukera ematea emakumeari". Osasun arloan, joera da geroago eta gehiago gai-xoaren edo herritarraren eraba-

kiak errespetatzea, Roncalek adierazi duen moduan. Ildo horretatik doa erditze gela naturalak jartzearen proposamena. Hauxe gaineratu du: "Osasunaren alorean prozesu asko medikalizatu dira, mediku protokolo asko ezarri dira eta orain guk nahi duguna da protagonismoa pertsonai ematea".

Gainera, Roncalek adierazi duenez, erditze naturaletarako gelak jartzeak ez du inbertsio handirik eskatzen eta Debagoieneko eskualde ospitale berriaren proiektua erraz alda eta egoiki daiteke eraikitzen dabiltsan bitartean ere.

Azkenik, proposamen horren lotuta, PSE-EE alderdiak beste ekimen bat ere aurkeztu du Gasteizen: esne naturalaren banku bat sortzeko proposamena, hain zuzen ere. Batez ere, garai aurreko umeendako erabiliko litzateke esne hori eta EAE mai-lakoa izango litzateke.

GARRAIO PUBLIKOA > BUS BIDAIAK MERKEAGO

# Lehen bidaiatik %40ko jaitsiera ezarriko dute autobus lineatan

Gaur egun indarrean dagoen txartel bakarrarekin 11. bidaiatik aurrera lortu daitezke deskontuak

Garraio publikoa bultzatzeko proposamena aho batez onartu zen atzo, eguna, Batzar Nagusietan

MIRIAN BITERI > BERGARA

Batzar Nagusiek aho batez dei egin zioten atzo, eguna, Foru Aldundiari garraio publikoa hobetzeko plana egin dezan eta hemendik sei hilabetera hori ezarriko moduan egon dadin. Talde batzarkideen artean adostutako ildo nagusiak jarraitzen ere esku tu zioten Markel Olano jelkidea buru den erakundeari.

Gaur egun indarrean dagoen txartel bakarraren tarifik berriro definitza proposatu dute. Izen ere, 11. bidaiatik aurrera egiten da deskonto egun. Hain zuzen, %15eko eta bidaia kopurua igo ahalia, beherapena handigoa da.

Sistema berri horrek lehenengo bidaiatik %40 gutxiago ordaindu beharko da Gipuzkoako autobus lineatan. Deskontu horiek handitu egingo dira bidaia kopuruaren arabera. Hortaz, 40

eta 70 bidaia artean egiten dituztenek %70ko beherapena izango dute eta hortik aurrera, %90koa. Txartelaren prezio berri horiek ez dira oraindik indarrean jarriko, datorren urte hasieran hasiko dira-eta plana garatzen.

Aralaren proposamen batek abiatuta, Eusko Abertzaleak, Eusko Alkartasuna, Ezker Batua Berdeak eta Aralar taldeek erdibideko zuzenketa aurkeztu zuten Batzar Nagusietan. Garraio publikoa bultzatzea da horren helburua. Aho batez onartu zen atzo, eguna, esandako proposamena, egindako osoko bilkuraren.

## 10 URTETIK BEHERAKOAK DOAN

Tarifena ez da adostutako proposamen bakarra izan. 10 urte beherako haurrek dohainik hartu ahal izango dute autobusa, ez dute ezer ordainduko. Horrez gain,

umeendako aulkia edo autoak era-matearen ez da ezer ordaindu behar izango. Eta ibilbide luzeagoetarako autobusetan txikienda ko segurtasun aulkia aztertzea ere proposatu dute taldeek.

Familiarendako txartelak, aldi baterako txartelak, urte osoko txartelak eta txartel sozialak ezartzea ere ezinbestekotzat jo dute. Azken horiek zenbait kolektiboendako izan behar diote, nor-

beraren errentaren araberakoa. Besteak beste, langabe, ikasle, oinarrizko errentaren onuradun eta pentsio txikiak dituzten pertsonendako izatea eskatu dute Batzar Nagusietan ordezkatuta dauden taldeek.

Txartelaren tramitazioaren doakotasuna ere proposatzen dute, oinarrizko errentaren onuradunendako eta pentsio txikiak dituztenendako.

## ESKUALDEKO BIDAIAK.

Horrez gain, txartel bakarraren bidez, eskualde barruko autobus aldaketak dohainik egiteko aukera aztertzea eskatu diete batzarkide guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Garraioaren intermodalitatearen inguruko neurriak ere adostu dituzte, txartel bakarra beste garraio bide mota batzuera rako balio dezan. Renfe eta Eusko Trenerako txartel bakarra erabiltzeko aukera eskaintza proposatu dute.

Autobus geltokietan, bestalde, informazio panel sarean osatzea adostu dute, erabiltzaileari uneoro autobusaren etorreraren berri emateko.

> LAPURRETAK  
**Alerta deitu du Ertzaintzak, dendetan lapurretak direla-eta**

Herrizaingo Sailak lapurreta arriskuaz ohartarazi du ibarreko dendetan. Azaldu dute lapurrek alarma sentsoreetan esparratrapua jartzen dutela, den da itxita dagoenean arazorik gabe sartu ahal izateko. Gehienetan lapurrak bi gizonezko izaten dira, kanpotarrak, eta ondo jantziak. Dendariari arreta galarazten diote eta alarma sentsoreetan haien koloreko esparatrapua jartzen dute.

> JIPOIA  
**Eskoriatzan taxilaria egurtutako bi lagunak espoxeratu dituzte**

Eskoriatzan Gasteizko taxilaria ustez eraso egin zioten bi gizonezkoak –Gasteizko A.D.O. (50 urte) eta J.D.O. (21 urte)– Martutenen espoxeratu zituzten eguzaten arratsaldean, Bergarako epaitegitik igaro eta gero. Herrizaingo Sailaren arabera, gertakaria astelehen goizaldean izan zen. Ustezko erasotzaileek taxilaria autoa geratzeko agindu eta egurtu ondoren ihes egin zuten taxiarekin, biktima erre-pide ondoan larri lagata. Handik gutxira atxilotu zituzten.



PLANA Pesakoei ere eragingo die.



**GRUPO ARKAUZ**  
ARRETXABAleta 1950 • 2007 ARRASATE

**ARKAUZ**  
ELECTRODOMESTICOS  
Andramari auzunea  
Tel./Fax: 943 79 10 97  
ARETXABAleta

**ETXE MOBEL**  
ALTZARIAK  
Araba etorbidea 5  
Tel./Fax: 943 79 41 82  
ARRASATE

**ARKAUZ**  
COCINA INTEGRAL  
Mitarte 3  
Tel./Fax: 943 77 04 55  
ARRETXABAleta

**ARKAUZ**  
MUELES  
Araba etorbidea 20  
Tel./Fax: 943 79 23 51  
ARRETXABAleta

Etxeko arropak ondo zaintzeko asmotan?  
Har ezazu tarte bat eta...  
Arkauz etxetresna elektrikoekin lortu egingo duzu.

**Arkauz zure etxea da.**  
expert banatzalea ofiziala

ETXEBIZITZA &gt; ETXE BARRUAN ETA JABEKIDEEN KOMUNITATEAN OBRAK EGITEAGATIK

# Laguntzak kudeatzen segitzen du Suradesak

Debagoineneko Birgaitze Elkarteak gogorarazi du laguntzak lanak hasi aurretik eskatu behar direla, Eusko Jaurlaritzan eskaera aurkeztuta

MIRIAN BITERI &gt; BERGARA

Suradesak, Debagoineneko Birgaitze Elkarteak, gogorarazi du etxeen obrak egiteagatik jaso daitzekeen dirulaguntzak gestionatzan jarraitzen duela. Esandako laguntzak etxebizitza barruko lanengatik eta jabekideen komunitateek egiten dituzten obrengatik jaso daitezke.

Suradesak azaldu duenez, onura fiskalak edo laguntza zuzenak izan daitezke horiek. Itzuli beharrik gabeko laguntzak eta baldintza onuragarriean ezarritako maileguak kudeatzen ditu, besteak beste.

Gogorarazi du laguntzak lanak hasi baino lehenago eskatu behar direla. Hala, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Ordezkaritzan eskaera



ETXEBIZITZAK Bergarako etxebizitza batean, garbiketa lanak egiten.

M.B.

egin behar dute interesatuek, Suradesako bulegoetara jaso behar den instantzia baten bitartez.

Ibarreko udalen eta Eusko Jaurlaritzaren bidez lor daitezke esandako laguntza horiek. Udalek onartutakoak ordenantza municipaletan ezarritakoaren araberakoak dira. Eusko Jaurlaritzaren laguntzak eskatzeko, ondare urbanizatu eta eraikinak birgaitzeko jarduerei buruzko 317/2002 Dekretua hartu behar dute kontuan interesatuek.

## SURADESCA, HERRIZ HERRI

## &gt; ARRASATE

Suradesako bulegoetara joan daitezke interesatuk: Arrasate pasealeku 5, beheia.

Astelehenetik egubakoitzera (eguztetenetan izan ezik). 07:30etik 14:00ak arte.

## &gt; BERGARA

Udaletxea. Eguaztenetan, goizean. 09:30etik 13:00ak arte.

## &gt; OÑATI

Udaletxea. Martitzenetan, goizean. 09:45etik 13:00ak arte.

## &gt; ARETXABAleta

Udaletxea. Eguztenetan, 12:00etatik 13:00ak arte.

## &gt; ESKORIATZA

Udaletxea. Eguaztenetan, 12:00etatik 13:30ak arte.

## &gt; ANTZUOLA

Udaletxea. Astelehenetan, 10:30etik 11:30ak arte.

## &gt; ELGETA

Udaletxea. Astelehenetan, 09:00etatik 10:00ak arte.

## &gt; LEINTZ-GATZAGA

Aldez aurretik txanda eskatu behar da udaletxeen.

EUSKALGINTZA &gt; TRUKE PROGRAMA

## Garabide elkartearen jardunaldiak azaroan

Hizkuntza eta Herrien Arteko I. Truke Programa antolatu dute azarorako

tzen da maila sozio-ekonomikoan; guk nahi izan dugu kooperazio hori beste maila baten planteatu".

**HELBURUAK**

Garapen bidean dauden herrialdeetako hizkuntza komunitate txikiekin lan egin nahi du elkartek, euskal komunitatearen eta hegoaldeko hizkuntza gutxituko komunitateen artean zubiak eraikita.

Truke Programan parte hartuko dute Hego Amerikako bederatzi bisitarik, besteak beste Rigoberta Menchu Pake Nobeak. Aukera izango dute euskal-gintzaren jarduna bertatik bertara ezagutzeo; besteak beste, AEK, Arizmendi ikastola, Emun, Argia astekaria, Irulegi Irratia, Goiena, AED eta Berriozale Elkarteaz ezagutzeko aukera izango dute.

AINTZANE IRIZAR &gt; ESKORIATZA

Debagoineneko hezkuntza munduko hainbat eragileren ekimenez, Garabide elkartea sortu dute, eta dagoeneko antolatu dute lehen ekimena. Azaroaren 12tik 30era Hizkuntza eta Herrien Arteko I. Truke Programa egingo dute.

Garabide elkartea sortu dute, beste kooperazio ildo bat lantzeko; kooperazio linguistika eta identitarioa, hain zuen ere. Joseba Orella da elkarteko kideetako bat eta horrelaxe berba egin du: "Askotan, elkartasuna eta kooperazioa plantea-

GIZARTEA &gt; OROIMEN HISTORIKOA

## Frankismoak "ahaztutako" biktimen aldeko omenaldia

Debagoienean izandako biktimak gogoratuko dituzte gaur Arrasaten

bideko monolito inguruau izango da. Senideen leloa omenaldiak honakoa da: *Egia eta Justizia eta kalte ordaina: noiz arte justiziariak gabe?*

**INOIZ EZ AHAZTUTA**

Senitarteko horietako askok aita, aitajauna edo beste familiartekoren bat galdu zuten frankismo garaian, eta gaurko ekitaldia biktima haien gogorarazteko izango da. Juan Ramon Garai batzordeko kideak hauxe adierazi digu: "Nahiz eta atera duten lege honek biktimak alde batera uzten dituen, gu ez gaude ahazteko prest".



# SAN MILIXANAK 07

XV. Langintzen Feria  
Azaroak 11, Igandea

Zatoz Gatzagara! Etxean bezalaxe!

Hargintza

Zeta eskuz tindatze jardunean

Bitxigintza

Pilotak

Beirarekin lanean

Jostailuak

Otarregintza

Egurrarekin lanean

Keramika

Tapizak eta ehoziriak

Koadernoketa

**Txontxongilo erakusketa "Menina"**

Ostiralean: 17:00 - 20:00

Larunbatean: 11:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00

Igandean: 10:00 - 14:30

**Keramikazko tailer herrikoia "Carmen Bollar"**

Larunbatean: 18:00 - 20:00

Igandean: 10:00 - 14:00

**Sokagilea: Pedro Garcia**

Igandean: 10:00 - 14:00



LEINTZ GATZAGAKO UDALA





Irudian, Rafael Uribarren, arrasatearra, Landa Garapeneko diputatu.

GOIENKARIA

Rafael Uribarren > Landa Garapeneko diputatu

## "Pertsonentzat ez du inolako arriskurik mihi urdinaren gaitzak; ez da kasurik ezagutu"

U.M./J.Z > ARRASATE

Rafael Uribarren arrasatearra Landa Garapeneko diputatu da. Asteon, mingain urdinaren gaitza bolo-bolo dabil guztion ahotan. Harekin elkartu gara gaitz horren gaineko gorabeheretza eta ezarri dituzten neurriez hitz egiteko.

Animaliak batuta edukitzte hori zer da, agindua ala gomendioa?

Agindua da. Gaitza sortu bezain laster, 20 kilometroan ipini genuen segurtasun uhala eta debekatu egin genituen mugimendu guztia, gaitza kontrolatuta izan arte behintzat.

Debeku horrek zer esan nahi du?

Debekatzen duguna animaliak garraiatzea da. Garraioa hiltegietara eramateko bakarrik egin daiteke, baina albaitari batek ikusi ondoren. Bere larrean eta ukuiluan egoteko ez dago arazorik.

batek transmititzen duela ziztadaren bitartez, eta gaixo dagoen animaliak osasunez ondo dagoenari transmititzen dio. Hori ekipidetako bi puntutan egin behar dugu lan: batetik, eulitxo hori akabatzen; eta bestetik, prebenitzioan, osasunez ondo dagoen abelburua immunizatz.

### Zein da jarraitu beharreko protokoloa?

Hiru dira: alde batetik animalei odol analisiak egitea; bigarrenik, baserritarren aldetik garbitasuna mantentzea ukuiluetan; eta hirugarrenik, ardi azienda txertatzen hasteko behar den guztia prestatzea.

### Antzeman duzue halako kasurik Arrasaten edo ingurueta?

Ezin dugu izenik eman. Lehenengo kasuak Oiartzun eta Errenterian izan ziren. Beste kasuak susmopean ditugunez, ezin dugu ezer esan oraindik.

### Gaitz horrek ba al du pertsonentzat arriskurik?

Inongo arriskurik ez. Inoiz ez da ezagutu pertsonengana halako kasurik. Gainera, behiak ez dira hiltzen horregatik, baina ardiak bai. Jendeari esan behar zaio okeala, esnea, gazta... lasai asko hardezakeela, eta baserritarra ere lasai egon daitezke, gaitza ez baita kutsagarria.

**"Debekatzen duguna animaliak garraiatzea da; larrean eta ukuiluan egoteko ez dago arazorik"**

**"Lehen kasuak Oiartzun eta Errenterian izan dira"**

**"Gaitza ekipidetako lana bi puntutan egin beharra dago: euliak hil eta immunizazioa"**

Gizonezkoak zergatik ez?



kontsumoa




Hobiratzea urtetik urtera garestiagoa da.

GOIENKARIA

## Hobiratze eta errausketaren batez besteko gastua 2.530 euro da

JASONE ZABALA > BERGARA

Noiz hil ez dugu guk erabakitzetan, baina hala eta guztiz ere hobiratzea nahiko garestia da. *Consumer* aldizkariak azaldu duenez, CECUk ohartarazi du (kontsumitaile eta erabiltzaileen konfederazioa) Domu Santu egunean jendeak hilerrietara eramatzen dituen loreen prezioak ere gora egin duela, %40 eta %60 artean. Hilobiratzeak, adibidez, batez beste 2.530 euro balio du eta errausketa, aldiz, pixka bat garestiagoa da: 2.695 euro kostatzen da. Baina prezio horiek gehiago garesti daitezke, aukeratzen den hilkutzaren material eta akaberaren arabera. Horri guzti orri, baldin eta errausketa egin nahi bada, hautsontzi edo kutxa batek balio duena gehitu behar zaio, 200 euro gutxi gorabehera, eta hilobiratua bada, hileta-automobilaren mailegua ere beste 300 euro izango lirateke.



Tren hibridoak martxan daude dagoeneko



Legez kontrako arrantzak kalteek eragiten ditu

Erdia diesela eta beste erdia elektrikoa, horrelakoa da munduko hainbat puntutan martxan jarri diren tren berrien funtzionatzeko era. Modu horretan, erregai gutxitzen da, eta baita gas kutsagarrien emisioa. Horixe, beraz, beste garraiobide ekologiko alternatibo bat.

Maalako Errabala 13  
ARRASATE  
943 79 92 76

UNITED COLORS OF BENETTON.

**gure artekoak**

**FIAT LINEA** > Merkaturatu berri du Fiat etxeak bere azken modeloa, Fiat Linea. Automobil erosoa eta merkea, Markiegi kontzesionarioko Urtzi Markiegi saltzaileak azaldu duenez.

**Urtzi Markiegi** > Markiegi kontzesionarioko saltzailea

## "Fiat Linea da automobil praktikoa, erosoa eta merkea"

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Fiat Linea automobilean ezin hobeto uztartzen dira kalitatea eta prezioa. "Luxu handirik gabekoa, oso praktikoa, erosoa eta merkea da Fiat etxearen azkeneko modeloa", Urtzi Markiegiren esanetan.

Tamainari dagokionez ere oso ondo diseinatutako da: "Automobil ederra da, handiegia izan gabe; gainera, maletategian espazio oso handia dauka", dio Markiegik. 500 litroko edukiera du; atzeko eserlekuak tolestuz gero, 870 litroko maletategia lortzeko aukera eskaintzen du.

Fiat Punto automobilaren txasis berdina du eta segurtasunari dagokionez, sistema aurreratuak ditu.

**DOTOREA ETA ONDO HORNITUTA**

Estetikoki, automobil dotorea da, diseinua ondo zaindu dute Fiat etxeko arduradunek.

Barruko aldetik ere oso ondo atondutako eta hornitutako automobia da. Eserlekuak oso erosoaak ditu; gainera, bidaiariendako espazio handia dago, eroso bidaizteko.

Aukera ugari eskaintzen ditu, besteak beste, integratutako telefonoa, bluetooth sistema eta puntako teknologiadun aukera ugari.



Urtzi Markiegi Fiat Linea automobilarekin.

A.I.

### Fiat Linea 1.3 Multijet 90 ZP

Prezioa	15.600 euro
Luzera	4,56 metro
Zabalera	1,94 metro
Maletategia	870 litro <sup>(1)</sup>
Kontsumoa	4,9 litro /100 km <sup>(2)</sup>
Abiadura	170 km/h <sup>(3)</sup>
Otik 100era	13,8 seg.
CO2 isurketak	129 g/km

(1) Gehienezko edukiera

(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta

(3) Gehienezko abiadura

### AUTOMOBIL EKOLOGIKOA

Geroago eta garrantzi handiagoa ematen zaio gaur egun kutsadura maila jaisteari. Gainera, zenbat eta kutsadura maila baxuagoa eragin, kontsumoaikere jaitsi egiten dira.

Fiat etxeak ere ahaldegia berezia egin du automobil ekologikoak ekoizteko.

Europatik hainbat maila eta baldintza ezartzen dira; arautegi horien arabera, Euro-4 mailan kokatzen da Fiat Linea; horrek esan nahi du kutsadura maila baxua duela, kutsadurari dagoikonez, maila onean dagoela.

**begi-bistan**

**Arantzazuko onddoa  
(Oñati)**

**2007/11/04**

Argazkia: Maider Arregi.

Testua: Aintzane Irizar.

Onddo garaian gaude eta azkenaldian era honetako argazki ugari jaso dugu. Oraingoan Migel Arregi arantzazuarrak auzoko basoetan topatutako onddoa dugu, kilo eta erdikoa!

**Har ezazu parte:**

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:  
goienkaria@goiena.com

**etxeko leihotik**

Aitziber Aranburuzabala > Goienako Kultura arduraduna

## Txikitak ikasitakoak, heldutakoan abantaila

Gustatu zait Elgetako Udalak Gabonetako jolasgunea gari buruz hartu duen erabakia, hau da, haurrei ematea herriko PINa antolatzeko aukera. Proposamenaren helburua haur eta gazteek gauzak baloratzen ikastea eta, bide batez, matematikak lantzea da. Jolasgunearen iraupena eta osagaiak aukeratu ahal izango dituzte, horretarako aurrekontu bat dutela.

Haurrek gestionatuko dute, beraz, Udaleko aurrekontuaren zati bat; gauzak baloratzen ikasiz gero, heldu askori ikasgai ona emango digute.

Sarritan esaten da gaur eguneko haurrek, denetik duten arren, ez direla konforma errazak. Helduok ba ote garen galdezen dut. Ez ahaztu ikusten dutenetik ikasten dutela!

Ikusteko dago elgetarren esperientziak emango dituen fruktua, baina gustatuko litzaidake beste udal batzuak ere probatuko balute. Probatu gabe ezin jakin, izango da-eta gaizki egindakoak zuzentzeako bidea.

Etxeetan ere, Gabonetako opariekin adibidez, probatzeko esperientzia dela uste dut. Egia da, bestalde, gustuko dudan faktore sorpresa galdu egiten dela, baina...

**"Haurrek  
gestionatuko  
dute Udaleko  
aurrekontuaren  
zati bat"**

> **Erosketa poltsa**

betetzeko laster, gaztelerazko esaera oinarri hartuta, zenbakiak egin beharko ditugu. Orain gutxi esne eta ogiaren prezioaren igoera izan bazen, adi egon datozen asteetan izango direnei!

> **Loteria** tokatzearekin amesten dugu askok. Ez ahaztu, baina, txartel bakoitzeko Estatuari ematen diogula dirua. Era berean, sariaren zati handi bat ere Estatuari ematera behartuta gaude!

**izen propioak**


**Jone Muxika**

TXIRRINDULARIA



**Pello Alberdi**

PINTOREA



**Aitor Elkoro**

PILOTARIA

Eibarko Debabarrena Kirolgi profesional mailako emakumeen txirrindulari taldea izateko ahaldeginean dabil. Urtea amaitu aurrelik emango dute jakitera proiektuak aurrera egingo duen ala ez. Talde horretako txirrindularietako bat izango da Jone Muxika elgetarra.

Gasteizko Felisa Navarro galerian erakusketa jarri du Pello Alberdi pintore elgetarrak. *Volver a la torre* da era-kusketaren izenburua eta 15 margolanek osatzen dute. Hiriak dira margolanen gaia. Abenduaren 5era arte egongo da zabalik Alberdiren era-kusketa.

Aspe enpresako pilotari izateari lagako dio Aitor Elkorok. Otsailera arteko kontratua du, baina, beste pare bat partidu besterik ez du jokatuko. Bere nahia da pilotan jarraitzea, baina, enpresa txikiren batekin. 40 urte ditu eta 1987an debutatu zuen lehen aldiz profesionaletan.

Urriaren amaieran etorri ziren Mexikoko Ciudad Juarez herritik *Nuestras hijas de regreso a casa*

casa elkarteko bi kide: Elia Escobedo eta Julia Esther Cano. Bi ama horiek Mexikon 93. urtea

ezkero desagertu diren bi emakumeen amak dira, eta bi hauen moduan, beste hainbat ama eta

senide daude justizia eskatzen. Aurrera daramaten borrokan haietako hitz egin dugu.

**Elia Escobedo eta Julia Esther Cano > Ciudad Juarez herrian eraildako nesken bi ama**

# "Justizia lortzea da gure helburua, gure alabek merezi dute esfortzu hori"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Elia Escobedo eta Julia Esther Cano Mexikoko Ciudad Juarezkoak dira. Bien alabak aspaldi desagertu ziren, eta justizia lortzeko borrokan ari dira, bai Ciudad Juarezren eta baita Chihuahuan ere. Hilabete guztian zehar egongo dira gurean, hainbat herrian hitzaldia egiten, *Emakumeen aurkako indarkeria, Ciudad Juarezko feminizidioa* izenburupean.

**Nola eta zein helbururekin sortu zen *Nuestras hijas de regreso a casa* elkartea?**

Elia Escobedo: Elkarteia Ciudad Juarezko irakasle baten alabaren hilketaren ostean sortu zen, 2001ean. Gehienbat justizia eskatu eta neskak babestea. Hilak neska eta emakume askok semeak zituzten eta haien eran zaindu egin behar dira etorkizun on eta duina emateko.

**Zein izan da zuen esperientzia pertsoneala?**

Julia Esther Cano: Nire alaba 1995. urtean hil zuten, eta 10 urte luzetan zehar ez zuten kartzelaratu hiltzailea. Jose Reyes Baeza gobernadore berria jarri zenean, duela 3 urte, asko lagundu zigun. Horrela, 2005. urtean kartzelaratura izan zen nire alabaren hiltzailea. Sei seme-alaba txiki utzi zizkidan, 11 hilabete-ko txikirena eta 12 urteko han-diena, eta ahal izan dudan beza-la ateratutu aurrera. Oso gogo-rra izan da. Gainera, nire gizona gaixo dago, eta egoera are eta gogorrako bihurtu da. Baino dagoeneko nire bilobak handi-egon dira eta pozik nago lortuta-koarekin.


E.E.: Niri duela 5 urte hil zida-den alaba, eta hiltzailea ez dute kartzelara sartu oraindik. Bi seme-alaba utzi zizkidan, 6 urteko neska eta 11 urteko mutikoa. Hala eta guztiz ere, aurrera ate-ra naiz; gainera, alarguna naiz eta, Juliak bezala, borroka han-dia egin behar izan dut.

**Zenbat pertsonak osatzen duzue elkartea?**

E.E.: 23 ama gara, eta guk antolatzen ditugu elkarteko ekin-tzak. Baino hildakoentzako seme-alabak eta anai-arrebak ere badau-te elkartean sartuta.

**Orain arte zuen elkartetik zeintzuk dira burutu dituzuen ekintzak hildako neska hauen-tzat justizia egon dadin?**

E.E.: Beti egon dira aginta-



Julia Esther eta Eliak hainbat hitzaldi emango dituzte hilabete honetan Debagoieneko herriean.

ELKARHEZITEN

rienganaiko eskakizunak. Ekin-tza asko egin dira, dirulaguntzak lortu ditugu eta udalekuak ere egin dira umeentzat. Ikasketetan aurrera jarraitzeko behar duten lagunza ere lortu dugu, eta duten bakartasun sentimendua gainditzen lagundu diegu lagun-tza psikologikoaren bidez. Gainera, Mexikoko Baeza gobernado-reak duela 3 urtetik hona asko lagundu digu, umeek mediku zerbitzua izan dezaten.

J.E.C.: Gainera, duela urte eta erdi inguru Gasteizen egon ginan beste hitzaldi batzuk egi-ten, eta oso positiboa izan zen bisita hura sufritzen dugun egoera salatzeko.

**Mexikon sufritzen duzuen egoera hitzaldien bitartez ezagu-tzera emanet, uste duzue jendeak uler dezakeela zein den bizi izaten ari zareten sufrimendua?**

CE.E.: Juliak esan bezala, oso baliagarriak izan dira leku ezberdinatarrean egin ditugun bisitak,

## HELBURUA

**"Hildako nesken aldeko justiziaren borrokan jarraitza eta emakume eta seme-alabak babestea nahi dugu"**

## SEME-ALABAK

**"Hildako amek uzten dituzten seme-alaben egoera da gogorrena"**

## ETORKIZUNA

**"Lanean jarraitu beharra dago emakumearen eskubideen alde, eta feminizidio honekin betiko amaitzeko"**

eta jendeak, pixka bat bada ere, nork bere erara barneratu du gure sufrimendua.

**Zein da elkarteararen diru itu-rrria?**

J.E.C.: Egiten ditugun bisita guztia gonbidapen bidezkoak dira. Pasa den urtean Gasteiza etorri ginenean lortu genuen lagun-tza ekonomiko bat udalekuak aurrera eramateko. Aurten ez da egon egiteko aukerarik, ez dugulako lagun-tza hori izan.

**Bizi duzuen egoera hotentatik, zer da gogorrena hildakoentzat?**

J.E.C.: Hildako amek uzten dituzten umeen egoera psikolo-gikoa. Lagundu egin behar zaie-lako aurrera jarraitzen, eta lagun-tza hau beharrezko da beti, ume-ak dira-eta gehien sufritzen dutenak kontu honetan.

**Mexikon ez ezik mundu guztian ere gertatzen dira injustiziak egunero. Zein iritzi duzue?**

E.E.: Pasa den urtean Oviedon geundela, Guatemalako emaku-me batzuekin elkartu ginen eta bertako egoera askoz txarragoa zela esan ziguten. Hemen konturatzen da norbera leku guztietai gertatzen direla ekintza biolen-toak. Mexikoko, aurrera eramatzen ari garen borroka honekin, biolentzia gutxitu egin dela konturatu gara.

J.E.C.: Duela 14 urtetik hona, Ciudad Juarezren, adibidez, gutxi-tu egin da emakumearen aurka-koo bortizkeria. Hau lortzeko aurrera eraman dugun borroka gogorra izan da, baina egunero gertatzen dira emakumearen aur-kako biolentzia kasuak mundu guztian zehar.

**Nola ikusten duzue etorkizuna zuen borroka hotentatik, zer da gogorrena hildakoentzat?**

E.E.: Beharrezko da jarraitza. Urte hauetan egindako lana-rekin ikusi da zerbait positiboa lortu dugula, eta honek indarra ematen digu aurrera jarraitzeko.



zabalik

Javier Marcos

## Eleala

**A**zken egunotan zabaldu da albistea: txinoek Errealak erosi nahi dutela. Akzioen %35 bereganatu nahi dituzte. Falta zaiguna!

Niri ez zait ondo iruditzen! Eta ez txinoak zuzendaritzan egonda gauzak txarrago (edo hobeto) egingo zutelako. Keba! Beste arrazoi bategatik esaten dut. Zer demontre (beste gauza bat ez esateagatik!) pintatzen dute txinoek gipuzkoarren nor-tasun ezaugarri baten zuzendaritzan. E? Bajo Ulloak lehendakari beltza iragarri zuen *Airbag* filmean. Eta orain Errealean presidente txinatarra. Errealitatea fikzioaren gainean. Globalizazioak horrelako gauzak badauzka, nik lokalizazioa nahia-go dut.

Aber! Urgentziako "plan de txoke" bat. Errealak Kooperatiba elkartea. Bitariko kooperatiba, hain zuzen ere. Hiru bazkide motarekin osatutako kooperatiba mistoa. Batetik, futbolariak eta staff teknikoa. Reala bere egiten ez duen jokalariak, koloreak sentitzen ez dituenak (txuri-urdinak noski), ez dauka lekukik proiektuan.

Bestetik, zalegoa. Zelan edo halan asmatu behar da formularien bat zaleek erabakietan, etorkizuneko erabaki garrantzitsuetan parte hartzeko. Bestela dibortzia egongo da.

Eta azkenik, enpresa kolaboratzaileak, erakundeak barne, ezinbestekoak izango baitira (orain arte bezala) proiektuaren iraunkortasuna bermatzeko.

Eta orain izenak, nire hautagaiak. Presidentea: Arkonada, karakterra; gerentea: Azkargorta, autoritatea; marketing zuzendaria: Argiñano, saltzailea; eta entrenatzalea: Irureta, langilea.

Zer? Txarto ala? Igual ez ginan primeran egongo (batek daki), baina behintzat originalak izango ginateke. Bateren bat proiektu surrealista irudituko zaio. Niri txinoena bezala!

### "Txinoek Errealak erosi nahi dute. Falta zitzaiguna! Ez zait ondo iruditzen"

### "Aber! Urgentziako plan de txoke bat. Errealak Kooperatiba elkartea. Bitariko kooperatiba"

NON ETA NOLA HARTU LIBURUA MAILEGUAN?  
**Antzuolako irakurle bat maiz joaten da Bergarara. Jakin nahi du ea Antzuolako liburutegiko txartela izanda Bergarakoan har dezakeen liburua maileguan.**

Bada, bai. Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalari (ELSN) esker egin daiteke hori. 1990ean sortu zuten sistema hori eta EAEko udal liburutegi guztiek osatzen dute. Sistema horrek *on-line* katalogoa du, hau da, EAEko udal liburutegiak fondoak batzen dituen *on-line* datu base bat da. Gaur egun EAEko liburutegi ia gehienak dau-de *on-line* katalogo horretan -Debagoineneko udal liburutegi guztia daude; salbuespen nabarmenenak dira Bilboko eta Donostiako udal liburutegiak eta Donostiako Koldo Mitxelena.

*On-line* katalogoari esker (OPAC) posible da web bidez ber-tan parte hartzen duten liburutegietan kontsultak egitea eta ahalbidetu du, baita ere, erabil-tzaile txartel bakarra eduki ahal izatea zentro guztiitarako. Bes-talde, *on-line* katalogoak aukera

ematen du jakiteko nahi ditu-gun liburu edo ikus-entzunezko-ak zein liburutegitan dauden, eskuragarri dauden, irakurleren batek hartuak dituen eta noiz itzultzekoak diren, katalogoa sartu berri diren izenburuak, transakzioak ere egin daitezke...

Azken batean, proiektuaren helburua da herritaren eskura-jartza *ELSN* *on-line* katalogoan sartuta dauden liburutegiak fondo eta zerbitzuak.

#### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduraturak bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu-zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

*ELSN* erabiltzaile txartel bakarra eskatzea oso erraza da. Debagoineneko edozein herriko -Leintz Gatzaga izan ezik- liburutegira joanez gero egin daiteke hori. Alde batetik, bazkide izanez gero, nahikoa da txartel zaharra berritzea. Bestetik, bazkide ez izanda, eta izan nahiez gero, liburutegiko langileek emango dituzte azalpen guztiak.

Txartel bakarra berritzean edo berria egitean, pasahitza emanen dute Internet bidez OPACen eragiketak egiteko.

Mailegu zerbitzuari dagokio-nez, aukera dago 16 dokumentu batera hartzeko sarean parte har-tzen duten liburutegietatik: nor-bere udal liburutegik sei har daitzke -hiru monografia sailekoak- eta hiru berezien sailekoak-. Sareko gainerako liburutegietatik hamar gehiago harti ahal izango dira -bost monografia sai-lekoak bost berezien sailekoak-.

Liburuak itzuli arteko epea 15 egun da, eta beste 15 egunez luza daiteke, inork ez badu erre-serbatu. Material bereziak -bideoak, diskoak...- zazpi egunez har daitezke eta beste zazpi egunez luzatu.

## marrakiz

Alex Ugalde



Ogi mami pixka bat eta bi hilabetean ajedrezeko euskal liga.

## Goienkaria

**Argiratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Estéban Plazaola **Zuzendaria** Nagusia Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herríak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urzela (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Miria Altube, Aitzane Irizábal, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritu Barruso **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amalia Mundifano, Zortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Bereziar **Testuen zuzenketak** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzaran, Ane Bereziar, Marilu Unamuno.

### EGOITA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otañor Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABAleta** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Legi Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

LAGUNTAILEAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udal



Bergarako  
Udal



Ofizialdi  
Udal



Aretxabaletako  
Udal



Eskoriatzako  
Udal



Antzuolako  
Udal



Aramaioko  
Udal



Elgetako  
Udal



Leintz Gatzagako  
Udal

## Kazetarion patua, lan baldintza eskasak

**Mario Deogracias**  
www.goiena.net/blogak/mario

I raku-ri dut gaur kazetari profesionalak, gehiegi baitira profesioan ari diren bestelakoak, protesta eguna izan dutela. Lan baldintza eskasak salatzeko, lan hitzaren gabe ari diren kazetariengatik salaketa egiteko eta

profesio horretan bekarioak hartu duen "garrantzia" salatzeko.

CCOO sindikatuko Maria Martinezek eman dituen datuen arabera, EAEn 1.400 langile inguru ari dira hedabideetan lanean; 774 prentsa, irrati eta telebistan eta 220 bat prentsa kabinetetan edo bulegoetan. Ba dirudienez, gehien gehienak lan hitzarmenik ez dute eta gainera, telebista txikietan eta ari direnen lan baldintzak are okerragoak dira 10-12 orduko lanaldia betetzen baitute eta hori gutxi balitz, mileurista izatea luxua da euren tzat, 700-900 euro inguru kobratzen dutelako.

Gogoan daukat Euskadi Irratian aritu zen lagun kazetari bati "autonomo" egin behar zuela esan ziotenean, lanean jarraitza nahi bazuen behintzat. Aspaldiko kontua da EITBn egiten diren kontraturik gehienak azpikontratatuko enpresek egiten dituztela eta "etxeoak" autonomo moduan ari direla.

Tokiko komunikabideetan bestalde, saiatzen diren arren, asko dira oraindik lan baldintzak eta baldintza ekonomikoak hobetu beharrean direnak; kasu hauetan, baina egoera bestelakoa da: debaldeko produktua egiten dute, diru sarrera izatekotan

## plazara

Bideojokoez eta haien nerabeen-  
gan izan dezaketen eraginaz dihar-  
du Myriam Beltran de Herediak.  
Haren esanetan, bideojokoak arris-

kutsu bilakatzen dira gaztearen  
eguneroko bizitzan nabarmen  
eragiten hasten diren unetik. Bada,  
horra ez iristeko, zer neurri har-

ditzakete gurasoek? Eta gertatuz  
gero, nola lagun diezaiokete gaz-  
teari? Beltran de Herediak klabe  
batzuk emango dizkizu.

Myriam Beltran de Heredia \*

# Bideojokoek gazteengan duten eragina

**B**ideojokoek gainean ezta-  
baida gogorra dago aspal-  
dian: agresibitaterik sor-  
tzen ote duten, jokalariak bakar-  
tzen ote dituzten... Eta eztabaida  
guztioan nagusia da bideojokoek  
menpekotasunik sor ote deza-  
keten ala ez.

Berez bideojokoak ez dira ez  
onak ez txarrak. Gakoak dira  
ematen zaien erabilera, pertso-  
na bakoitzaren ezaugarriak  
–nork bere burua kontrolatzeko  
gaitasuna, sentiberatasun edo  
babes faktoreak... – eta jokoa bera  
–gaia, eduki hezgarria, kons-  
truktiboa ala suntsitzalea den... –.

Bideojokoek erakarri egiten  
dituzte nerabeak, jokootan dau-  
delako akzioaren erdian. Adin  
horretan hain normala den euren  
buruarekiko konfiantza falta dela  
eta, identifikatu egiten dira joko-  
an azaltzen diren heroiekin eta  
garrantzitsu sentiarazten ditu  
horrek.

Bideojokoek eragin dezaketen  
biolentzia aztertzen baldin bada,  
adituek beldur diote biolentziak  
gazteengan izan dezakeen eragi-  
nari, joko ia guztietan ageri dena;  
izan ere, jokootan bultzatzen da  
parte-hartzailea pertsonak asasi-  
natzen edo zauritzera puntuak  
irabazteko.

Hala eta guztiz ere, biolentzia  
ez da bakarrik bideojokoek gau-  
za. Telebistikak ere, esaterako,  
ezartzen du botere hori. Aldera-  
tzen baldin baditugu bideojoko-  
ak eta telebista, esaterako, hona-  
koia ikusiko dugu: telebistikak bio-  
lentzia erreala eta fikziozkoia  
eskaintzen ditu, baina itxura da  
gutzia; ikusleak jarrera pasiboa  
du, hau da, ez du kontrolik pan-  
tailan ikusten ari denaren gaine-



MIKEL ARROIABE

an. Bideojokoek kasuan, biolentzia fikziozkoia baino ez da, simbolika, non jokalariak jarrera aktiboa hartzen duen, hau da, akzioaren eta irudien aukeraketaren gaineko erabateko kontro-  
la du. Horregatik, *a priori* esan daiteke biek dutela biolentzia sortzeko gaitasuna.

Bideojokoetara etorrita, era-  
bilitzaileak desegoki –gehiugi,  
batik bat – erabiltzen dituela ohar-  
taraz gaitzaketen seinaleak dira,  
besteak beste:

- Erabiltzaileak geroago eta  
denbora luzeagoa eskaintzen dio  
jolas egiteari.

- Erabiltzailearen dibertsio  
modu bakarra izatera iritsi da.  
- Pantailatik aldentzea kostea

**"Bideojokoek erakarri  
egiten dituzte nerabeak,  
jokootan daudelako  
akzioaren erdian;  
identifikatu egiten dira  
heroarekin"**

**"Bideojokoak arriskutsu  
bilakatzen dira  
dependentzia eragiten  
dutent momentutik"**

egiten zaio.

- Nahiago du bideojokoarekin  
jardun lagunekin egon baino.  
- Eskolako errendimendua  
jaitsi egin da eta eskolan arazo-  
ak sortu dira – berandu iristen  
da edo goizago ateratzen da;  
dirua lapurtzen du jolas egite-  
ko....

Laburbilduz, esan daiteke  
bideojokoak arriskutsu bilaka-  
tzen direla dependentzia eragi-  
ten duten momentutik eta egu-  
neroko bizitzan nabarmen era-  
giten dutenetik; azken batean,  
erabiltzailearen bizitza bideojo-  
koen bueltan eraikitzen denean.

Horregatik guztiagatik, aitei  
eta amei gomendioak emateko  
orduan, hauek nabarmenduko  
nituzke:

- Gaztearekin batera ezarri-  
tako jokorako denbora tarte argi  
eta koherenteak ezarri.

- Honako aukera egiten laga:  
bideojokoarekin jolas egin edo  
telebista ikusi.

- Zein jolas gustuko dituen eta  
haien edukia ezagutu, eta elkar-  
rekin jolas egin.

- Etapa goiztarretan bideojo-  
koak edo telebista adin txikiko-  
aren zaintzaile bihur daitezela  
ekidin.

- Bideojokoari zein telebista-  
ri ekintza alternatiboak proposa-  
tu giztari.

Konklusio moduan, esan  
behar da kontua ez dela gaztea-  
ri erakargarri zaion elementu  
bat debekatzea, baizik eta haren  
erabilera mugatzea; bideojokoaz  
goza dezala, baina neurri ego-  
kian.

\*Myriam Beltran de Heredia  
Prebentzio teknikaria da

## zer deritzozu?

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Denda txikien  
etorkizuna ondo  
ikusten duzu?

BAI	%0
EZ	%100

### > BUENO...

Gehienok erosketak egitera  
kanpora joaten garela  
kontuan izanda ez dut uste  
etorkizun oparoegirik  
dutentik. Argi daukat  
dendak itxiz gero gure  
herrietako bizitzak behera  
egingo duela nabarmen.  
Horregatik, guzton lana da  
–dendariena eurena,  
administrazioarena eta  
gutako bakoitzarena– horri  
buelta ematen saiatzea.  
**Miren**

### > BETIKO KONTUA

Azken urteotako gaia da  
hau. Imajinatzetan dut ez  
duela irtenbide erraza  
izango, bestela honezkero  
neurriak ipinita egongo  
ziren. Dena den, uste dut  
hainbat dendarik jarrera  
aldatuko balu, agian, hobe  
joango litzaiekeela. Zergatik  
izango da beti hartzekoak  
eurak dituztela? Bezero-  
ak izango du, bada, noiz edo  
noiz arrazoia, ez ala?  
**Amaia**

### > MERKATALGUNERIK EZ!

Debagoienean merkatalgu-  
nerik ez!  
**Ibai**

### DATORREN ASTEKOA: Zer deritzozu Memoria Historikoaren Legeari?

Eman zure iritzia  
[www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian.  
Datorren astean  
argitaratuko ditugu  
hemen erantzun  
interesgarrienak.

## koplak

### Enaitz Alustiza

## Txekiatik Euskal Herrira

Txekiaraino heldu nintzela  
oraintxe da hilabete  
egunak azkar pasatzen dira  
ia-ia ohartzeke.

Errutina den ozeanoko  
oasi batean nago  
Euskal Herriaz akordatzen naiz  
uste baino gutxiago.

Halere horko albiste askok  
badaukate hemen sona  
Hamar entzunda, bederatzi txar-  
ta bat bakarrik da ona.

Nongoa naizen esplikatzeko  
behar dira mila aste  
beti berdina erantzuten dut  
"No Spanish, I am Basque".

Mapa hartuta kokaleku  
azaltzen ez naiz aspertu  
batzuk ez dute ulertzten, beste  
askok ez du nahi ulertz.

Abenduaren erdialdean  
itzuliko naiz halare  
Gabonak guztiz negargarriak  
dira Olentzero gabe.

## Mingain urdina

Anjel Lertxundi  
[www.berria.info/blogak/lertxundi](http://www.berria.info/blogak/lertxundi)

**G**ezuriari mingain zuria  
deitzen badiogu, metafora-  
ren klixea bihurritu, eta  
horra hor mingain urdin bat,  
lilura eta ilusioa saltzen:  
Lizardiren izar urdinetaraiñoko  
asmoa eskaintzen digulakoan,  
gutziz artifiziala den zorion  
batzen iragarlea da. Bere hitz  
urdinekin ontasun existentziala  
edo paradisu soziala edo  
oparotasun ekonomikoa  
bermatzen dizkiguna. Edo  
hiruak batera.

Orain. Hemen.

Naturaren errapeetatik  
tiraka eta tiraka ari gara. Aldian  
behin, ordea, naturak protesta  
egiten du. Batzuetan behi ero  
batzuen itxura hartzen du  
protestak. Edo mingaina  
urdintzen zaie behiei, gure  
etorkizun hurbila, ustez distira-  
tsua, nolakoa izango den abisu  
emanet: behi zoroek baino  
zoroago segitzen badugu, gure  
gaurko gehiegikeriekin biharko  
eskasia gizenduko dugu.

Berdin zaigu, gure zoroak  
bizi gaitu. Begiratu, ordea,  
behiei: hausnarrean segitzen  
dute, beren ohiko itxura metafi-  
sikoarekin.

publizitatetik datorrena da eta  
bizirauteko diru publikoa behar  
dut enren, Jaurlaritzak ez du  
behar den beste diru banatzen.  
Oraintxe hasi da Jaurlaritzak  
2008ko aurrekontuak negoziatzen  
eta ia ba aukerarik dagoen  
lortzeko tokiko euskarako  
hedabideentzako bideratzen den  
dirulaguntzak duinak izan  
daitezen. Ze, ziur naiz, goizean  
protesta egin duten kazetari eta  
sindikatuek ez dituztela gogoan  
izan herri prentsa, herri telebista  
eta irratia lokaletan, edo webgune-  
tan, ari diren kazetari euskal-  
dun finak. Horiek ere kontuan  
hartuta 1.400eko kopurua dezente  
gehutuko litzateke.

## Eskerrik asko Emun kooperatibakoen partez

**Ima Elexpuru**

(Emun Kooperatiba Elkarteo  
lehendakaria)  
Arrasate

Emun lana euskalduntzeko  
kooperatibak 10 urte bete  
dituela-eta, *10 urte...11 egun  
hartu eta Emun* lemapen  
hainbat ekimen garatu ditugu  
gure eta, oro har, euskarak  
esparru sozio-ekonomikoan  
izan duen ibilbidea ezagutaraz-  
teko, eta bide batez, lan mun-  
dua euskalduntzearen garran-  
tza gizarteratzeko.

Arantzazun antolatutako  
*Motibazioa eta hizkuntza  
normalizazioa* izeneko jardunaldi  
teknikoak (220 partaide)  
eta Arrasateko Amaia antzo-  
kian egindako ospakizun  
ekitaldiak (700 partaideetik  
gora) erantzun bikaina izan  
dute.

Genituen helburuak maila  
handia batean lortu ditugu eta,  
lerro hauen bidez, modu batera  
edo bestera, 10. urteurreneko  
ekimenetan parte hartu  
duzuen guztioi, babesleei  
-Eusko Jaurlaritzta, Gipuzkoako  
Foru Aldundia, Arrasateko  
Udala, Fagor, Euskadiko  
Kutxa, Eroski eta Ulma-,  
instituziotako, arlo sozio-  
ekonomiko zein euskalgintzako  
ordezkariei, ekitaldieta  
etorritakoei, zuen enpresa eta  
erakundean euskara plana  
bultzatzen ari zaretenoi,  
komunikabideei..., gure  
eskerrik zintzoena eman nahi  
dizuegu.

10. urteurrenarekin haus-  
poa bete dugu eta, aurrerantze-  
an ere, bidea elkarrekin egiten  
jarraitu nahi dugunez, hartu  
eta Emun jarraituko dugu.

Oharra: *Emun: 10 urte  
lana euskalduntzen* izeneko  
DVD eta liburuxka dohain  
eskuratzeko deitu Emunera  
(943 71 18 47).

## Egia, justizia eta kalte-ordaina. Noiz arte justiziariak gabe?

**Jose Uribealgo, Julia Monge,  
Juan Ramon Garai eta  
Josuren Murgizu**  
Debagoiena

Egia jakitea, justizia adminis-  
tratza eta frankismoaren  
biktimei kalte-ordaina ematea,  
hiru gai horiek albora utzi eta  
ahaztu ditu Memoriaren Lege  
Proiektuak.

Lege proiektu horren  
arabera, frankismoa da legez  
kontrako, baina frankismoaren  
ekintzak izan ziren legez-  
koak.

Diktadurapean 40 urte eta  
Franko barik 32 urte eman eta  
gero, oraindik gaurko egunean  
ez dute nahi Justizia sartzea,  
gaiak azken hariraino eramateko.  
Frankismoaren biktima ez  
dute eskubiderik justizia  
izateko, ez dituzte deklaratu  
baliogabe epaiketa penal eta  
militar guztiak.

Erakundeetan ez dituzte  
ikertu behar erregimen  
frankistaren eskubide zibilen  
eta giza eskubideen urraketa  
larriak. Hortaz, ez dute biderik  
jartzen Egia izateko eta gizate-  
riaren kontrako krimenen  
berri jakiteko. Alde batera utzi  
nahi dute memoria izateko  
gizarteak duen eskubidea eta  
bihurtu nahi dute egintza  
indibidual eta pertsonal.

Frankismoaren biktima  
izan ziren pertsona haien  
guztiak utzi dituzte zuzenbide  
estatutik kanpo, ez diete  
aitortzen berdinak direla  
legearen aurrean, ez dute  
izango eskubiderik, ez haiek ez  
haien ondorengoeik, bidezko  
aitorpen juridikoa izateko.  
Frankistentzat legea da amai-  
puntua.

Logika horrek onartzen du,  
besteak beste:

Elizaren hierarkiak ahaztea  
berriro ere, hemen Debagoienean,  
4 abade atxilotu izana  
frankistek: Jose Joaquin Arin  
Oiarzabal, Jose Markiegi  
Olazabal, Leonardo Guridi  
Arrazola eta Jorge Iturriastillo  
Aranzabal; Ondarretako  
kartzelara eraman zituzten eta  
aske utzi zituzten, berehala  
fusilatzeko.

Mayor Oreja moduko  
pertsona batek, Arrasateko  
Falange Tradicionalistako eta  
JONSeko burutza izan zuten  
frankisten senidea, esatea,  
lasai eta zigorrik gabe, berak ez  
duela inoiz ere salatuko  
frankismoa.

Debagoienean 115 pertsona  
fusilatu zituzten frankistek.  
Horietako sei emakumeak  
ziren: Francisca Lamarain  
Arantzabal, Paula Mujika  
Arregi, Florencia Olazagoitia  
Zeziaga, Maria Areitio Arana,  
Francisca Ojanguren Iribekan-  
pos eta Emeteria Aranburuza-  
bala Beitia.

Pertsona horietako gehienek  
ez zuten izan epaiketarik,  
asko eta asko hil zituzten, aske  
utzi eta gero. Akusazio faltsuak,  
herriko Mugimendua-  
ren arduradunen salaketak,  
ezelako garantiarik gabeko  
epaiketak, Arrasateko Alderdi  
Sozialistako zinegotzi Jesus  
Uranga Urrutiaren kasua; izan  
ere, egon ez zegoen epaimahai  
bateko kide izatea akusatu  
zuten, handik urte batzuetara

Ricardo Azkoagak, hura ere  
*epaitu* egin behar zuten,  
deklaratu bezala epailearen  
aurrean.

Pertsona horiekin eta beste  
askorekin zer gertatu zen  
jakitea da behar-beharrezko,  
behin betiko zauriak ixteko.

Erakundeen deklarazioak,  
Degagoieneko udal guztiak  
onartua 2006ko urtean, besteak  
beste, hauetako erreklamatzen  
zizkien Estatuko botere  
publikoetan:

- Gerra krimenak eta  
gizateriaren aurkako krimenak  
ezin preskribatzeari buruzko  
Konbentzia berrestea.

- Epaiaketa penal eta militar  
guztiak baliogabetza, arbitra-  
rioak eta legez kanpokoak  
izateagatik.

- Errekonomizmu soziala  
eta ekonomikoa askatasunaz  
gabetu zituzten pertsona  
guztiei.

Memoriaren lege proiektuan  
ostean oraindik erabaki  
barik daude gaiok; hortaz, Lau  
Haizetara Gogoan-etiak, -Deba-  
goieneko fusilatuak senideen  
koordinakundeak- dei egiten  
diegu "frankismoaren biktima-  
mentzat egia, justizia eta kalte-  
ordaina eskatzearekin" bat  
egiten duten pertsona guztiei,  
azaroaren 7an, egubakoitzta,  
arratsaldeko 7etan, Arrasateko  
Laubide plazan frankismoaren  
biktimak gogoratzen dituen  
monolitoan egingo dugun  
kontzentraziora.

## Aralarrek ez gaitu gobernuan nahi

**Anjel Bergaretxe**  
(EA-ANVko zinegotzi taldearen  
izenean)  
Aretxabaleta

Joan den maiatzaren 27ko  
hauteskundeen ondoren,  
aurreko agintaldiko egoera  
errepikatu zen, ehunka atxa-  
balar udal ordezkaritzak barik  
geratzen baitziren. Baina  
oraingoan, are larriagoa da  
egoera, legez kanpo geratutako  
zerrenda izan zelako boto  
gehien lortu zuena.

Honen aurrean, bigarren  
indar izan zen Aralarrek  
eskaintza egin zion ANV-  
EAERi, ez bakarrik udal  
gobernuan parte hartzeko,  
baita alkabetza bera ere  
eskuratzeko. Pasatu diren bost  
hilabeteetan, baina, asko  
aldatu dira gauzak, eta hasiera-  
ko eskaintza hartatik gure  
presentzia gobernuan ezinezko  
bihurtzen duen beste jarrera  
bateraino joan da Aralar.

Lehen sorpresa, Aralar, EA  
eta hirurok egindako lehen  
bileran eman zituzten. Hasteko,  
EA eta Aralarren artean,

gurekin kontatu gabe, adostu-  
tako idatzi bat aurkeztu  
zituzten. Bertan, gainera,  
ordura arte bigarren aukera  
baino ez zena (Aralarreko  
zerrendaburuak alkabetza  
hartza, alegia) aukera bakar  
bilakatzen zen.

Gerora, LOREGen 182.  
artikulua (gure ordezkaritz  
ofiziala bermatzen zuena)  
aplikatzeko zalantzak agertu  
zizkigutengi. Gai horren inguru-  
ruan egindako hainbat bilera-  
tan, hori aplikatzeko baldintza  
berriak jartzen joan ziren,  
behin ere bermatu barik,  
baina, guk onartzekotan ere  
aplikatuko zutenik.

Azkenean, eta hainbat  
astetan atzeratu ondoren,  
urriaren 18an izan genuen  
erabakiaren berri. Onartzen  
zuten artikulua aplikatzea,  
baina baldintza hauetan:

- Pertsona horrek bere  
kargua Aralarren esku uzten  
du, eta alderdi honek horrela  
eskaten dionean, dimisioa  
aurkeztu beharko du.

- Edozein jazarpen edo  
biolentzia ekintzarekiko  
kontraktosuna agertu behar-  
ko du.

- Horrez gain, ANV-EAEren  
parte-hartza sekretupean  
("diskreziotz") eramatea exiji-  
tzen zaigu.

Berba gutxitan esanda:  
Alderdiak Legearren aplikazioa.  
Kasu honetan, lege horren  
kontra dagoela esaten duen  
alderdi baten eskutik. Baldin-  
tzak horiek ikusirk garbi dago  
Aralarrek ez digula ordezkari-  
tzak utzi nahi, eta proposatzen  
duena partikular batekin egin  
beharreko kontratu bat  
besterik ez dela.

Hilabete hauetan, gainera,  
aldaketa handiak izan dira  
Aralarren diskurtsoan. Hasier-  
an, erabakitarak ez zielan  
inork aldaraziko azaldu  
zituzten (hitz eta keinu ezin  
adierazgarriagoz), eta azkenean,  
berri, exekutibak agindu-  
takoa bete behar dutela esan  
digute. Lehen momentuan,  
ematen zen pauso bakoitzak  
herriari jakinarazi behar zela  
esan zuten (exijitu izango  
litzake, agian, hitz egokiagoa),  
eta bukaeran sekretismoaren  
aldeko apustua agertu dute.

Hasieran, garbi zeukan 182.  
artikuluan aplikazioa.  
Geroago zalantzak gobernu  
espainiarra eragotzik ote  
zuen, eta azkenerako, eragoz-  
pen horren ziurtasun osoa.  
Badakite, gainera, itxura  
batean, gobernuaren permisi-  
bitatea noraino helduko den.

Ezin hobeto jarri dira fiskala-  
ren paperean.

Badakigu, jakin, gure  
ordezkaritz ofizialarena parte-  
hartzearen zati bat bakarrik  
dela, eta posible izan daitelako  
Udalean parte hartza hau gabe  
ere, baina Aralarren jarri  
genuen konfiantza galdu egin  
dugu, bai ez dutelako hasieran  
agindutako bete, eta baita  
erakutsi duten jarreragatik  
ere. Ezinezko egiten zaigu,  
beraz, beraiekin gobernuan  
egotea, mesfidantza ez da-eta  
bidaialagun ona lau urteko  
elkarlanerako. Euren ekintzak  
sortu diguten mesfidantza,  
gainera, ezin dute euren hitzek  
arindu.

Bukatzeko, gogora ekarri  
nahi dugu berriz ere 839  
atxabalarren ahotsa dela  
isildu eragin gura dena, eta  
herritar hauen ordezkaritz  
ez duen Udala, legezkoa izango  
dela (españiar legeen arabera-  
ko, esan nahi da), baina inola  
ez demokratiko. Atxabaltar-  
ron borondatearen errespetua  
exijitzen ezin dugu etsi, eta ez  
dugu etsiko. Ez eta gure  
herriaren aldeko lanean.

## Mingain urdin

**Mikel Larrañaga**  
Bergara

Aurreko asteartean, azaroaren  
6an, Espainiako Erregeak  
Ceuta eta Melillan bisitari.  
Espainiartasuna gori-gori,  
gorri-gorri, hori! hori! Odol  
urdina omen. Gurean berriz  
mingain urdina, komunikabi-  
deena. Bizkaian zein Gipuzko-  
an salduen *El Correo Español*  
zein *El Diario Vasco* lehenengo  
orriko argazkian bandera hori-  
gorri ongi etorri. Editorialean,  
berri, Ceuta eta Melilla  
Espainiaren proiektu komune-  
an guztiz txertaturik omen  
buru belarri. Hau komunera  
joateko gogo! Egunkari honen  
irakurle fidel asko euskal  
abertzaleak omen. Nire ustez  
mingain urdin, bihotz hori,  
Espainiaren proiektuan guztiz  
txertaturik. Gora Spain  
Urdin! Espainiako ejerzitoaren  
militar burua berdin! Zuri-  
gorri zein zuri-urdin! Berdin-  
berdin! Hipokrisiari stop,  
mesede!

## ZUZENKETA

Urriaren 11n argitaratutako GOIENKA-  
RIAn, Aramaioko orrian, esan genuen  
kalean auzo alkateak izendatzearen  
aurka azaldu zela Eusko Alkartasuna,  
Aramaioko Udalaren iraileko oso-  
ko bilkuraren aktan agertzen den  
moduan Andres Osinagak, EAko zine-  
gotziak, esan zuen oso ondo iruditzen  
zaio kalean ere auzo alkateak jar-  
tzeko proposamena.



# ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA 07

Azaroak 10 | 09:00 - 14:00 | Seber Altube Plaza



Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

■ Enplegu eta Garapen  
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta  
merkatarietik konfiantza,  
**hurbiltasuna eta kalitatea**  
eskaintzen dizkizue.



# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.

Etxetresnetan sekulako eskaintzak!

**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**



1.850  
X  
598  
X  
600 mm

A Sailkaren energetikoa  
**HOZKAILUA COMBI 6 FAC-495**

**420 €** 70.140 pta



1.700  
X  
600  
X  
600 mm

A Sailkaren energetikoa

**HOZKAILUA 4FE-0E41**

**295 €** 49.265 pta



1.000 b/min  
5 kgr.

A Sailkaren energetikoa

**GARBIGAILUA LA-110**

**305 €** 50.935 pta



LABEA  
BITROZERAMIKA  
STA1410




kutxarekin

Sukalde itxia,  
berotzen ez duena,  
igeltserotza lanik  
barik. Kutxa eta  
gaineko sukalde  
bikoitzarekin.

Altura: 85 cm.  
Luzera: 85 cm.  
Sakonera: 60 cm.

**BEROTU SUKALDEA C-85 NC**

**1925 €** 321.475 pta



**TELEBISTA PHILIPS  
LTD (TDT) INTEGRATUA  
LCD 26" PFL5522D**  
**595 €** 99.365 pta

**LCD 32" PFL5522D**  
**735 €** 122.745 pta.



**TELEBISTA SANYO  
LTD (TDT) INTEGRATUA  
LCD 26" CE26LD81 - C**  
**650 €** 108.550 pta

**LCD 32" CE32LD81 - C**  
**685 €** 114.395 pta.



**"VERO" MAHAI**  
110x70 cm,  
zabalgarria 160x70 cm-ra  
**450 €** 75.150 pta



**Fagor Eko-igorle elektrikoak**

**BERO URDINA,  
IZUGARRIZKO AURREZKIA**

	ED	E
(610x1.060x95) mm	370 €	345 €
(610x910x95) mm	330 €	310 €
(610x760x95) mm	295 €	270 €
(610x610x95) mm	255 €	230 €
(610x460x95) mm	215 €	195 €

ED: Elektroniko digitala  
E: Elektroniko, eskuzkoa

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen  
duen batzak besteko energia kontsumoaren  
araberako energia aurreztear.



**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

# MULTIOPTICAS

## AZAROA, JUBILATUAREN HILABETEA

- DOAKO IKUSMENAREN AZTERKETA:**  
begitako tentsioa, begilausorik duzun, eta abar begiratuz.
- Merkatuko PROGRESIBORIK AURRERATUENA %20ko DESKONTUAREKIN.**
  - Zuri egokituko zaizu, zu lentera egokitutako beharrean.
  - Neurriera egindako munduko lente bakarra.
- PREZIO MURRIZTUAK** beste produktu guztieta.



## JUBILATUA BAZARA, APROBETXATU AUKERA HILABETE HONETAN

# Herriak


Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33  
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**  
Baserritarren azoka ospatuko da zapatuan, Seber Altuben > **19**



> **ESKORIATZA**  
Energiaren Euskal Erakundeak eta Udalak hitzarmena sinatuko dute > **35**



> **ELGETA**  
Salbador kaleko lanen %75 Jaurlaritzak ordainduko du > **37**



> **LEINTZ GATZAGA**  
San Milixan Eguna: 60 metroko soka egingo dute dome-kako azokan > **39**

KONGRESUA > BERGARAN ETA AZKOITIAN AZAROAREN 14TIK 17RA

## Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen XVIII. mendea izango dute aztergai

### KONGRESUA

'Ilustrazioa, ilustrazioak' nazioarteko kongresua Azkoitian eta Bergaran


**BERGARA** 80 bat ikerlari batuko dira egunean Bergaran

### IBILBIDE LUZEA

Bergaran sortu zen Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen 1764an

#### EDU MENDIBIL > BERGARA

Ilustrazioa, ilustrazioak nazioarteko kongresua egingo du Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak hurrengo astean, hilaren 14tik 17ra. Jose Mari Urkia EAEko presidentearen hitzetan, "Azkoitian eta Bergaran sortu zen gure ilustrazio XVIII. mendean, gure historiako aldirik ederrenetako zalantzarak gabe, eta Espania eta Europa mailako mundu zientifikoari eta akademikoari mugimendu garranzitsu hori plazaratzea da kongresuaren helburuetako bat. Bergararen kasuan, esaterako, seminarioa garai hartan puntapuntako gune zientifikoa zen. Azken baten, XVIII. mendean Azkoitian eta Bergaran egindako lanari duen balioa eman nahi diogu datozen egunotan".



EAE Jose Mari Urkia (ezkerrean), Jose Antonio Zabala Bergarako alkate ohiari eskainitako omenaldian, 1998ko abenduan.

BUA (JUAN IDIGORAS FONDOA)

beste mintegiak, argitalpenak eta elkarrekin Amerikan, Europan eta beste lekuetan dituen loturak aztertuko dituzte.

Antolatzaileen arabera, ospe handiko ikertzaileak izango dira

partaideen artean. Ibilbide luzearen ondoren, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak indartsu jarraitzen du. 1764an Bergaran sortua, gaur egun 1.000 bazkide inguru dituzte, Madrilgoak eta Mexiko-

koak tartean. Hainbat erakunderen laguntzarekin antolatutako biltzarraren aurrean ilusioz dira elkarteko arduradunak.

EAEko kideek egiten duten lanaren gainean hauxe dio Urkiak:

"Herriaren arazoen gaineko hausnarketa gune izatea, XVIII. mendeko ikerketa bultzatzea eta, azkenik, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia arteko harremanak sendotzea dira gure zeregin nagusiak".

### Kongresuko partaideak Bergaran izango dira egunean, arratsaldeko saioan

Ilustrazioa, ilustrazioak kongresuaren bigarren jardunaldian, eguen arratsaldeko saioa Bergaran egingo dute. Ekitaldia osoko bilkuren aretoan izango da, 16:00etan. Agurne Barruso alkatearen eta Juanjo Alvarez UNEDeko zuzendaria agurren ostean, Juan Riera Valladolideko mediku katedradunak *Ciencia e ilustración* izenburuko hitzaldia egingo du. Jarraian, 17:15ean hasita, hiru mintegi izango dira aukera Seminarioan: *El Seminario de Bergara: su historia y sus enseñanzas* (Jose Maria Urkia bera izango da moderatzailea); *La ciencia ilustrada desde la órbita del Estado*; eta, azkenik, *Facetas de la renovación científica durante el siglo XVIII*. Hainbat ikertzaile batuko dira gai bakoitza jorratzeko eta jorratutako gaiekin interesatuek sarrera librea izango dute. Nazioarteko kongresuko partaideek Bergara ezagutzeko bisita gidatua egingo dute eta jardunaldiari amaiera emateko herriko elkarreko baten afalduko dute.



Bergarako Seminarioak garrantzi handia izan zuen EAren sorreran.

**zerbitzuak****GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Egubakoitzta, 9	Azkoaga	Iturriortz 17	943 79 79 99
Zapatua, 10	Corcuera	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26
Domeka, 11	Irizar	Erguin 15	943 79 12 39
Astelehenetza, 12	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Martitzena, 13	Español	Araba Etorbidea 14	943 79 18 65
Eguaztena, 14	Ruiz	Maalako Errebala 31	943 79 14 09
Eguena, 15	Etxeberria	Zarugalde 42	943 77 16 30

**BERGARA**

Egubakoitzta, 9	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Zapatua, 10	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Domeka, 11	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Astelehenetza, 12	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 13	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguaztena, 14	Urritikoetxea	Oxitondo 4	943 76 11 74
Eguena, 15	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87

**ÖÑATI**

Egubakoitzta, 9	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Zapatua, 10	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Domeka, 11	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Astelehenetza, 12	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitzena, 13	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 14	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguena, 15	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58

**ARETXABALETAKA**

Egubakoitzta, 9	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Zapatua, 10	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 11	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehenetza, 12	Anitua Arriola	Belerrieta auzoa 1	943 08 11 43
Martitzena, 13	Anitua Arriola	Belerrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztena, 14	Anitua Arriola	Belerrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguena, 15	Anitua Arriola	Belerrieta auzoa 1	943 08 11 43

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osasidotza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhitzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Öñati.....	943 03 54 30
Udalzainaigak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Öñati.....	943 78 04 11

**GARRAOAK**

PESA.....	902 10 12 20
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramai.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Öñati.....	943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hildegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Öñati.....	943 78 03 67

**Kiroldegiaik**

Aramai.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Öñati.....	943 71 63 75

**URBANOAK**

Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramai.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Öñati.....	943 78 03 53

**ARAMAIOKO AUTOBUSAK**

Arrasate.....	07:00	07:15	08:00
Aramai.....	10:00	10:15**	
Aretxabaleta.....	11:00	11:15	
Bergara.....	12:00	12:15**	13:00
Eskoriatza.....	15:15	15:30	16:15
Öñati.....	17:20	17:35	
Kultura Etxeak			
Arrasate.....	18:30	18:45**	19:30
Aramai.....	19:00	19:15	
Aretxabaleta.....	21:10	21:25**	
Gasteiz.....	08:30	09:00	09:15
Aramai.....	10:15	10:30	
Aretxabaleta.....	11:15	11:30	
Bergara.....	13:10	13:45	14:10
Eskoriatza.....	16:20	17:00	17:20
Öñati.....	17:35	17:50	
Udalak.....	19:15	19:30	
Arrasate.....	20:10	20:25	

Izardun ordiak, eskaeraren arabera, auzoekoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

**eguraldia****DEBAGOIENEAN****Zapatua, 10**

Zapatuan eguraldi ona izango dugu berriro. Goizean, laionoak sortuko dira eta barnealdeko hainbat lekutan izotza botako du. Gero, giro eguzki tsua, epela.

**Domeka, 11**

Behobia-Donostia lasterketara doazenek korrika egiteko giro apropoia izango dute domekan. Lainoak eta ostarteak izango dira.

**EUSKAL HERRIAN**

Zapaturako eguraldi ona iragarrita dago. 14 °C inguruko maximoekin. Hala ere, ospellean hotz egingo du. Haizeak ipar-ekialdera egingo du berriro. Domekan antzeko egural

## kale inuesta

# Udalak energia eolikoa erabili nahi du. Zein iritzi duzu?



Elvi Marques  
Langilea  
Eskoriatza



Antonio Fernandez  
Aurre-Erretiratua  
Eskoriatza



Fabiol Morales  
Langilea  
Eskoriatza



Valeriano Garcia  
Erretiratua  
Eskoriatza



Xabier Duo  
Ikaslea  
Donostia

Uste dut energia asko gas-tatzen dugula etxeko eguneroko lanetan. Energia eolikoa erabiltzea ondo ikusten dut, nire etxearen ere ipiniko nuke, baina hasieran, behintzat, garesti ateratzen da.

Etxean energia asko gas-tatzen dugu. Ez dugu kontrolatzen. Horregatik, energia eolikoa erabiltzeak onura ekarriko du. Horren adibide garbiena herriko kirolegian dau-kagu, gainera.

Etxean energia asko gas-tatzen da, duda barik: argia, berogailua,... Nik etxearen ipintzoko aukera izanez gero, ipiniko nuke energia eolikoa. Hobekuntza den guztia luzera ona da.

Lantegiek etxeek baino energia gehiago gasta-tzen dutela uste dut. Etxebizitzak isolatzea eta energia eolikoa ipintzea aurrezko modu bat bezala ikusten dut nik, eta ondo dago.

Etxeetan gehiegi gasta-tzen dugu. Etxeak isolatzea ondo dago; bestela, berogailu ona izanda isolamendua txarra bada, alferrikakoa da. Plaka eolikoa ipintzea errentagarria da.

## txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

## Ozaeta auzoko marrak margotuta

Denbora luzea da Bergarako Ozaeta auzoko bideko marrak ez zirela ikusten, eta kontuan hartuta bide horretatik automobil asko pasatzen dela eta baita jendea ere, auzokide batek bidali digun argazkian ikusten da marrak margotu egin dituztela, eta eskertzekoa dela adierazi digu. Ea orain margotutakoak errespetatzen ditugun guztiok.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## asteko datua

**1.019**

Horixe da aurtengo ikasturterako Huhezin (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea) matrikulatu den ikasle kopurua. Hain zuen ere, 954 formazio arautuan matrikulatu dira eta 65, formazio ez arautuan.

## 5 galdera...

### Yong Jiao Lu

Bergarako bazar txinatarreko arduraduna

#### 1. Zein da zure iritzia Jar- duera Komertzialaren Legearen inguruan?

Egia esan, ez dit askorik axola. Nik uste dut denok izan behar ditugula aukera berak dendak zabaldu edo ixteko orduan, metro karratuek axola gabe, baina martxan jartzen dutenean beteko dugu.

#### 2. Egun guztietan denda zabalik edukitzeak merezi dizue?

Aukera baldin badaukagu zabaltzeko, halaxe egingo dugu beti, gure ohitura halakoa da eta gustura egiten dugu lan; gainera, dendak ematen digunetik bizi gara, nola bestela?

#### 3. Zuen dendetan zein da lege horrek izan dezake- en eragina?

Kontua da astean 72 ordu eta urtean zehar zortzi jaiegun edo domeka har ditzakiegula jai. Hori, gure lokalek 150 metro karratu baino gehiago baldin badute. Eta hori guztiori kontuan izanda, ez dut uste eraginik izango duenik, berdin jarraituko dugu saltzen.

#### 4. Askok leporatzen dizute zuen dendak hain handiak izanda konpetentzia desleiala egiten duzuela. Zuk zer deritzozu?

Egia esan, ez dut uste konpetentzia desleialik dagoenik. Nork bere negozioa nahi duen moduan eramatzen du, araudi baten barruan beti, eta hori aldatzen badute, guk ere araudiak esandako beteko dugu, arazorik gabe. Denda txikiagoa ipintzen duenak bere aukera du horrela egiteko, eta araudi baten barruan badago ez da zertan arazorik egon.

#### 5. Araua 2008. urtean jarri- ko dute abian. Horre- kin, zuen denden etorki- zunean aldaketarik ikusten duzu?

Ez dut uste, guk berdin jarraituko dugu. Gainera, lege hori Espainiako Estatuan aspaldidanik dago abian, eta inongo arazorik gabe eraman dute aurrera beste bazar txinatar batzuek ere; hortaz, alde horretatik lasai gaude.



POLITIKA &gt; AGINTALDIKO LEHEN EHUN EGUNEN BALORAZIOA

# Gobernukideek esan dute herritarrekin harreman hobeak dituztela orain

Oposizioko alderdi ia guztiak nabarmendu dute atzerapenarekin dabilela gobernua

EAEk dio hasiera zaila izan arren, "gobernu akordio aurrerakoia" lortu dutela

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Agintaldi bat hasten denean, 100 egun eman ohi zaizkio agintea hartu duen udal gobernuari ezelako balorazio edo kritikarik eginen hasi baino lehen. Muga hori gaindituta, orain arteko jarduna baloratu dute Udaleko alderdi politikoek. Balorazio positiboa egin dute gobernuan daudenek; ez horren positiboa oposizioan daudenek.

Hori bai, Arrasateko Udaleko Alderdi Sozialistaren balorazioa ezin izan dugu eskuratu. Gaur goizean (egubakoitz) egitekotan ziren balorazioa jakinazteko prentsurrekoia, eta GOIENKARIARI ez diotenez ezer aurreratu, ezin izan dugu haien baloraziorik jaso.

"UDAL GARDENA" IZAN GURAN

Balorazioei dagokienez, udal gobernuko alderdiekin hasita, Ino Galparsoro alkateak (EAE) dio "nekeza" izan dela agintaldiazen hasiera, "urteotan Udalean ez egoteak bidea zaildu duelako erabat informazio eskasia, partaidetza eza, ezkutuan bideratuko proiektuak..."

Gaineratu du aurreko agintalditik "herentzia gordina jaso" dutela, "alderdi eta zinegotzien arteko enfrentamendu egoera hobetu beharra, herriko taldeekin harreman txarrak, hainbat proiekturen egoera (Mojategi inauguratuta baina bukatzeke, herriko mugikortasunaren egoera eskasa, *Musika etxe* proiektua, AHTren inguruau azterke-

tarik eza...). Honi jarraiki, aipatu aurrekonturik gabe aurkitu dugula Udala, horrek suposatzen dituen gabezia eta baldintzakin".

Zaitasunak zaitasun, Galparsoro alkateak nabarmendu du "gobernu akordio aurrerakoia" lortu dutela eta "lehenago agintaldietan bezala, udal era-ginkorra bihurtzeko bideari hasiera" eman diotela.

Bestalde, "herriaren alde lan egiteko borondate eta gogoa" azaldu, eta gaineratu du "ahalegin guztiak" egingo dituztela bide horretan. "Herritarren partaide-tza bermatu" gura dutela ere azpi-marratu du, "harremanak berres-kuratz, gertutasuna eskainiz eta guztion artean udal eragin-korra bihurtzen saiatuz, herria-ren interesak lehenetsiz interes partidisten gainetik".

Bide hori lantzen hasita daudela esan du alkateak: "Arlo bakoitzari behar besteko garrantzia emanez gaiak eztaba idatua izan daitezen; lau urterako plangintza berria egiten ari gara, 2008rako aurrekontua lantzen ari gara eta urte bukaera aurre-tik onartzea espero dugu; herri-tarrekin harremanak berresku-ratzen ari gara; hainbat behar sozialei erantzun egokia eman diogu (etxez etxezko laguntzara-

ESANAK

"Nekeza izan da bideari ekitea, aurreko lau urteetan Udalean ez egoteak bidea zaildu egin duelako erabat"

Ino Galparsoro > Alkatea (EAE)

"Azpimarratuko nuke aurreko gobernuarekin alderatuta erabateko aldaketa egin duela gobernuak, forman eta fondoan"

Ander Rodriguez > EB-Zutik

ko itxaron zerrenda kendu...). Udal gardena nahi dugu eta horregatik gardentasun osoz azaltzen sainatu gara 100 egunok".

"ERABATEKO ALDAKETA"

Bestalde, Ander Rodriguezek, EAEk gobernu-kide duen EB-Zutik koalizioko bozeramaileak ere modu positiboan baloratu du orain arteko. Azpimarratu du "erabateko aldaketa" izan dela formetan eta fondoan.

"Gobernu garden eta informa-tzalea izatera pasatu gara, herri-tarrak eta kolektiboak kontuan hartzen ditugu; haiei bizkarra ematetik pasatu gara aurpegia ematera, eurekin kontatuz". Gaineratu du "baldintzak oso egokiak ez izan arren (2006ko aurrekontuarekin gabilta...) garrantzia handiko erabaki sozialak" hartu dituztela; Ongizate Sailean "gizar-te zerbitzuak osotu" izana ipini du adibide moduan: itxaron zerrendan zeudenei zerbitzua ematen diegu eta oro har, ordu kopurua ere gehitu dugu zerbitzu sozialei dagokienean. Beste adibide moduan aipatu du oliao batzeko edukiontzien sistema pioneroa laster enpresa talde handi batek garatuko duela.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekiko harremanari bueltan eman diotela ere esan du, eta "horrek inbertsio garrantzitsuak ekarriko" dituela gaineratu. Horrez gain, datozten lau urteetarako inbertsio plana iragarri du, plan hori "oposizioarekin adosteko asmoarekin".

Luis Mari Apraizt

EAJ

**"Udal gobernuak ez du proiektu argirik Arrasate hobetzeko"**

Zaila da positiboki baloratzea hasiera hau. Udal taldea berandu eratzeak, abuztuko oporek eta zinegotzi berriek udal errealtitate-arekiko duten deskonexoaren ondorioz, egindako lanak ez du era-kutsi planteamendu argirik gobernuak agintaldian garatzeko. Egoera dago lehengo moduan. Udal taldeen parte-hartzeari dagokionez, defizita dagoela esan genezake. Batzordeen ugaritzek zaildu egin du batzordeen garapena. Bultzada positiboa falta dira, seguru aski, esan dugun ideia faltzagatik. Aldiz, jarrera pasiboak areagotu dira, Arantzazuko erromesaldian gertatutako erakusten duen moduan. Hori bai, zinegotziaren arteko harremana begikotasunez-ko dela aipatu behar da.

Itziar Lamarain

PP

**"Behar baino gehiago atzeratzen dabil, ezin dut aprobatu"**

Lehen geunden moduan gaude. Ez dago ezer berririk planteatuta. Gobernu taldeak dio lau urterako plana planteatuko duela eta aurreko legealdiko jarduna aztertzen dabilela. Baina momentuz ez dago ezer. Argi dagoena da haueskundeetik sei hilabete pasatu direla; galdukoak dira horiek. Legealdiko 3,5 urte geratzen zaizkigu. Ez badira espabilatzen, denboran motz geratuko dira planteatu diezazkigueten planak garatzeko. Dena den, egin gura dituzten ekin-tzak herrirako onak badira, nire babesa izango dutela berretsi gura dut. Eta behin-behinerako konfiantza emango diet. Hori bai, ezin diot gobernuari aprobatua eman, behar baino gehiago atzeratzen dabil-eta.

Pello Uriaraz

EA

**"Baikortasun zuhurra sortzen zaidala esango nuke"**

Zenbat denbora behar du martxan jartzeko gobernu batek? 100 egun ematen zaizkio, eta gehiago pasatu dira; baina gobernuko alderdiekako bat egoera berezi batetik datorrela ezin ahaztu, eta malgutasun berezia merezi du. Egia da ez digutela agintaldiko plana aurkeztu, eta horrek dena atzeratzen du, planik gabe aurrekonturik ezin daiteke egin-eta. Parte-hartzearen alorrean, batzordeetarako zabaltze proposamena gauzatu gabe dago. Baina batzordeetan azaldutako planteamenduak eta eskatutako azalpenak egoki tratzen dira, alderdi arteko harremanentzat suposatzen duenarekin. Baikortasun zuhurra sortzen dit. Ez doaz bizkor, baina bizkortasunak ere ez digu emaitza onik ziurtatzen.

Joxe Etxeberria

ARALAR

**"Argitu beharreko gaien artean, EBPN abiaraztea gura dugu"**

Balorazioa egiteko aurrekontuaren muga pasa behar dela pentsatzen dut, horrekin lotuta joan beharko lukeelako lau urteko proiektuen bistaratzera, eta horien arabera irits gitezke adostasun zehatzetara; baina okasioaz baliatuko naiz, gure ustez argitu beharreko gaiak zeintzuk diren plaza ratzeko. Antolaketari dagokionez, parte hartzeko eskaera egina dugu. Hirigintzan hauxe eska-tzen dugu: Garagartzan dentsitate txikiko etxerik ez; auzoaren hazkuntza mugatu beharren arabe, desoreka sortu gabe; Ikutixo natur gune izendatzea, Zabal-letako proiektua berraztertzea eta Arrasate Iraunkorra aldarrikatzen dugu eta Euskara Biziberritzeko Plana abiaraztea.

**Lore**

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

**Monte taberna**

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

**UGARAN jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**BITTORI ERRETEGIA**

Eguneko menua - Kartako menua  
Espezialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletaak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



SASOIKOAK Oraingo sasoiari dagozkion produktuak ekarriko dituzte bihar Seber Altubeko azokara.

GOIENKARIA

**AISIALDIA > ARRASATEKO BASERRITARREN AZOKA**

## Berritasunekin dator baserritarren azoka

**UBANE MADERA > ARRASATE**

Bihar, zapatua, 09:00etatik 14:00ak arte, Arrasateko hainbat auzotatik etorritako hamar base-rritarrek produktuak salgai ipiniko dituzte Seber Altuben. Lau-garren urtez antolatu du Udalak baserritarren azoka hori.

**BERRITASUNAK**

Gainera, aurten berrikuntzekin dator azoka; izan ere, eguerdi alde-rako, giroa janzteko trikitilarri eta bertsolari ekitaldia antolatu dute. Hain justu, Iñaki Apalategi eta Jon Martin bertsolariek eta Arrasateko trikitilariek jardungo dute.

**BASERRIAK, AUZOZ AUZO**

> **BIDASORO BASERRIA**  
Bedoña auzoa.

> **ERRASTIKO BASERRIA**  
Bedoña auzoa.

> **ETXEBARRI BASERRIA**  
Bedoña auzoa.

> **ARTIA BASERRIA**  
Bedoña auzoa.

> **HEGI-HANDI BASERRIA**  
Musakola auzoa.

> **ARANGUREN BASERRIA**  
Musakola auzoa.

> **ENUZKETA ALDEKOA BASERRIA**  
Gesalibar auzoa.

> **MIETZA BASERRIA**  
Meatzerreka auzoa.

> **GOROSTIZA BASERRIA**  
Uribarri auzoa.

> **IKUTIXO BASERRIA**  
Uribarri auzoa.

> **PRODUKTUAK**  
Baseri horietatik ekarriko dituzte azokara barazkiak, ogia, berdurak, gazta, txerrikiak, txakolina, tartak, lore freskoak eta sikuak, e.a.

> **AISIALDIA**  
**Erdi Aroko Arrasate ezagutzeko ibilaldia**

> **KALE GARBIKETA**  
**Kale garbiketa aldarrikatuz, 150 eta 2.000 euro arteko isunak proposatu ditu PSE-EEk, zikintzeagatik**

Bihar, zapatua, AED elkartearen eskutik eta *Harutze eta honutze Mondragoena* ekimen berriaren barruan, Arrasateko alde zaharretik bi ibilaldi egingo dituzte: 11:30ean, eta 18:00etan. Arbolapetatik aterako dira eta edozein joan ahal da. Helburua da Erdi Aroko Arrasate ezagutaraztea.

Arrasateko PSE-EEk kale eta eremu publikoetan garbitasuna erregulatzeko ordenantza sortzea proposatu du. Paco Gartzia bozeramai le duen taldeak 150 eta 2.000 euro bitarteko isunak ezarri gura ditu pareteten pintadak egiteagatik, kartelak ipintzeagatik edo eskuorriak kalean botatzeagatik. Gartzia esanetan, "ekintza insolidarioa" eta "bandalismoa" da kaleak zikintzea; kaleak narriatu eta kaltetzen dituela eta zentzu bako gastua eragiten duela ere radio. Gaineratu du Arrasateko kaleak inoiz baino okerrago daudela, eta eguneroko egoera horretan Ezker Batua konplize dela. Era berean, salatu du Udalak ez duela kale garbiketarako ordenantzak, eta horixe proposatu du.

**POLITIKA > PRESOEN ALDEKO EKITALDIA**

## 25 lagun Behobia-Donostian presoen alde korrika

Gonbidapena zabaldu gura diete inguruko herrikideei, antzerako ekimena egin dezaten

**U.M. > ARRASATE**

Domekan Behobia Donostia lasterketaren 43. edizioa egingo dute. Parte-hartzale ugari espero dituzte, eta jakina, tartean daudela Jose Inazio Gaztañaga eta Luis Mari Azkargorta arrasatearrak.

Hain justu, martitzenean prentsaurreko egin zuen herri-tar talde batek jakinarazteko Arrasatetik 25 lagun joango direla presoen alde korrika egitera. Eta horrekin batera, inguruko herrikideak animatu zituzten gauza bera egitera.

Horrez gain, "kezka" azaldu zuten presoen egoeraren aurrean. Salatu zuten 12 preso daudela kartzelan gaixotasun sendezinak izan arren, eta tartean daudela Josu Uribetxeberria eta Jon Agirre arrasatearrak. Sala-

tu zuten, baita ere, bizi osorako zigorra ezartzen zaiela euskal presoei, "auzitegi nazionalak asmatutako doktrina baten bitartez", eta horien artean daudela Jose Inazio Gaztañaga eta Luis Mari Azkargorta arrasatearrak.

Unai Parot eta haren moduan beste 46 preso bakartuta daudela ere gogora ekarri zuten. Eta PSOE eta PPren nahia presoak "kartzeletan hiltzea edo usteltzea" dela salatu zuten. Ostean, eskatu zuten gaixo-en eta zigorra beteta dutenen "berehalako etxeratzea". Jakinarazi zuten presoen eskubideen inguruan herri dinamika iraunkorrik antolatuko dituzte-la, eta herritarrak animatu dituzte halakoetan parte hartzera.



KAMisetak Korrika egiteko kamiseta berezia eramango dute.

TXOMIN MADINA

**ad J**babe****

## IBABE GARAJEA

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

**Gesalibar auzoa z/g.**

**Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE**

**RECYCLING**  
**eKOBAI**




**Kartutxoen berrerabilpena eta birziklapena.**

**Aurreztekko aukera bikaina!**

**Zatoz eta informa zaitez!**

Arimazubi 1, beheha • Arrasate • Tel/fax: 943 53 25 59



ERAKUSKETA &gt; MILA CARBALLOREN MARGOLANAK HARRESI ARETOAN

# Euskal Herriko paisaietako margoak Harresi aretoan

Euskal Herriko paisaiak erakusten dituzten olioak lanak Harresi aretoan

Gaurtik azaroaren 25era bitartean izango dira margolanak ikusgai eta salgai

A.ARANBURUZABALA > ARRASATE  
Mila Carballo (Ourense, 1946) artistaren 40tik gora margolan ikusteko aukera izango Harresi aretoan, gaurtik azaroaren 25era bitartean. Olioak dira guztia.

Batez ere Euskal Herriko txokoak erakutsiko dizkigu sortzez galiziarraren artistak; horien artean, urtetan bizileku izan duen Donostialdea batik bat. Horrez gainera, badiut loreak protagonista diren koadroak ere.



HONDARRIBIA Erakusketa ikusgai izango den margotariko bat.

MILA CARBALLO

**20 URTE MARGOTZEN**

Jose Mari Navascues donostiarra-ren erakusketa baten konturatu zen margotzen ikasi nahi zuela,

orain 20 urte. Ikusitakoak hunkitu eta irakasle izateko eskatu zion. Harrezkeren, astero jasotzen ditu Navascuesen eskolak, eta

Carballoren hitzetan, fidela da oso irakaslearen estilora: impresionismora, alegia. Lan guztiak salgai izango ditu erakusketa.

MUSIKA &gt; ASKOTARIKO ESTILOAK 3.60 ARETOAN ASTEBURUAN

## Rock eta stonner doinuak zapatuan

'Itxaron beharra ez da itxaropena' diskoa aurkeztuko du Arrasateko Governors taldeak

A.ARANBURUZABALA > ARRASATE  
Asteburuan bi musika emanaldi izango dira 3.60aretoan. *Electric Fridays*, jaialdi elektronikoa izango da gaur eta bihar, berriz, Governors eta Neubat taldeen kontzertua izango da, 23:00etan.

Fjord taldearen bidea amaituta, *Juan Sangre*-ren azken proiektua da Governors; traje dotoreak soinean dituztela, eus-

karaz kantatutako rocka egiten dute. Gasteizko Neubat taldeak zabalduko du biharko kontzertua. Stonner doinuak lantzen dituzte; bi disko dituzte kalean.

Hori bihar izango da. Gaurko jaialdian, berriz, Detroiteko Seth Troxler, Madrilgo Kasper&Papol, Koldo Intermusic eta Arrasateko Ion2 EF disko jarraileak izango dira, 23:00etan.



GOVERNORS Arrasateko taldeko hiru kide.

OIHUKA

> MUSIKA  
**Debagoienean Kantari karaokea asteburuan Arrasaten**

Goienak antolatutako Debagoienean Kantari karaokea ikus-kizuna Amaia antzokian izango da aste bukaeran.

8 eta 12 urte bitarteko Ara-maio eta Arrasateko 150 haur eta gazte izango dira agertokian. Zapatu eta domeka bitartean zazpi saio grabatuko dituzte eta datozen astean GOITBn ikusi ahal izango dira.

Ikus-kizunera joan nahi duenak sarrera dohainik izango du. Hitzordua, bada, Amaia antzokian, bihar eta etzi, 16:30ean hasita.

> UMOREA  
**Iamai kafetegian umorezko bakarrizketak**

Umorezko bakarrizketak gustuko dituenak azaroko egubakoitzetan Iamai kafetegian du hitzordua.

Gaurko emanaldia Mario Simancas aktorearen esku-tik izango da. Azaroaren 16an, berriz, Paramount Comedy taldeko kide Quique Macias izango da barre eragiten. Azaroko hirugarraren egubakoitzean, ostera, talde bereko Juan Rey izango da taula gainean. Emanaldi guztiak gauerdian eta dohainik izango dira.

> ZINEMA  
**Lucio Urtubiaren dokumentala Amaia antzokian**

Donostia Zinemaldian aurkeztuta, irailaren 30a ezkero zinema komertzialetan dago Aitor Arregi oñatiarrak eta Jose Mari Goenagak zuzendutako *Lucio* dokumentala. *Robin Hood euskalduna* moduan ezagutu izan den Lucio Urtubia anarkista nafarraren bizitza du oinarri. Gaur egun 76 urte ditu eta Parisen bizi da.

Eguenean, hilaren 15ean, 20:30ean eskainiko dute *Lucio* dokumentala.

Txitxinde

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak  
Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

KONTRATAK  
IRVROK S.L.  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

**MULTIARREGLOS**  
 Mikel 699609708

Etxeetan, komertzioetan eta ostalaritzan mantentze-lanak orokorrean,  
Instalazioak:  
Edozein gelatan antenak, telefonen kableak...  
Jartzeak:  
Hoadroak, gortinak, lanparak, apalak, dekorazio objektuak...  
Honponketak:  
Altzariak, zoruak, zokaloak, sabai zuloak, entxufeak, zisternak, baldosak...  
Ahokadurak:  
Telebistak, bideoak, musika ekipoak, galdrak...  
Erreformak egiten dira.



**iKER**

Fagor sukaldetako altzariak, %25eko deskontua lau modelotan. Azaroaren 18 arte.  
*Zatoz eta ikus itzazu!*

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

**BAINUAK:** ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

**FAGOR**



*Eraman dotoretasuna  
zure etxera*



**gelatz** s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51

> ESKUBALOIA  
**Jardunaldi bikoitz zaingo du Ford Mugarri Arrasatek**

Atsedenaldiaren ondoren, askotan lana bikoitzu egiten da, eta hori gertatu zaio Arrasateko eskubaloiko talde nagusiari. Ford Mugarrik gaur eta bihar jokatuko du. Romo taldearen bisita izango dute gaur eta Escolapios etorriko da bihar Iturripera (18:30).

> ERRUGBIA  
**Arrasateko neskek Launica taldea hartuko dute**

Iruñeko taldearen kontra jokatuko dute Arrasateko neskek oraingo asteburuan Mojatgegin (zapatua, 13:00).

Senior mailakoak, berriz, Irunera joango dira, hango taldearen kontra jokatzen, eta infantil mailako taldeak Donostian izango du hitzordua, 10:30ean.

> KIROLDEGIA  
**Spin bike ikastaroan, goiz eta arratsalde, lekua dago oraindik**

AUKEAk aditzera eman du spin bike ikastaroan lekuak dagoela oraindik. Martitzenean eta eguenetan, 07:15eko, 15:00etako eta 17:30eko ikastaroetan dago lekua.

Interesa daukatenek Musakolako kirolegia jaso dute informazio guztia (943 77 16 77).

> SASKIBALOIA  
**Unai Barrena Euskadiko txapeldun da**

Gipuzkoako kadete mailako selekzioarekin irabazi berri du Unai Barrena arrasatearrak Euskadiko saskibaloitxapelketa. Lehenengo partiduan, Gipuzkoak 82-73 hartu zuen mendearen Araba eta domekan bizkaitarrak ez ziren kontrario izan (82-59). Arrasatekoak hasierako bostekoan jokatu du.

SASKIBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

# MUk seigarren garaipena gura du, La Salle taldearen kontura

Iñaki Merinoren mutilek orain arteko mailari eusten badiote, biharko kontrario La Salle ondo gainditzen moduko koska da (18:00, Iturripe)

XABIER URTZELAI > ARRASATE Kontrario indartsuenen zain dauden bitartean – Cafes Aiton eta Valsay Ardoi– Mondragon Unibertsitateko mutilak kale txikiarena egin gabe dabilta puntuak batu eta batu. Aurrez txikiagoak diren talde horien kontrako partiduak baliatzen dituzte egin behar dituzten zuzenketa guztiak egiteko. Joan den astean Donostian gertatutakoa da horren adibide: Easoren kontra MUk hasieratik egin zuen saskibaloitxukuna: kantxan sendo, erasotzaile, eta hanka sartze



IÑIGO BIAIN Oñatioko jokalaria Legaztiako kontrarioen artean. JOSETXO ARANTZABAL

nabarmenik egin gabe; horrela jokatuta, Easok ez zuen aukera txikiarena izan (65-76).

Bihar arratsaldean La Salle izango da Iturripen bisitari. Inor gutxiestu barik, Merinoren tal-

deak orain arteko maila erakus- ten badu eskura izango du garai- pena, seigarrena. Ez pentsa, baina, lehenengo fasea paseo soila denik, aurreratu moduan, zain daude-eta neurriko lehiakideak.

MENDIA > BESAIDE MENDI ELKARTEA

## Besaidekoek Burgos aukeratu dute azaroan eskalada egiteko eta mendian ibiltzeko

Obarenes mendiak eta Santa Gadea de Alfos aukeratu dituzte azaroko kirol jarduerak egiteko

x.u. > ARRASATE Burgosko ingurueta ibiliko dira Besaidekoak azaroaren 11ko eta 12ko asteburuan, eta baita azaroaren 18an ere. Hala, Santa

Gadea de Alfozera egingo dute lehenengo irteera, eta escalatzera joango dira orduan. Merindades eskualdean, Burgostik 100 kilometrora dago herri hori, eta escalada egiteko leku aparta da ([www.todoescalada.net/santa\\_gadea\\_de\\_alfoz.htm](http://www.todoescalada.net/santa_gadea_de_alfoz.htm)). Azaroaren 6a da irteera horretan izena emateko eguna (19:30-20:30).

**BURGOSKO MENDIETARA**  
Eta, mendi irteera egiteko ere Burgos aukeratu du oraingoan Besaidek, Obarenes mendietara

joango dira azaroaren 18an (izenematea azaroaren 12an, 13an eta 14an 19:30etik 20:30era). Oca- ko haizpitarte ikusgarriez ingurututa, Pancorbo, Frias edo Oña dira Obarenes mendien ondoan dauden herrietako batzuk..

**LIBURIA SALGAI**  
Arrasateko mendi elkartea argitaratu duen *Besaidek mende erdia betetzen du liburua salgai dago* Besaideren egoitzan. Bazkideek 25 euro ordaindu behar dituzte, eta gainontzekoek 28 euro.

## futbitoa zaldibar

### EMAITZAK

Cipris-Abokajarro .....	3-1
Iriztu Taberna-HLB 108 .....	2-1
AT Celaya-THC .....	3-4
Cicatrux-Lasagabaster .....	1-8
Saukelu Abian-Equs .....	2-3
McAwen Dauen-Iturrioz Taberna .....	4-2
Iluntz-Ekaitz Taberna .....	3-4
Dublin Irish Pub-Kalapatxak .....	8-1
Dribling-Bar Kokots .....	12-4
Betrayer-Total Disaster .....	14-2

### PARTIDUAK

Azaroak 10, zapata .....	Epaileak
10:00 AT Celaya-Equs .....	Iriztu
11:00 Iriztu Taberna-Lasagabaster .....	Equs
12:00 Dublin Irish-Total Disaster .....	Lasagab.
13:00 Saukelu Abian-Ekaitz Tab. ....	Dublin
16:00 Cicatrux-Iturrioz Tab. ....	THC
17:00 Abokajarro-THC .....	Cicatrux
18:00 Iluntz-Bar Kokots .....	Abokajarro
Azaroak 11, domeka .....	Epaileak
11:00 McAwen Dauen-Kalapatxak .....	Dribling
12:00 Dribling-Betrayer .....	Kalapatx.
13:00 Cipris-HLB .....	Betrayer

### SAILKAPENA

	P	J
1. Betrayer .....	3	1
2. Dribling .....	3	1
3. Dublin Irish Pub .....	3	1
4. Lasagabaster .....	3	1
5. McAwen Dauen .....	3	1
6. Cipris .....	3	1
7. Ekaitz Taberna .....	3	1
8. THC .....	3	1
9. Equs .....	3	1
10. Iriztu Taberna .....	3	1
11. AT Celaya .....	0	1
12. Iluntz .....	0	1
13. Saukelu Abian .....	0	1
14. HLB 108 .....	0	1
15. Iturrioz Taberna .....	0	1
16. Abokajarro .....	0	1
17. Cicatrux .....	0	1
18. Kalapatxak .....	0	1
19. Bar Kokots .....	0	1
20. Total Disaster .....	0	1

## Antolatzailleek laguntzaileak behar dituzte

Asteburuan jokatuko dute Zaldibarko bigarren jardunaldia, eta jendea gogotsu dago, txapelketa hasi eta berehalda deskantsua izateak jendea hoztu egin du-eta. Futbol gosea dago Zaldibarren, ea gaur eta bihar jokatuko dituzten hamar norgehiagoek gose hori asetzan duten. Horrekin batera esan, txapelketaz gozatzeko antolatu egin behar dela lehenengo, eta antolatzailleak jende beharrean daudela. Animatzen direnek zabalik dituzte ateak.

Argidun kartelak  
Ibilgailuak  
Stand-ak  
Itsasgarriak  
Biniloa  
Seinaleak  
Lonak  
Erliebedun hizkiak

((112))  
SOS DEIAK

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA  
Taberna  
Gesalbar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Pando Errotuloak  
Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

## Arrasatearrak kanpoan

Nagore Arrizabalaga > Fisioterapeuta da  
Bartzelonan bizi da

# "Gehien harritu nauena bertako kultura aniztasuna izan da"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Nagore Arrizabalaga arrasatearra  
Bartzelonan bizi da. 2001ean joan  
zen hara, Fisioterapia ikastera, eta  
Manresan hiru urte egon ondoren  
berriz ere Arrasatera itzuli zen.  
Pasa den urtean, Kataluniara itzu-  
li zen, oraingo honetan Bartzelona-  
ra, eta lana eta ikasketak uztartzen  
ditu hantxe.

Batxilergoa amaitu arte Arra-  
saten bizi izan zen Nagore, bai-  
na 2001ean Katalunia aldera, Bar-  
zelona barneko Manresara joan  
zen, Fisioterapia ikastera. Hiru  
urtez Fisioterapia ikasten ibili  
zen han, eta berrioz ere etxera buel-  
tu zen.

Bi urte Arrasaten eman eta  
gero, berrioz ere Katalunia alde-  
ra joan zen, Bartzelona, 2006.  
urtean. Hantxe, Naturopatia eta  
txinatar medizina tradicionala  
ikasten hasi zen eta dagoeneko  
bigarren maila egiten ari da. Goi-  
zean ikasi egiten du eta arratsal-  
dean, berrioz, fisioterapia zentro  
batean lan.

Katalunia aldera joan zen  
lehen aldian, 2001. urtean, bera-  
rekin Arrasaten ikasitako bi  
lagun joan ziren: markinar bat  
eta idiazabaldar bat, hain zuzen  
ere. Hirurak egon ziren Manre-  
sako etxebizitza baten bizi izaten,  
eta ederki moldatu ziren. 2004.  
urtean, baina, Arrasatera buel-

tatu zen Nagore, eta bi urte etxe-  
an eman ondoren, 2006. urtean  
berriz ere Katalunia aldera joan  
zen; Bartzelona, hain zuzen  
ere.

Oraingo etxebizitzan, Marki-  
nako eta Idiazabalgo lagunez  
gainera, kataluniar bi eta erriox-  
ar bat daude. Nagorek dioe-  
nez, "sei gara etxeian, baina han-  
dia da eta, gainera, etxea estra-  
tegikoki kokatuta dago, denbora  
luzea galtzen baita bestela alde  
batetik bestera joaten".

### KULTURA ANIZTASUNA

Lehenik eta behin aipa daiteke  
bizi izateko modua erabat ezber-  
dina dela, baina alde handirik ez  
dagoela Euskal Herriarekin kon-

**"Bartzelonan kultura  
aniztasun handia dago;  
herrialde askotariko jende  
ugari bizi da hemen, eta  
oso interesgarria da"**

**"Lana eta ikasketak  
ederki uztartzen ditut;  
gainera, Bartzelonaz  
disfrutatzeko aukera  
gelditzen zait"**

paratuz. Eta antzeman daiteke-  
en beste gauza bat da kultura  
askoren nahasketa. Nagoreren  
arabera, "Bartzelona eta inguru-  
a oso handia da, eta horregatik,  
askotariko kulturak elkar-  
tzen dira, askotariko hizkuntzak  
entzuten dira, eta dena hain espazio  
txikian, arraroa egiten da  
hasieran, baina polita da aldi  
berean. Gainera, euskaldunok  
eta katalanek antz handia daudagu,  
batez ere bizi garen lurraldeari  
dagokionez, eta horrez gainera,  
euskaldun asko dago Bartzelona  
aldean bizi izaten".

Aisialdiari dagokionez,  
"Arrasaten baino taberna gehia-  
go daude hemen, eta, beraz, alde  
horretatik aukera zabalagoa da,  
musika estilo askotariko taber-  
nak ugariak direlako. Era berean,  
esan behar da Katalunia aldean  
Euskal Herrian baino gehia-  
go ligatzen dela. Tabernetako  
giroaz aparte, museoak, antzer-  
kiak, erakusketak-eta daude, eta  
hemen ez dago aspertzeko den-  
borarik".

Janariari dagokionez, berrioz,  
"hemengo janaria goxoa da, auke-  
ra ezberdin ugari dauzkagu, bai-  
na ez da Euskal Herriko bezain  
goxoa. Gainera, euskaldun izena  
dutun jatetxe ugari daude, eta  
gure izen onaz aprobetxatuz diru  
dezente irabazten dute", aipatu  
du. Nagorek komentatzen digu-



Nagore Arrizabalaga.

naren arabera, paisaiai dago-  
kionez "ez dago ez Udal ezta Uda-  
latx moduko lekurik Bartzelona  
aldean, nahiz eta hiritik kanpo-  
ra badauden hainbat herrixka  
xarma handiarekin. Kutsadura  
handia dago, automobil ugari,

zarata handia, aire garbia arnas-  
teko eta isiltasunaz gozatzeko  
lekurik ez dago". Amaitzeko,  
Nagorek hauxe aitortu zigun:  
"Nire asmoa 2010. urterako edo,  
beranduenez, 2011.erako Arrasa-  
tera itzultzea da".

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Lagunza terapia.
- Mota guztietako eskola  
arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta  
logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko  
txarrak jasaten dituzten  
pertsonei laguntza  
psikologikoa.
- Ikasketa teknika  
eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

## S. CARRASCAL S.L.

### Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako  
armairuak

### Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15  
Uribarri auzoa 4  
Tel. faxa: 943 79 01 82



943 711768



## Zenbaki Ahokulariak



EMPRESA  
CERTIFICADA  
ISO 9001:2000

### Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

### Laborala:

- Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
- Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

### Kontabilitatea:

- Pertsonea fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABAleta. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

Pelukak eta ilea berreskuratzeko  
sistema berri eta pertsonalizatua



Gubi  
ILE APAINDEGIA  
Otalora Lizentziaduna 5  
Tel.: 943 79 12 74



ARTE LANA Jauregi etxeko erliebea 1500. urte ingurukoa da. Alemaniako grabatuetan oinarritua, ikusteko dago oraindik mudejarrek egindakoa den.

PETRA (EDORTA SANZ)

ONDAREA &gt; JAUREGI ETXEA

# Aparteko arte lana den Jauregi etxeko erliebea berreskuratu dute

Berritzetan lanek bost hilabete iraun dute, 260.000 euroko aurrekontuarekin

Urtarrilean aditzera emango dute ikerketa historiko-artistikoaren emaitza

**EDU MENDIBIL > BERGARA**  
Jauregi etxearen egindako berritzetan gaineko azalpenak eman zituzten eguztenean Petra enpresako ordezkarien eta Xabier Aranburu udal museologoak. Ekainetik hona egindako berritzetan lanek 260.000 euro inguruko aurrekontua izan dute eta Banco Guipuzcoanok ordaindu ditu.

Hain zuzen, Banco Guipuzcoanoko higiezin-departamentuko Iñigo Garaizabalek eta Pedro Charbonet ere hartu zuten parte udal- etxeko batzorde gelan egindako aurkezpenean.

#### IKERKETA, URTARRILERAKO

Gasteizko Petra kooperatibako Mercedes Kortazarrek eta Dolores Sanzek zuzendu dituzte ekainean hasitako berritzetan lanak. Eudald Gillamet berritzalea eza- guna arduratu da aholkularitza teknikoaz. Sanzek azpimarratu zuenez, "berritzetan zientifiko egin dugu eta lantaldetekniko oso importantea aritu da elkarlanean. Bestalde, ikerketa historiko- artistikoaren emaitza urtarril aldera ezagutuko dugu. Orduan zehaztu ahal izango da zehatz- mehatz fatxadako erliebea mudejarrek egindakoa den eta erliebearen gaineko beste ezaugarri batzuk".

**1500**

URTEKOA

1500. urtearen ingurukoa da Jauregiko erliebea. Monumentu Nazional izendapena du Bidekurtzetako Jauregi etxeak.

Xabier Aranburu udal museologoak eta Dolores Sanzek egin- dako lanen berri eman zuten: "2005ean urgentzia zegoen interben- tzio bat egin behar izan zen lehen pisuan dagoen erliebea erortze- ko arriskuan zegoelako. Aparteko arte lana da Jauregiko, 1500 urtearen ingurukoa. Espainian ez dago horrelako besterik, lehen mailako arte lana da. Erliebe hori mantendu egin da beti Jauregi etxearen: XIX. mendearren

bukaeran eta XX. mendearren hasieran bi pisu gehitu zizkiotela etxeari. Presio horren eraginez eta urtetako higaduraren ondorioz egoera oso txarrean zegoen". Erliebeko azken berri- tzea 1978ko zen.

Banco Guipuzcoanoko fatxa- dan dagoen armaria (XV. mendekoa) ere berritu dute oraingoan. Jauregi etxean Monumentu Nazional izendatu zuten 1923an eta 1984a ezkerro Euskadiko Monumentu Nazionala da baita.

#### > UDALA **Ordenantza fiskalak azaltzeko batzarrak herritarrekin**


Udalbatzak onartutako ordenantza fiskalei alegazioak aur- kezteko epea abenduaren 5era arte dago zabalk. Herritarren iradokizunak eta iritzia jasotzeko bi bilera deitu ditu Udalak: azaroaren 14an eta 21ean egingo dira aipatutako bilerak, 19:30ean, udaletxeko osoko bil- kuren aretoan.

#### > TXAPA IRRATIA **Programazioa finkatzeko bilera domekan, gaztetxeen**

Txapa Irratiak deitura, dome- kan, azaroaren 11n, bilera izan- go da gaztetxeen, 19:00etan. Urteko programazioa finkatu- ko dute eta, beraz, irratsaioren bat egiteko interesa duten guz- tiei joateko eskatzen zaie. Gogo- ratu Interneten entzun daiteke- ela Txapa: [www.txapairra- tia.org/entzun.htm](http://www.txapairra- tia.org/entzun.htm)

*Estetika zentroa*  
**Igaro**  
Barrenkale 35  
BERGARA

**Aurpegi liftinga kirurgia barik!**  
**ATEIREKIEN JARDUNALDIA**  
Azaroaren 14an IGAROn  
*Thermafine* tratamendua  
Aurpegioko obaloa gaztetzea  
Langile espezializatuak  
Kontsulta DOAN  
Eskatu ordua: 943 76 17 27



**K21**  
KONTZERTEKO  
IZTIRAKI  
I. MUNIA  
**AZKARATE**  
AROZTEGIA  
Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20  
**Arotz lanetan behar duzun guztia**  
Ateak • Leihoa • Horma-armairuak • Tarimak  
Parketak • Sukaldeak  
[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)



ELKARTEAK Herriko elkarteei zuzendutako lehiaketan, partaideek patatak saltza berdean gertatu beharko dituzte. GOIENKARIA

GIZARTEA > SAN ANTONIOKO GURE AMETSA ELKARTEA

## Tabernak eta elkarretek lapiko artean lehian

Gure Ametsak pintxo lehiaketa eta sukaldaritza lehiaketa iragarri ditu azaroaren 25erako

EDU MENDIBIL > BERGARA

Gure Ametsa elkartearren eskuistik, patata feria eta pintxo lehiaketa izango ditugu Bergaran azaroaren 25ean.

Pintxo lehiaketan Bergarako tabernek parte hartu ahal izango dute; izenematea hurrengo asteko arte, hilaren 17ra arte, dago zabalik. Pintxoak egiteko orduan patata izango da erabili beharreko osagai nagusia. Antolatzaleek 2,5 kiloko patata poltsa bana emanago diete partaideei eta gainerako osagaiak haien kontura izango dira. Hiru pintxo onenak saritu-

ra arte, hilaren 17ra arte, dago zabalik. Pintxoak egiteko orduan patata izango da erabili beharreko osagai nagusia. Antolatzaleek 2,5 kiloko patata poltsa bana emanago diete partaideei eta gainerako osagaiak haien kontura izango dira. Hiru pintxo onenak saritu-

ko dituzte; aurkezpena, originaltasuna, osaketa eta zaporeak zerehana izango dute.

Gure Ametsako Jesus Jauregiren hitzetan, "Rafael Garitano ekarri nahi izan dugu gogora ekitaldiokin. Santa Marinako parrokoa izan zen XVIII. mendean eta patataren landaketan eta ikerketan aitzindarietako bat izan zen. Euskalerriaren Adiskideen Elkarretek haren ikerketen berri eman zion Espainiako Erregeareni. Pertsonaia bitxia izan zen duda barik".

### PATATAK SALTSZA BERDEAN

Esan bezala, patata feria ere ospatuko da San Antonioko plazatxoan. 12 patata mota erakutsiko dituzte, patata dastatzea eta salmenta postuak izango dira eta elkartea gastronomikoei zuzendutako lehiaketa ere: patatak saltza berdean gertatu beharko dituzte partaideek. Izenematea eta argibideak: 648 01 32 40 (Jesus Jauregi).

### GABONETAKO POSTALAK

Bestalde, Gabonetako postalen III. lehiaketa (Serafin Esnaola memoriala) deitu du Gure Ametsak. 3 eta 12 urte bitarteko hau-rek har dezakete parte eta adinaren arabera hiru maila bereiztuko dituzte. Gabonen gaineko marrazkia aurkeztu beharko dute orri laurdeneko kartulinan. Postalak Gure Ametsa elkartera era- man beharko dituzte abenduaren 21ean, 19:00etatik 21:00etara. Ira-bazleek trofeo bana jasoko dute eta partaide guztiei diplomak emango zaizkie. Sari banaketa abenduaren 22an egingo dute.

### ARTXIBOA

## Historiako lanak bultzatuko ditu Udalak

Interesatuek Udaleko Artxibora jo dezakete azaroaren 20a baino lehen

E.M. > BERGARA

Herriaren gaineko historiako lanak bultzatuko ditu Udaleko Artxiboa. Historia ikerketaren bat eginda dutenei edo egiteko asmoa dutenei lankidetza eskainiko diete; interesatuek Udaleko Artxibora jo dezakete azaroaren 20a baino lehen.

Helburua bikoitza da: Artxiboko fondoak herriarrerri gerturaztea eta, aldi berean, herriarrek eurek landatko gaiei irtenbidea ematea. Udaleko Ondare, Turismo eta Informatika batzordeak baloratuko ditu jasotako proposamenak eta Bergarako udal webgunean jarriko dituzte lanik interesarrirenak.

Udalak sortutako dokumentazioa, Errege Mintegiko artxiboa eta beste hainbat fondo gordetzen dituzte Udaleko Artxiboa.

## Bidegorri zatia Mekolalden, jarraipenaren zain

Mekolalden egiten ari diren industrialdeko urbanizazio lanen barruan, bidegorri zati bat amaituta dago jadanik, Grupo Eibarri egitea egokitzen zitzaina, hain zuzen ere. Bidegorri zatiak 495 metro inguruko luzera dauka Tornilleria Deba lantegitik Osintxu aldera. Lantegitik Bergarara datorren zatiak ez dauka jarraipenik oraindik, argazkian ikusten denez.



**JAUJA KIROLAK**  
Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295

**UGARTE**  
AROTZTEGIA-ALTZARIAK  
**K21**

Arotz lanak orokorrean  
• Horma armairuak  
• Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA  
Ikerlekua zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91 / Faxa: 943 76 08 04

GIZARTEA > BEDELKAR

## Herriko dendarien jaia ospatuko da bihar, zapatua

Pintxo eta edarien dastatzerako gonbidapena eskuratu behar da aurretik

E.M. > BERGARA

Bihar, zapatua, herriko merkatartzaren aldeko jaia egingo du Bedelkar dendarien elkartea. Goizean zehar hainbat ekitaldi izango dira San Martin plazan. Pintxo eta edarien dasta-

tza eguerdi partean izango da. Gonbidapena beharrezko da eta Bedelkarreko dendetan daude eskuragarri. Dendariek aurten antolatutako lehen jaia da biharkoa.

ERAKUSKETA ETA MUSIKA

Era berean, Zeramika eta Tai-la Eskolaren eskutik erakusketa egingo dute bihar plazan. Eta giroa alaitzeko ez da musikarik faltako: Musika Eskolako Trikitixa Taldeak eta Txaranga Gazteak alaituko dute jaia.

**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUAK, S.L.

Era guztiak lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefona: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32



MENDIZABAL ETA FURUNDARENA Dagoeneko hamar kontzertu eskaini dituzte Euskal Herrian.

GARIKOITZ MENDIZABAL

**MUSIKA > TXISTU ETA ESKUSOINU KONTZERTUA**

# Gaur, egubakoitza, txistu eta eskusoinu kontzertua udaletxean

Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarenak eskainiko dute kontzertua, 19:30ean

Udazken Kulturalaren barruan, Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da

**JASONE ZABALA > BERGARA**  
Garikoitz Mendizabal (txistua) eta Aitor Furundarenak (eskusoinua) kontzertua eskainiko dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan gaur, 19:30ean. Erreperi-

torioari dagokionez, askotariko bikoteari esker txistua eta eskusoinua bateratuz lor daitekeena entzuteko aukera ezin hobea eskaintzen du gaurko kontzertuak. Mendizabal eta Furundarenak denbora daramate elkarre-

ratzen den edonorentzat gustagarri: *Belatsarena, Aria, Horbel dantza eta Urepel, Fandango boleroa, La muerte del Angel, Scotish suite, Migerlea, Jota* eta amaitze-ko *Porrusalda*.

## TXISTUA ETA ESKUSOINUA

Garikoitz eta Aitorrek osaturiko bikoteari esker txistua eta eskusoinua bateratuz lor daitekeena entzuteko aukera ezin hobea eskaintzen du gaurko kontzertuak. Mendizabal eta Furundarenak denbora daramate elkarre-

kin lan egiten, eta aurten hamar kontzertu eman dituzten Euskal Herri osoan.

Bien esanetan, "txistuak eta eskusoinuak zailtasunak izan dituzte denbora luzez publikoaren arreta eta errespetua lortze-ko, eta eskaintzen dugun kontzertu bakoitzean gure helburua ikusleenganaino heltzea da. Denen gustokoa izango dela uste dugu".

Kontzerturako sarrera doakoia izango da eta emanaldiaren iraupena ordubete eta laurden ingurukoia izango da.

## Juanjo Altunaren ikasleen pintura erakusketa

Juanjo Altunaren pintura ikasleen erakusketa izango da kultura etxearen gaurtik hasi eta datorren azaroaren 24ra arte. Bertan, 25 ikasleren estilo askotariko 27 koadro egongo dira ikusgai. Koadro horiek ikusteko ordutegia ondorengo izango da: astelehene-ikoa egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara eta zapatueta, 12:00etatik 14:00etara.



JASONE ZABALA

> MUSIKA  
**Kontzertuak izango dira asteburuan Ziripot tabernan**

Asteburuan zuzeneko musika entzun nahi duena Ziripot tabernara joan daiteke.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan, DJ Lala (Legazpi) izango da musika jartzen Ziripoten.

Bihar, zapata, Mixt Meataka (Zarautz) izango da bertara hurbiltzen diren guztien gorputzak dantzan jar-zen, 23:00etan hora ere.

Aukera oso ona, beraz, DJ asteburuaz gozatzeko Bergaran.

> MUSIKA  
**Gaztetxeen kontzertuak egongo dira bihar gaelean**

Bihar gaelean kontzertuak egongo dira gaztetxeen, 22:30ean hasita.

Bi taldek eskainiko dute kontzertua: Los Cretinos rock and roll taldea eta *spaghetti rocka* egiten duen La Banda del Abuelo.

Bi taldeak Arrasatekoak dira. Los Cretinosek bere lehen lan kaleratuko du Estatu Batuetan, eta La banda del Abuelo, laster bere bigarren lana kaleratuko du.

> MUSIKA  
**Bihar DJ gau luzea izango da Jam aretoan**

Bihar gauerdian hasi eta goizaldeko zortziak arte, DJ gau luzea eskainiko dute Jam aretoan.

Bertan, musika jartzen egongo dira sei DJ hauek: Daniel Stefanik, Pablo Akaros, Pedro Suite, Haitz, U. Bellamy eta Gafapast.

Zapatuko kontzerturako sarrerak 15 euro balio du, eta edari bat doan izango da. Honen ostean, *after jaialdia* iragarri dute 08:00etatik 14:00ak arte.

> PINTURA  
**Nieves Medelaren erakusketa Nahikari tabernan**

Nieves Medela Elorrioko margolaria koadro erakusketa egongo da azaroan Nahikari tabernan. Bertan, Nievesek olioan margotutako 12-16 koadro egongo dira ikusgai.

Nieves Medela duela 20 urte hasi zen pintura munduan, Juanjo Altunak Elorriion ematen zituen pintura eskoletan. Medelaren estiloa zuen eta apaintzailea da, eta helburua jendearengan sentzazio positiboak sortzea da.

# ZAHARRAK BERRI SAIOA

**R** zaharrak  
**B**ERRI

Zure intereseko elkarritzak,  
erreportajeak eta tertuliak  
batzen dituen programa berria  
daukazu **GOITBn**

Aste honetan:



**NOIZ:** Azaroak 14 eta 15

**NOR:** Amaia  
Diaz de Monasterioguren  
Dietista

**GAIA:** Gaztainak, osasunerako  
oso onak.

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara, **SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**  
**Deitu** programan zehar **943 00 08 34** telefonora

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikustekoa!**

Babeslea:

URREZKO  
ZERBITZUA

Luis Mari Fernandez &gt; Mendizalea

# "Mendi tontorrak igo gura izatea inguruak ezagutzeko aitzakia da"

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Pirinioetan 200 tontor baino gehiago daude 3.000 metroko muga gainditzen dutenak, baina horietatik 129 dira nagusienak, gainontzeakoak bigarren mailakoak dira eta. Luis Mari Fernandezek (Bergara, 1968) tontor nagusi horiek guztiak zapaldu ditu, eta baita bigarren mailako asko ere.

Zelan bururatu zitzazun Pirinioetako 3.000 metroko tontor guztiak egitea?

Egia esateko, Pirinioetara joaten hasi eta berehala bururatu zitzaidan hori. Gogoan dut 15 urterekin joan nintzela lehenengoz Pirinioetara, lagunekin, eta poliki-poliki mendiak igotzen hasi ginan. Geroago esan zidaten, baina, hainbat menditan eskalatu egin behar zela, eta alde batetara utzi nuen ideia hori, nik ez nuen-eta eskalatzan.

Eta, orain dela 10 urte heldu zenion berriro ere helburu horri.

Bai. Gutxi gorabehera 30 urtekin hasi nintzen eskalatzen, eta orduan hasi nintzen teknikoki zailagoak diren mendiak igotzen. Dagoeneko igo ditut mendi tontor nagusienak (129), eta hiru milako guztiak egiteko 30 tontor edo geratuko zaizkit.

**Helburu hori betetzera joaten zara Pirinioetara?**

Egia esateko, ez. Pirinioetara lagunekin edo bikotearekin ondo pasatzera joaten naiz, mendiaz gozatzera. Eta, geratzen zaizkidan tontor horiei ez diet garrantzia handiegirik ematen. Alde horretatik, eskerrak eman gura dizkiet horrenbeste urtetan Pirinioetara lagundu didaten lagun guztiei, eurei esker igo ditut-eta horrenbeste mendi.

**Zer da mendira joateak duen onena?**

Mendiaren inguruak ezagutzen ditugula. Mendi horiek igotzeko helburua izanda Pirinioetako bailara mordoa ezagutu ahal izan dut, eta bazter horiek guztiak ezagutzea izan da onena. Gainera, hori daukate ona Pirinioek, bailara mordoa dituela. Gredosko mendizerra, edo Europako Mendiak berehala amaitzen dira, baina Pirinioak ez.

**Pirinioetan zein mendi auke-ratuko zenuke?**

Ez da erraza erantzutea, asko daude-eta. Vignemale polita da, baina baita Gourgs Blancs, Munia edo Pic Long ere.

**Eta gaua igarotzeko leku bat?**

Cregüeña lakua. Maladeta inguruan dago; oso leku lasaia da, paraje ederra. Egia da, baina, bertara ailegatzea ez dela horren



Luis Mari Fernandez, Gran Facha (3.005 metro) mendiaren tontorrean.

LUIS MARI FERNANDEZ

**"Maiatza eta ekaina hilabete onak dira Pirinioetara joateko, eta baita urria ere"**

**"Vignemale ederra da, baina baita Gourgs Blancs, Munia edo Pic Long ere"**

erraza, hiruzpalau ordu egin behar dira-eta oinez, eta mila metrotik gora dago.

**Zehilabete da Pirinioetara joateko aproposena?**

Maiatzean eta ekainean zelaiak dagoeneko ez dute elurrik, baina tontorretan oraindik elur ona egoten da. Eta, urria ere hilabete ona da, basoak ikusgarri egoten dira-eta. Bestalde, uda

partean jende gehiegi ibiltzen da, abuztuan batez ere.

**Horrenbeste tontor eginda, izango duzu anekdotarik.**

Behin, Posets-eko ertza eskalatzen geundela mendizale batekin egin nuen topo. Frantsesa zen,

eta ia 70 urte zituen. Hari komentatu nion 3.000 metroko tontor guztiak igo gura mituela, eta bostekoak eman zidan. Ni hunkituta geratu nintzen, izan ere, niretako mendizale hark zuen benetako meritura, adin horrekin eskalatzen ibiltzea, alegia.

## BEHEKO TABERNA

Menestra  
eta untzia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74

**Ion Murgizu Pinturak**  
*Pintura orokorrean*

Fatxadak  
Pintura Industriala  
Dekorazio Pinturak

**Bergara - Soraluze**  
**Tf: 943 75 13 24 - 652777030**

## Iabegaraieta

### EMAITZAK

Errotagain-El Mapet .....	4-1
Iribide-Los Blus .....	1-7
Belengua-Hamaika Jintxi .....	5-4
Carboneros-Deportivo Oriente .....	19-1
Niu Tim-Komando Piperrak .....	Atzeratua
Irish Pub-Tiki-Taka .....	Atzeratua

### PARTIDUAK

Azaroak 11, domeka, kanpoan	Epaileak
10:30 Irish Pub-Tiki-Taka	Deport. Oriente
11:30 Iribide-Tiki-Taka	K. Piperrak
Azaroak 11, domeka, barruan.	Epaileak
11:30 Irish Pub-D. Oriente	Errotagain
12:30 Errotagain-Komando P.	Irish Pub
16:00 Niu Tim-El Mapet	K. Piperrak
17:00 Niu Tim-K.Piperrak	El Mapet
18:00 Belengua-Los Blus	Hamaika Jintxi
19:00 Carboneros-Hamaika Jintxi	Belengua

### SAILKAPENA

	P	J
1. CM Errotagain.....	9	3
2. Los Blus .....	9	3
3. Belengua .....	9	3
4. Tiki-Taka .....	6	3
5. Carboneros .....	3	3
6. El Mapet .....	3	3
7. Komando Piperrak .....	3	3
8. Irish Pub .....	3	3
9. Iribide .....	3	3
10. Hamaika Jintxi .....	0	3
11. Niu Tim .....	0	3
12. Deportivo Oriente.....	0	3

## Animuak Deportivo Oriente taldeari!

Sailkapeneko azken postua betetzen du Deportivo Oriente taldeak, eta ez da gozoa izaten txapelketari hortik behetik begiratzea. Gutxiago, gainera, joan den asteko moduko jipoia jasotzen baditzute Carboneros taldekoak 19 gol egin zizkieten-eta, erruki barik. Hori horrela, zutabe txiki hotentatik animuak taldekidetik guztiei, egoera horretan astero-astero galtzak janzteak badu-eta meritura.

Bestalde, aurreko jardunaldiko partiduak atzeratu eta gero, asteburuan lan bikoitza izango dute hainbat taldek. Niu Tim-ek, esaterako, bi partidu jokatuko ditu jarraian. Eta, Jokalari gutxi joaten badira partidu horietara, giharretako min ederra izango dute astelehenean, eta aste osoan.

## bergararrak kanpoan

Maria de Fatima Pereira > Brasildarra  
Bergaran bizi da

# "Hamabi urte daramatzat hemen eta oso integratuta nago"

JASONE ZABALA > BERGARA  
Fatimak 12 urte daramatzat Bergaran bizi izaten. Haren senarra Bergarakoa da, eta Kimberly izeneko alaba bat du. Gure artean denbora luzea daraman arren, euskara ikastea zaila egiten zaio.

Fatima brasildarra da, Bahia estatuko, Ciudad de la Conquista herriko, hain zuzen ere. 92. urtean etorri zen lehen aldiz Euskal Herrira, zehazki Bilbora. Bergarara 93. urtean heldu zen, orain senar duen Fran ezagutu zuenean. Sukaldari lanetan dihardu. Klimari dagokionez, erabat ezberdina da Brasilgo eta hemengo

klima, baina "ohitu egin naiz dagoeneko hemengo hotzetara, eta ahaztuak ditut honezkero Brasilgo 30 graduau".

Brasildik faltan sumatzen dituen gauzen artean bertako Aratusteak eta janaria, fruta eta barazkiak daude, eta hemendik gehien gustatzen zaiona paella

**"Inpaktu handien elurrik eragin dit; inoiz ikusi gabe nengoen, eta lehen aldian ezin sinisturik gelditu nintzen"**



Fatima Pereira.

da. "Brasildarrak diren nire lagun batzuk ez dira ohitu hemengo janarira, eta Brasilgoa egiten jarraitzen dute; ni, berriz, hemengora ohitu naiz aspalditik".

Jendeari dagokionez, euskaldunak jatorrak garela dio Fatimak, eta "inoiz ez naiz baztertua sentitu, nahiz eta elkarri lagunetzeko garaian hemengoak itxiagoak diren".

### ELURRAK TXUNDITUTA

Fatimak elurra lehen aldiz Bergaran ikusi zuen: "Zelai berdeak Brasilere baditugu, eta ohitura nengoen, baina elurra inoiz ikus gabe nengoen, eta zirrara handia sortu zidan".

Brasilen zazpi anai-arreba utzi ditu, eta lau urtean behin egiten die bisita. Euskarari dagokionez, "oso gustuko dut hizkuntza, nire alabak hitz egiten du, baina momentuz ez dakit, oso zaila iruditzen zait, nik uste dut ikasiz gero erdara baino solteago hitz egingo nukeela".

## bere ustez



Iñigo Garitano

## Politika, GKEak eta gardentasuna

Ez dakit zer gertatu den *El Arca de Zoegobernuz* kanpoko erakundearren inguruan. Komunikabideek zabaldu duten informazioek kezka sortzen dute. Ikusi beharko da horren guztien atzean zer dagoen. Tamalez, ez da lehenengo kasua izango jendearen fede onarekin jokatzen dena. Argi daukat erakunde gehienak zuzen ari direla, beren helburuak bete nahian jasotako laguntzak behar bezala erabiliz.

Herrien eta gizakien arteko desorekak desagertzeko

**"Tamalez, ez da lehenengo kasua izango jendearen fede onarekin jokatzen dena"**



PERTXA ELKARTEA

Pertxa elkartekoek  
'Kilometro txiki eguna'  
ospatu zuten  
azaroaren 1ean

Urtero egiten duten moduan, Pertxa elkarteko hainbat lagun joan ziren azaroan 1ean, 1991. urtean Bergarako Kilometroetan egindako ibilbide berbera egitera. Duela 16 urtetik hona urtero egiten duten ekitaldia da. Ibilbidea egiteko goizean goiz elkartu ziren

guztiak, eta eguerdi aldera tripa betetzeko Pertxa elkartera joan ziren, baba-jan ederra egitera. Arratsaldea luzatzeko asmoz, kontu kontari eta abesten ere ibili ziren. Argazkia ibilaldia egiten zeudela Agarrekogaraian egindako geldialditxo batean ateratako da.

eta benetako justizia lortzeko politikak (letra handiz) lehentasuna izan behar due-lakoan nago. Eta herritarroi dagokigu, ahal dugun neurriean eta gure esparru mugatutik, agintariei balore eta printzipio horiek lortzeko lan egin dezaten eskatzea.

Kontua ez da egoera hauetaz baliatzea politika-ikusizuna egiteko, Sarkozy presidentearen gisara, adibidez. Ez da hori. Baino herri ekinmenak sortutako erakundeen bide horretan oraindik ere egiteko badutela ere sinesaten dut. Politikak jadanik nahiko ospe falta du bizkar gainean, ondo irabazitakoa, portzierto. Orain, arriskuan egon daiteke GKEetan izan dezakegun konfiantza. Gardentasun osoz jokatzea besterik ez dago.

**GURIA**  
*Taberna*

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

**CAMACHO**  
Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

**EUXEBIO II**

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

**GOIERRI**  
AUTO GIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA



**Ezagutzen duzu hortz-fotozuritzea?**



**Zure irribarrerik  
disdiratsuena  
ordu betean!**



**Lehen**



**Orain**



**Azkarragoa • Ziurragoa  
Erakinkorragoa • Errazagoa**



**EDURNE**  
ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTROA

**ESKORIATZA**  
**943 71 51 54**

# Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

**ABOKATUAK**  
**BERNARDINO MAIZTEGI**  
 BERGARA / Irizar 5  
 T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**  
 BERGARA / Irizar 2  
 T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**  
 ARRASATE / Iturriozt 15, 1 A  
 T: 943 79 98 86  
 F: 943 77 01 08  
 altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**  
 BERGARA / Irizar 5  
 T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**  
 ARETXABAleta / Basabe ind. f-0-10-pab.  
 T: 943 71 21 12  
 zenbaki@zenbaki.es

**AHOLKULARITZAK**  
**AIERDI AHOLKULARITZA**  
 BERGARA / Artekale 1  
 T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**  
 ARETXABAleta / Andra Mari auzunea 3  
 T/F: 943 79 29 26  
 andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**  
 ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
 T: 943 71 25 49  
 F: 943 71 17 79  
 asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**  
 BERGARA / Matxiategi 36  
 T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**  
 ARETXABAleta / Basabe ind. F-0-10 pab.  
 T: 943 71 21 12  
 F: 943 71 22 68  
 zenbaki@zenbaki.es

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**  
**JESUS LASKURAIN PEREZ**  
 BERGARA / Zurradero 4  
 T: 943 76 53 53

**EKONOMISTAK**  
**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBAARRIA**  
 ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behe  
 T: 943 533 888  
 F: 943 533 865  
 uribe.arrobi@euskalnet.net

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**  
**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**  
 ARRASATE / Otalora 16, solairuarte esk.  
 T: 943 79 51 25  
 F: 943 71 19 85  
 URIBESALGO@telefonica.net

**GESTORIAK**  
**EGUREN**  
 BERGARA / Irala 3  
 T: 943 76 21 65

**PROKURADOREAK**  
**JOSE M. BARRIOLA ETXEERRIA**  
 DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma  
 T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,  
deitu **943 71 23 91** zenbakira.



EGOITZA BERRIA Egillor baserri azpiko lurak mugitzen hasita daude langileak, eta bertan zahar etxe berria egingo du GSR kooperatibak.

M.A.

GIZARTE ZERBITZUAK > ZAHAR ETXE BERRIA

## Zahar etxeko lanak hasita daude, orain geldi egon arren

Lanak hasita daude, baina azken hiru asteetan ez da egon mugimendurik

Udal gobernuko kideak Aldundiak izan ziren astelehenean; egoitza izan zen gaietako bat

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**  
Aurreko agintaldiko udalbatzak onartu zuen zahar etxe berria egitea, Debagoienerako izango den egoitza, eta lanak dagoeneko hasita daude. Galartza auzora bidean, Egillor baserri azpiko zelaian, lurra kentzen hasita daude. Azken hiru asteotan, baina, hondeatzemakinak geldi egon dira. Udalak ez daki garbi horren arrazoia, baina paper kontuen ondorioz izan daitekeela adierazi digute. Asteleheneko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hain zuzen, lanak egiteko baimen eskaera argitaratu zuten. 20 egun dauzkate orain herritarrek erreklamazioak aurkezteko.

**BATZARRA ALDUNDIAK**  
Astelaren honetan, gainera, alkatea eta bi zinegotzi, Gizarre Zerbitzuetako Araceli Herran eta Kultura Saileko Lore Martinez,

Foru Aldundiak izan ziren Gizarre Zerbitzuetako arduradunekin. Inaxio Garro alkateak batzarrazen helburua azaldu digu: "Hiru asmorekin joan ginen: elkar eza-

KONTUAN HARTZEKO

### Urats-Gain zahar etxearen etorkizuna

Urats Gaineko mendekotasuna duten egoiliarrak egoitza berrira joango dira lanak bukatutakoan. Langileek, osterak, ez dakite oraindik zer gertatuko den. GSRk eskaini die langile funtzionarioei zein besteei, kooperatibako baziak izatea. Funtzionarioek, osterak, ez dute argi ikusten etorkizuna, eta Udalak irtenbidea topatu beharko die. Hutsik geratuko da Errekabarren kaleko egoitza 2009an, eta Udalak uste du eraikin apropoza dela beste zerbitzu sozial batzuk eskaintzeko. Horretarako, baina, birmoldatu egin beharko dute eta dirulaguntzak ezinbestekoak izango dira.

ESALDIA

"**Beste zerbitzu sozial batzuk eskaintzeko toki aproposa izango litzateke Urats Gain egoitza, baina goitik behera birmoldatu ondoren"**

Inaxio Garro > Alkatea

gutu, Udalak zehaztuta dituen Gizarre Zerbitzuetako proiektu eta egitasmoak aurkeztu eta zahar etxe berriaren gaineko zalantzak argitu: dirulaguntzak, Urats Gain egoitzako funtzionarioen egoera eta beste hainbat kontu". Hilabete baino lehen beste batzar bat egitekotan geratu ziren, oraingoan Aretxabaletan, eta hiru aldeak elkartuko dira: Aldundia, Udal eta egoitza berria egingo duen GSR enpresa.

### 2009KO URTARRILEAN ZABALIK

Zahar etxe berria egiteko hitzarmena martxoan sinatu zuten Aldundiak eta MCC/LKSek. GSR kooperatibak egingo du, eta orduan aurkeztutako proiektuari ukitzu batzuk egin arren, ez du aldaketa handirik jasan. Proiektu haren arabera, 170 pertsonari emango die zerbitzua, eta Debagoi osoko biztanleendako izango da. 170 lekuetatik 30 aldi baterako izango dira, gehienez urtebeterako. Gainerako 140 lekuetatik erdiak Aldundiarekin hitzartutakoak dira. Bestalde, eguneko zentroa ere izango du, 30 lagunendako. 110 langilek jardungo dute, eta 10 milioi euroko aurrekontua aurreikusi dute. 2009ko urtarriean zabalik egongo dela esan dio Udalari GSRk. Eta orduan, Urats Gain egoitzako mendekotasuna duten egoiliarrak bertara joango dira.

Hainbat batzar egin dituzte Udalak eta GSRk azken hilabeteotan. Obra-baimenik ez du ordaindu gura GSRk -dirutzar handia-, gizarte izaera duela obrak esanda, eta ez dira ados jarriten bi aldeak. Horregatik alkateak jakinarazi digu beste batzar bat deitzeko asmoa duela: "Oraingoan, baina, Udaleko zinegotzi guztiak egotea gurako nuke, ez bakarrik udal gobernu osatzen dugunok, guztiak jakin dezaten zahar etxearen gaineko kontuak zela dauden".

**Ezkutu TABERNA**

ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01

**BADATOZ BEHERAPENAK MAPFRERA!**

\* %60ko deskontua automobil aseguruetan.  
\* %25erainoko deskontua etxebizitza aseguruetan.

Errekabarren 3 ARETXABAleta  
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

POLITIKA &gt; EUSKO ABERTZALE EKINTZAREN AZALPENAK

# EAEk salatu du 'Aralarrek ez dituela udal gobernuan gura'

Aralarrek lau baldintza jarri dizkio Udalean sartzeko, eta "Alderdi Legearen aplikazioa" dela dio EAEk

Guztiaren berri emateko prentsurreko egingo dute bihar, 12:00etan, udaletxe aurrean

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABAleta  
Prentsurreko egingo du bihar, zapatua, Eusko Abertzale Ekintzak. Udal hauteskunde osteko kontuak azaldu gura dizkie herriarrei, eta udal gobernuan ez sarzearren arrazoia eman. 12:00etan izango da, udaletxe aurrean.

**LAU BALDINTZA KARGUA HARTZEKO**  
Eusko Abertzale Ekintzako zinegotzi taldeak zera gogorarazi gura die herriarrei, egoera larria bizi zela hauteskundeetan, legez

kanpo geratutako zerrenda izan zelako boto gehien lortutakoa. Bigarren indar izan zen Aralarrek udal gobernuan ez ezik alkatezta eskuratzeko eskaintza ere egin ziola EAERi gogorarazi dute. Bost hilabetetan, baina, asko aldatu direla kontuak diote, eta "gure presentzia gobernuan ezinako bihurtzen duen beste jarraia bateraino joan da".

Aralar, EA eta EAEk egindako lehen bileran, lehenengo bi alderdi artean adostutako idatzia aurkeztu zutela diote, eta

alkatetza Aralarrek hartzea zela aukera bakarra. "Gero, Loreg legearen 182. artikulua -gure ordezkaritza ofiziala bermatzen duena- aplikatzeko zalantzak agertu zizkiguten", gaineratu dute. Urriaren 18an jakin zuten Aralarren azken erabakiaren berri: "Onartzen zuten artikulua aplikatzea, baina baldintza batzuekin". Azaldu dute lau direla baldintzok: zinegotzi kargua hartzen duen pertsona ez egon iza-na legez kanpo utzitako zerrendaren baten; Aralarren esku uztea kargua, eta eskatutakoan dimisioa aurkeztea; edozein jazarpen edo biolentzia ekintzarekiko kontraktosuna agertzea; eta EAERen parte-hartzea sekretuapean eramatea. "Berba gutxitan esanda, Alderdi Legearen aplikazioa", diote EAEko zinegotziek, eta gaineratu: "Garbi dago

Aralarrek ez digula ordezkaritza utzi nahi, eta proposatzen duena partikular batekin egin beharreko kontratu dela".

## KONFIANTZA GALDU

Aralarren diskurtsoan aldaketa handiak egon direla azken hilabeteotan azaldu dute. EAEko zinegotziek diote badakitelua Udalean parte har dezaketela ordezkaritza ofizialik izan barik ere, baina "Aralarren jarri genuen konfiantza galdu egin dugu". Eta hori horrela, ezin direla eurekin gobernuan egon diote. Eta berriro gogorarazi gura izan dute 839 aretxabaletarren ahotsa isiltzen dabilzala, eta Udala legezkoia izango dela, baina inolaz ez demokratikoa: "Aretxabaletarron borondatearen errespetua exijitzen ezin dugu etsi. Ez eta gure herriaren aldeko lanean".

> EUSKARA  
**Atzeratuta bihar jokatzeko zen mahai-futbol txapelketa**

Hainbat ekitaldi antolatu ditu Loramendi Euskara Elkarteak azarorako. Gaur, egubakoitzta, *Nairobitarra* ikusentzunezko eskainiko du Josu Iztueta bidaia. Nairobitarra autobusarekin eindako bidaia izango ditu berbagai tolosarrak. 19:00etan izango da ekitaldia, udaletxe zaharrean.

Bestalde, biharko antolatuta zeukan mahai-futbol txapelketa bertan behera geratuta. Aurrerago egingo dutela esan dute antolatzaleek, baina oraindik ez dakite datarik.

> LEHIAKETA  
**Murrukixon argazkiak aurkezteko azken eguna martitzena da**

Murrukixo Mendizale Elkarteak antolatutako argazki lehiaketa martitzenean, hilak 13, bukatuko da. Egun horretan 19:00etatik 20:00etara jasoko dituzte argazkiok Murrukixok Durana kalean duen lokalean. Edo posta bidez bidal ditzakete interesatuek Aretxabaletako 34. postakutxara.

Egile bakoitzaren lau argazki onartuko dituzte. Egilearen datuekin batera argazkiaren deskribapen motza ere bidali beharko dute. 150 euro jasoko ditu irabazoleak, eta Murrukixok bazkideen artean banatuko duen egutegiaren azalean agertuko da hau-tututako argazkia.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta



## Adiorik ez, Jesus Atxa

Jesus Atxa hil da. Ala hil zen? Inor ez da hiltzen norbaiten gomutan irauten duen neurri. Eta Jesus hor dago; gure gomutan. Eta bere oroitzapena hiru ardatzetan kokatu behar da. Lehena, aretxabaletartasuna; Jesus aretxabaletar petoa zen, ikusi egin behar bere begin distira Aretxabaletako gorabeherak aipatzen zirenean. Bigarren ardatza euskaltzaletsuna; zerbait jakin nahi duenak jo beza Internetera edota egunkarietan argitaratutako biografietara. Eta hirugarren ardatza abertzalesasuna eta bere konpromisoa Euskal Herriareniko. Aretxabaletari

eskainitako azken lana Lorenzo Peñarekin batera (aurten hila) Jesus Peña Etxebarriaren biografian idatzitako testua (Jesus Peña ere aretxabaletarra, euskaltzale eta abertzalea).

Argazki zaharra lehen ardatzean txertatzen da. Hego Ameriketatik itzuli eta Elorriion bizi zela, Aretxabaletara etortzen zen astero UDAn jokatzen. Arrasateko Iturripe futbol zelaian dauden jokalariak: Paulo Ezpeleta, Joxe Etxagibel eta Jesus Atxa. Laguntzaileak: Nemesio Arkauz (masajista, maletarekin) eta Juan Antonio Etxabe. Kaixo eta agur, Jesus, adiorik ez.

Argazkia: Nemesio Arkauz  
Testua: Aitor Antxita Leturia  
Urtea: 1948

**Jon Diaz**  
Harakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABAleta

**Iber**

**Loteria**  
**Paper denda**  
**Liburuak**

Otalora 2. ARETXABAleta  
Tel.: 943 79 04 39

**TABERNA**  
**TARLUTZ**

Mitarre, 16 • ARETXABAleta • TEL. 943 79 32 34

HILETA ZERBITZUAK > BEILATOKIA


# Beilatoki berria urtarrilean zabaltzeko asmoa dute

Abenduaren bukaera aldera amaituko dute eta urtarrilean zabaldu

Hiru gorpurendako tokia egongo da beilatoki berrian

MIREN ARREGI > OÑATI  
Abenduaren amaiera aldera Oñati beilatokia izango dena buktuta egongo da, eta urtarrilean zabaltzeko asmoa dute. Moyua beilatokia Kasablanka auzunean egongo da, Citroen auto kontzesionarioaren ondoan. Tokia ego-kia da, Moyua hileta zerbitzueko Miguel Anjel Moyuaren ustez; izan ere, beilatoki berria herritik hurbil egoteaz gain (ber-tara oinez joan daiteke), toki ezkutuan dago, eta intimitatea izango du familiak.

Beilatokian hiru gorpurendako tokia egongo da. Gorputzak bere gelatxoia izango du eta kristal baten beste aldetik ikusi ahal izango du familiak hildakoa. Familiakkoak hildakoa-rekin egon ahal izango dira ondoko sala batean, eta ikusi nahi ez



BEILATOKIA Kasablanka auzunean egongo da beilatokia, Citroen auto kontzesionarioaren ondoan.

MIREN ARREGI

duenak ez du ikusi beharrik izango, gorpuak sala horren osteko beste gelatxo batean egongo dira eta, familia dagoen salatik ikus-ten ez den tokian, hain zuzen ere. Horrez gain, Miguel Anjel Moyuak biltegi handi bat ere egin du, eta bertan ipiniko ditu jende-ak ikus ditzan saltzeko dituen hil-

kutxak. Hileta-autoa sartzeko sarrera bat ere egin du, eta baitan egiteko bulegoa ere.

## BEHARRA ZEGOEN

Miguel Anjel Moyuak beilatokian beharra ikusten zuen herrian: "Askotan ni neu sentitzen nintzen gaizki familiakoek Bergarara edo

Arrasatera joan behar izaten zuten; gainera, gaur egun hildakoak geroz eta gutxiago egoten dira etxeen, eta beharrezko ikus-ten nuen", dio Moyuak. Langileek beilatoki berritik egingo dute lan, eta 10:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Aparkalekua ere egongo da.

BATZARRA OÑATIN

Espainiako Kobazulo Elkartea bilduko da

Kobazulo elkarteko 25 bat kide batuko dira bihar, zapatua, batzarra egiteko

MAIDER ARREGI > OÑATI  
Oñatin egingo du batzarra Espainiako Koba Turistikoen elkartea (ACTE). Izan ere, Oñati Udala elkartea horretako baxkide da eta aurten Oñatin elkartzea erabaki dute. Zapatuan egingo dute batzarra.

## EGITARAU ZABALA

Oñati ezagutzeo aukera izango dute kideek. Izan ere, 10:00etan elkarteko batzorde teknikoa bilduko den bitartean, gainontzeko parroquia eta unibertsitatera bisita egingo dute. 11:00etan, berri, guztia bildu eta batzarra egingo dute kultura etxeen. Bazkalostean, Arrikutzeko koba ezagutuko dute eta ondoren Arantzazura joango dira.

Guztira, 25 kide etorriko dira. Besteak beste, Extremadura, Nerja, Granada, Vall d'Uixó, Huelva, Kantabria eta Espainiako Espeleología Federazioko kideak.

KIROLA > ANTIXINTXIKETAN KIROL TALDEA

# Giokelak babestuko du taldea

Antxintxiketan kirol taldeak denboraldi eta irudi berria aurkeztu zuen eguztenean

MAIDER ARREGI > OÑATI  
Aurrerantzean Giokela izango du babesle Antxintxiketan kirol taldeak. Dagoeneko bost urte



ANTXINTXIKETAN TALDEA Prentsurrekoia ematen taldekideek

MIREN ARREGI

daramatza kirol taldeak atletismoan lanean. Orain, kide berriak egiteaz gain, ekintza gehiago egiteko asmoa daukate. Besteak beste, gaztetxoendako herri lasterketa bat egin nahi dute. Hurrengo urteetarako, gainera, beste maila eta kategorietako lasterketak egiteko asmoa ere badute. Bestalde, federatutako Gipuzkoako kros txapelketa egiteko asmoa daukate. Hala, antolatzaleek

ekintza hori aurrera eramateko Udalaren eta baserritarren lagunza, besteak beste, beharko dute-la azpimarratu zuten prentsurrekoan.

Gorpuzti bezperan egiten duten nazioarteko lasterketarekin jarraituko dutela adierazi zuten taldeko kideek.

## HARROBIA INDARTU

UNE honetan, bost kidek osatzen dute Antxintxiketan taldea: Miguel Anjel Igartua, Ritzar Fernandez, Asier Osinaga, Jexux Odriozola eta Gaizka Romero. Baino aurrera begira harrobia sortu gura du elkartea; hala, herriko gainontzeko atletismo elkarteei oztoporik ipini gabe, parte izan nahi dute, umeak atletismo munduan sartze bidean.

## JANTZI BERRIAK

Federatutako lasterketetan parte hartuko du taldeak. Jantzi berriak egin dituzte eta bertan Antxintxiketan kirol elkartea-Giokela izena eramango dute. Entrenatzeko beste jantzi bat ere izango dute taldekideek.



GOIENKARIA

# Herri eskolak gela egokitu du

Oñati Herri Eskolak bi urteko umeendako gela berritu eta egokitu du. Ikerketa, guraso eta irakasleen eskaerari erantzunet, eguneroko beharrak asetzeko asmoz egin dute berrikuntza. Hala, aretoa gela bakar batean edota bi gela desberdinat bana daiteke. Komuna eta ume txikiendako aisiaaldi gela ere bertan jarri dituzte. Haur Hezkuntzako lehen mailan matrikulatutako 28 umeendako areto argitsu, zabal eta alaia bilakatu da egokitutako gela.

DENDARIAK > VITERI DENDAK 100 URTE BAINO GEHIAGO

# Viteri denda 100 urtetik gora zabalik izateagatik omenaldia egingo die Udalak

Mari Carmen eta Mari Mertxe Viterik erretiratu artean eutsiko diote Viteri dendaren ardurari

Aitajaunak zabaldu zuenetik gaur egunera arte irautea herritarrei eskertu behar dietela azaldu digute

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Datorren asteburuan Udalak omenaldia egingo die Viteri dendako Mari Carmen eta Mari Mertxe Viteri ahizpe. Hain zuen ere, 100 urte bete ditu aitajaun Prudenciok zabalduak denda.

100 urte bai, baina seguruenik gehiago pasako ziren Marien jaiotako Prudencio Viterik lehenengo denda zabaldu zuenetik: "104 bat urte-edo izango dira, guk dauzkagun erreferentzia batzuen arabera, baina dendaren gaineko dokumentazioa 1907tik aurrera lortu dugu", azaldu ziguten Mari Carmen eta Mari Mertxe Viteri ahizpek.

**DENETARIK SALTZEN ZUTEN**  
Bi ahizpek gordeta daukate 1907ko kontuen liburua eta han hainbat bitxikeria ageri dira. Esaterako, urte hartan 23.000 pezetako fakturazioa egin zuen Prudencio. Denetatik saltzen zuten orduan: azukrea, abarkak, bakailaoa, kamisetak, labanak, txokolatea, trajeak, txapelak, kortsia, plantxa, arrautzak... Kaleko dendan saltzeaz gain, Prudenciok asteak birritan-edo Marulan-dara jotzen zuen, han errentan zeukan beste lokal baten ere salmentak egitera.

Gerora, Prudencioen seme Joxek eta Maritxu emazteak denda hartu zutenean poliki-poliki arroparekin espezializatzen joan ziren: "Gure aita zen Joxe jostuna zen, eta haren emazte Maritxuk hartu zuen dendaren ardura. Aitaren eraginez, jakia alboratu eta mertzieran eta jantzigintzan oinarritu zuten negozioa".

**OHITURAK ALDATU DIRA**  
Viteri ahizpek onartu dute garaiak asko aldatu direla. Mari Mertxeak gogoan dauka eurak txikiak zirenean bezero askok *apunteak* uzten zituztela: "Oso ohikoa zen erositako zaorretan uztea eta hilabete bukaeran-edo ordaintza. Azken 20 urteotan ez dago halakorik, kreditu txartelengatik. Eta lehen urte osoan, egunero zabaltzen genuen".



FAMILIAKO NEGOZIOA Argazkian Mari Mertxe eta Mari Carmen Viteri ahizpak, denda, aitajaunaren kutxa erregistratzailaren alboan.

IKER BARANDIARAN

## Dendan bertan hazitako hainbat belaunaldi

Maringo Prudencio Viterik XX. mende hasieran denda zabaldu zuen Zubizarreta enpresaren bulegoa zegoen lekuau. 1910ean Arana kaleko 6.era eraman zuen denda. 2002an etxea bota egin zuten, eta bilobek Gaztañadui kalean lokal alookatu zuten.

Prudencioen lekukoa Joxe semeak eta Maritxu emazteak hartu zuten. Maritxu ia 100 urterekin hil zen, eta egunero joaten zen dendara. Gaur egun, Maritxuren alaba Mari Mertxe eta Mari Karmenek daramate denda. Erretiratzean denda itxiko dute.



Maritxu Viteri (eskuman) senideekin dendaren ondoan 1955ean.

GOIENKARIA

**AZKOAGA**  
**ESTANKOA**  
943 71 48 77  
Zure  
Zerbitzura

**Villar**  
**Ile apaindegia**  
Olazar auzoa 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA

**DE LA TORRE**  
**igeltserotza**  
*Erreformak orokorrean*  
*Gremioen koordinazioa*

Intxaurtxeta 7 2-D  
20540 Eskoriatza  
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27

ENERGIA > ENERGIA KONTSUMOA

# Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak hitzarmena egingo dute

Hitzarmen horren bitartez, Udalaren eta udalerriaren energia kontsumoa aztertu eta eguzki plakak jartzeko laguntasuna izango dute

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Udaleko Hirigintza batzordeak erabaki du Energiaren Euskal Erakundearekin hitzarmena egitea. Hitzarmen horren bitartez, Udalak erakunde horri Udalaren eta udalerriko argindar kontsumoaren informazioa emango dio. Hala, erakunde horrek kontsumoa aztertu eta aholkuak emango dizkio Udalari.

EAE-ANV taldearen ustetan, hitzarmenak bi alderdi nagusi ahalbideratuko ditu: batetik, uda-

lerrian energia berriztagarriak bultzatzea; eta bestetik, kontsumoa txikitu eta aurreztea.

**KONTSUMOA AZTERTU**  
Gero, udalerriko datuak eskuetan, Energiaren Euskal Erakundeak azterketa egingo du, alor horretan Udalaren gabeziak eta gaitasunak zeintzuk diren jakiteko. Horrez gain, erakundeak laguntasuna eskainiko dio Udalari eguzki plakak, termikoak eta fotovoltaikoak jartzeko.

EAE-ANV taldeak azaldu digu EEEren asmoak euren helburuekin bat datozena, eta baikor direla hitzarmen horrekin.

**UDALAK LEHENENGKO PAUSOAK**  
Horrez gainera, Udalak baditu horrekin lotutako beste asmo batzuk. Lehenik eta behin, eraikin publiko guztietan eguzki plakak jarri gura dituzte. Hain zuzen ere, Pedro Lasagabaster alkateak argitu du Udalak eman behar dituela lehenengo pausok, eta gero herritarrei borondatea eskatu.

Besteak beste, eraikin publikoen energia gastua eta isolamendua aztertu eta argiteria publikoa berrikusiko dute.



EGUZKI PLAKAK Kirolegian eguzki plakak daude. Asmoa da eraikin publiko guztietan halakoak jartzea.

IKER BARANDIARAN

EUSKARA > EUSKALKIAREN ALDEKO EKIMENA

## Euskalkia berreskuratzeko lanean jarraitzeko asmoa

Badiharduguk eta Udalak hitzarmena sinatu dute euskalkia jasotzen jarraitzeko

berreskuratu zituzten. Horiek guztiek batu eta transkribitzeari ekin zioten.

Lan handia eta garantziak egin zuten, eta aurtengo apirilean jendaurrean aurkeztu dute emaitza.

Horrez gain, ekimenean esku hartu zuten nagusi guztieei eskerrak emateko bideo bat egin zuen Artxamanen enpresak.

### WEBGUNEAN ESKURAGARRI

Eskoriatzako Udalaren asmoa da informazio hori guztia jaso eta zabaltzeko, elkarrizketa guztia – falta direnak – transkribatu eta webgunean eskuragarri jartzea.

Hala, lan hori garatzen jarraitu eta bukatutzat emateko, hitzarmena berriro dute Badihardugurekin. Hitzarmena hiru urterako egin dute; eta horren arabera, 2009ra arte – hori barne – zeregin horretan ibiliko dira.

### NAGUSIEN TESTIGANTZAK

Beka horri esker, Badihardugoko hainbat langilek Eskoriatzako hainbat pertsona nagusi elkarrizketatu zituzten. Hala, lehengo esamolde eta hizkerak

**IKUSKIZUNAK > PIRRITX ETA PORROTX**

## Pirritx eta Porrotxen sarrerak, gaurtik salgai

Azaroaren 24an  
Pirritx eta Porrotx pailazoek ikuskizuna egingo dute

Ikuskizuna azaroaren 24an egingo dute, 17:30ean, Eskoriatzako kirolegian; eta 1.400 sarrera jarriko dituzte salgai. Antolatzaleek jakinarazi dute sarrerak Eskoriatzan bakarrik eskuratu ahal izango direla, aipatutako puntuetan.

**IKUSKIZUNAREN ESTREINALDIA**  
Aspaldiko ohiturari jarraituta, Pirritx eta Porrotx pailazoek azken lana estreinatuko dute Eskoriatzan. Oraingoak *Eskekk asko* izena izango du.

Pirritx eta Porrotxek ez dute inoiz Eskoriatzan kale egiten. Urtez urte hemen estreinatzen dituzte euren lanak. Hori guztia Axtroki euskara elkarrekin izan duten harremanaren ondorio da. Hala ere, azken bi urteotan Udalak eta herriko ikastetxeetako gurasoek elkarrekin hartu dute ardura hori.



**ILE APAINDEGIA**

**APAINDU**

San Juan kalea 12c behea  
ESKORIATZA

Tel.: 943 08 26 40

TRAFIKOA &gt; UDALAREN KANPAINA

# Kanpaina, trafiko seinaleak errespeta daitezen eskatzeko

Jendeak kontzientzia hartzea da kanpainaren helburua; ez dute isunik jarriko

Gaizki aparkatuta dauden automobiletan oharrak jarriko ditu udaltzainak

**AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA**  
 Aurrerantzean, herriko kaleetan gaizki aparkatuta dauden automobilek honako oharra topatuko dute: *Gaizki aparkatu dozu. Eskerrik asko!* Hori koloreko paper handiak izango dira eta atzeko aldean kanpainaren berri emateko idatzia izango dute.

Azkeneko astoetan jarri ditutte seinale berriak Kalebarren eta Herriko Plazan. Behin seinale guztiek behar bezala jarrita,



OHARRA Herriko udaltzaina arduratuko da gaizki aparkatuta dauden automobiletan oharrak jartzeaz. ANTUOLAKO UDALA

oraintxe abiarazi du kanpaina Udalak. Pedro Iturbe alkateak adierazi duenez, kanpainaren helburua da herriko gidariekin kon-

tzientzia hartzea. Ez dute isunik jarriko. Kanpaina hau martxan jartzea erabaki dute Udaleko arduradunak kezkatuta daude-

lako; kezka hori eragiten du ikus-teak herriko gidariekin askotan ez dietela kasurik egiten kaleetako trafiko seinaleei.

MOTORRA &gt; ELKARTEAREN BATZARRA

## Antzuolako Motor Taldea sortu dute

Azaroaren 15ean, eguna, egingo dute hurrengo batzarra, jende gehiago batzeko helburuarekin

**A.I. > ANTZUOLA**  
 Herriko automobil eta motorzale talde batek Antzuolako Motor Taldea elkartea sortu berri du. Aurreko astean egin zuten lehen-dabiziko batzarra eta bost lagun elkartu ziren. Azaroaren 15ean egingo dute hurrengo batzarra, 19:00etan, Olaran etxearen. Gotzon Del Teso taldeko kideetako batek

azaldu duenez, batzar horretan jende gehiago elkartzea nahi dute eta urtean zehar antola ditzaketen ekintzak zehaztea.

"Printzipioz, nahi dugu urtean lau bat ekintza, behintzat, antolatu; besteak beste, automobil klasikoen erakusketa eta motorren irteerak", azaldu du Gotzon Del Tesok.



AUTO KLASIKOAK Herriko jaietan egin zuten erakusketa. GOTZON DEL TESO

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**ANTZUOLA**

Apainketak eta  
isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

*Tomas Gezalaga*

Zoruen kutxilatu  
eta  
bernizatzea

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**GAILUR**

taberna eta  
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

> ERAKUSKETA  
**Argazki lehiaketako lanak ikusgai daude asteburuan Olaranen**

Urriaren 31n bukatu zen argazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Oraingo asteburuan erakusketa egingo dute Olaran etxearen aretoan; 70 bat argazki jarriko dituzte ikusgai. Domekan, hilak 11, emango dute aditze-ra epaimahiaren erabakia eta sariak banatuko dituzte.

> ANTZERKIA  
**Kanpingags taldearen emanaldia gaur, egubakoitza**

Gaur, egubakoitza, Kanpingags taldeak *Izerdi patsetan* antzezlan Eskainiko du Olaran etxearen, 22:00etan.

Iker Galartzeta eta Joseba Usabiaga aktore gazteek osatzen dute antzerki taldea. Euskar Telebistako *Goenkalesaioan* egin ziren ezagun aktore bi horiek.

> FUTBOLA  
**Eztalan jokatuko dute oraingo asteburuan ere**

Antzuolako erregional mailako futbol taldeak etxearen jokatuko du oraingo asteburuan ere; Soraluze izango du aurkari. Zapatuan izango da partidua, 16:00etan.

Aurreko zapatuan bana egin zuten Rotetaren aurka eta bigarren postuan jarraitzen dute antzuolarrek.

> ERRETIRATUA  
**Ekitaldi ugari azaroan zehar erretiratuendako**

Datorren egunean, hilak 15, gaztaina erre jana egingo dute Olaran etxearen, 19:00etan. Bestalde, hilaren 22an irteera egingo dute Mutrikura. Irteera horretarako izena emateko aukera egongo da astelehenean eta martxenean, 18:00etatik 19:00etara.

*Tomas Gezalaga*

Apainketarako eta  
industriarako pinturak

Paper margotuak  
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

SALBADOR KALEKO URBANIZAZIO LANAK > EUSKO JAURLARITZAK URBANIZAZIO LAN HORIEN %75 ORDAINDUKO DU

# Dirulaguntza garrantzitsua Salbador kaleko lanendako

Salbador kaleko lanen adjudikazioa urtea amaitu aurretik egin nahi du Udalak

Eusko Jaurlaritzak hiru proiektu finantzatuko ditu, guztira 383.182 euro emango ditu

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA  
Albiste onak jaso ditu Elgetako Udalak. Eusko Jaurlaritzak Elgetako hiru proiektu diruz laguntzeko konpromisoa hartu du. Guztira, Javier Madrazoren Sailak 383.182 euro emango ditu.

Artekalen egindako urbanizazio lanendako 103.446 euro emango ditu, Torrezahar urbanizatzeko proiektu idazteko 3.071,25 euro eta Salbador kaleko urbanizazio lanendako 276.663 euro, aurrekontuaren %75 hiru kasuetan.

Oxel Erostarbe alkatea pozik agertu da, azken diru-sail hori oso garrantzitsua baita Torrealdeko etxebizitzetara ura eramateko lanak lehenbailehen egiteko: "Laguntza handia lortu dugu eta lanak urtea amaitu aurretik adjudikatu nahi ditugu. Hilaren 19ko Hirigintza batzordean aztertuko dugu gaia".



SALBADOR KALEA Urbanizazio lanak urtea amaitu aurretik adjudikatu nahi ditu Udalak.

L.Z.

Hurrengo Hirigintza batzordean, beraz, lanok lehenbailehen hasteko eman beharreko pausoak zehaztuko dituzte. Baldintza agiriak atera behar dira eta aldizkari ofizialean kaleratu. Hilabete inguru beharko da horretarako. Jarraian, eraikitzaleak egindako proposamenak zabaldu eta aztertu behar dira. Hamar bat eguneko epea beharko du, berriz, horrek.

Azkenik, lanak adjudikatu beharko dituzte: "Udaletxeen gauden alderdi guziok eskutik joan beharko genuke proiektu hori babestu eta Salbador kalea behar den moduan egokituta lagatzeko", esan du Erostarbek.

## ARTEKALEKO LANAK

Artekalen egin diren lanak ordaintzeko ere eman du laguntza Eusko Jaurlaritzak. Lanok eginda

daude. Uruburuko etxebizitzak egiten diharduen Irualde Bat enpresak aurreratu zuen dirua. "Aurreko gobernuak hitzartuta zuenaren arabera lan horiengatik Udalak 132.000 euro ordaindu behar zituen otsailean", jakinarazi du Erostarbek. "Orain, kopuru hori 29.000 eurotara jaitsi da. Udalaren egoera ekonomikoa ona ez dela jakinda, gastu murriketa guztiek dira positiboak", esan du.

> IZENEMATEA ZABALIK  
**Umeen Gabonetako pilota txapelketa**

Zabalik dago hilaren 16ra arte Gabonetan egingo den umen-dako pilota txapelketan izena emateko epea. Egokik, Oskarbi Elkarteak eta Eskola Kirola batzordeak antolatu dute txapelketa. Partiduak abendu osoan zehar jokatuko dira. Interesatuek udaletxera jo behar dute izena emateko, Juan Ramon Irazabalengana.

> FUTBOLA  
**Ipintzan jokatuko du domekan Elgetak**

Elgetako futbol taldeak aurkari gogorra du asteburu honetan. Bergarako BTLS taldea sailkapeneko bigarren postuan dago eta Elgetak baino 11 puntu gehiago lortu ditu aurreko jardunaldiaren.

Norgehiagoka hilaren 11n, domekan, jokatuko dute, 17:30ean hasita. Ipintzako futbol zelaian da hitzordua.

> PILOTA TXAPELKETA  
**Inoiz baino zabalago dago aurten lehia**

Herriko 4 trediko pilota txapelketan ezusteko emaitza izan zen aurreko asteburuan. Biko-tefaboritoak, Alberto Telleriak eta Angel Ibarluzeak 22-18 galdu zuten partidua Koldo Goenaga eta Roberto Basauriren aurka. Asteburu honetan, gaur eta etzi jokatuko dira partiduak, 21:00etan eta 11:00etan hurrenez hurren.

Emilio Mandaluniz > Pintura erakusketa jarri du Espaloian

## "Gustura gelditu naiz erakusketarekin, herriko jende askok ikusi du-eta"

L.Z. > ELGETA

Elgetan jende gutxik zekien Emilio Mandalunizk margotu egiten zuela. Horregatik, bat baino gehiago zureta lurr gelditu da Espaloian ipini duen erakusketarekin. Durangoko Kurutziaga akademian dihardu ikasten.



Emilio Mandaluniz, margotzeko duen txokoan.

## Noiztik margotzen duzu?

Erretiroa hartu nuenean, due-la hiru urte eskas hasi nintzen. Aurretik marrazten nuen, eta kolo-rekin proba egitea pentsatu nuen. Gustatzen zait. Astean hirutan joaten naiz akademiara.

## Elgeta inguruko margolan asko dituzu erakusketan?

Sarritan joaten naiz ibilaldi-txoak egitera, eta argazki asko ateratzen ditut. Paisaiak ondo egitea oso zaila da. Orain, Urkiola margotu nahian nabil. Amaitzeke jarri dut koadroa erakusketan.

## Zelako esperientzia da herrian bertan erakusketa jartzear?

Hasieran urduri, baina orain gustura nago. Jendea harrituta gelditu da. Lehenengo aldia da margolanak erakusten ditudana. Jaso ditudan kritika ia guziak onak izan dira.

## Zer egiten duzu margolanekin?

Alabaren etxeen ditut pilatuta, momentuz. Hasi berria naiz oraindik. Hobetuz gero, oparitu egingo ditut, akaso.



L.Z.

## Ludoketa zerbitzua asteon zabalik

Astelehenean jarri zuen Udalak ludoteka zerbitzua martxan. Aurtengoan ere Enara Merino izango da bertako begiralea. 2-12 urte bitarteko umeak hartuko ditu asteleheneetik barikura bitartean, azarotik apirilera. Ikasturte honetarako 10 ume zeuden izena emanda eta 15 agertu ziren. Jolasak, eskulanak, antzerkia... Gauza asko egiten dituzte ludotekan. Zerbitzua 16:00etatik 19:00etara dago zabalik kultura etxeen.



SAGARDOZALEEN ELKARTEA Matxakadorea, prentsa eta zukua pasteurizatzeko makina erosi dituzte.

ARRITXU BARRUSO

SAGARDOZALEEN ELKARTEA &gt; MAKINA BERRIAK

# Sagardozaleen Elkarteekoek makina berriak erosi dituzte

Udalak eskainitako lokal batean jarri dituzte makinak, eta hasi dira dagoeneko zukua ateratzen

Etorkizunean lokal handiagoa lortzea da asmoa, sagardoaz gain beste produktu batzuk ekoizteko

**ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO**  
Aramaioko Sagardogileen Elkarteo kideak ilusioz beteta aurkitu ditugu lanean. Urtero moduan, hasi dira batutako sagarren zukua ateratzen. Aurten, baina, aurreko urteetan baino samurrago egiten dihardute lan hori, sagardoa ekoiz-

teko makina berriak ekarri dituzte-eta. Hiru makina erosi dituzte: *matxakadorea*, prentsa eta zukua pasteurizatzeko makina. "Lehen, egunetan egiten genuen lana; orain, ordutegi batzuetan egiten dugu eta neke askoz txikiagoarekin, gainera", azaldu du Juan

Antonio Aretxaga Sagardozaleen Elkarteo kideak. Sagarrei zukua aterata, baserritar bakoitzak bere baserrian egingo du hartzidura edo fermentazio prozesua. Oraindik ez dira sagardoa egiten hasi; orain arte ateratako zukua zuku pasteurizatuak egiteko erabili dute. Aste batzuk barru hasiko dira sagardoa kupeletan sartzen.

## DIRULAGUNTZAK

Makinak euren poltsikotik ordaindu behar izan dituzte. Eusko Jaurlaritzatik diru laguntzak emango dizkietela esan diete, baina kopuru ez dute zehaztu. Diputaziotik,

berriz, ezezkoa jaso dute. Dena dela, Aldunditik dirulaguntzak jasotzeko borrokan jarraituko dutela azaldu du Aretxagak.

## ASMO HANDIKO PROIEKTUA

Makina berriak, baina, asmo handiko proiektu baten hasiera betterik ez da. Egun, Udalak utzitako lokal batean dihardute lanean. Etorkizunean toki handiagoa lortu nahi dute eta makina gehiago erosi produktu gehiago ekoizteko. Gainera, museo moduko bat egitea litzateke asmoa, lokal berriaren ondoan barietate guztiak sagarrak landatuta.

JAIA &gt; GANTZAGAN ETA ZALGO AUZOAN

# Gantzaga eta Zalgo auzoetako jaiak

Gantzaga auzoan barikuan hasiko dituzte jaiak Izpide elkartean egingo dute kantu afariarekin

**ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO**  
Zapatu goizean meza nagusia egingo dute Gantzagan, Aretxabaleta-ko abesbatzak lagunduta. Arratsaldean mus txapelketa eta Marzel magoaren ikuskizuna egongo dira eta gauen dantzaldia. Domekan, Gantzagan 27. Txirrindulari Igera eta tute txapelketa egingo dituzte, besteari bestea.

## ZALGO AUZOKO JAIAK

Zalgo auzoan ere festa giroan jardungo dute aste bukaeran. Zapatu auzo alkate berriak kargua hartuko du eta lehenengo hitzaldia egingo du. Eguerdian auzo bazkaria egingo dute Galdotzena baserriko aterpean. Olatz eta Oihane trikitilari donostiarrek, gero, bazkalostea alaituko dute.



MARZEL MAGOA Zapatu Gantzagan erakustaldia egingo du.

JAI BATZORDEA

> DEBAGOIENEAN KANTARI  
**Aramaiko hiru talde Debagoienean Kantari saioan arituko dira**

GOITBren Debagoienean Kantari karaoke ikuskizunaren grabaketek aurrera jarraitzen dute. Zapatu eta domekan Arrasaten izango dira, Amaia Udal Antzokian. Zapatu Aramaiko hiru talde arituko dira kantuan. Aramaiko gaztetxoek Skalaria taldearen *Nere Herri*, Etzaketen Zergaitik Ez eta Itoizen *Marea Gora* kantuak abestuko dituzte.

Azaroaren 27an hasiko dira GOITBn grabatutako saioak emititzen; martitzen eta egunetan izango da hori. Bertran ikusi ahal izango dugu ibarreko gaztetxoek kanturako daukaten trebetasuna.

> KULTURA  
**'Bertxoko' bertso lehiaketa hasiko dute zapatu Aramaion**

Zapatu jokatuko da lehenengo kamporaketa Zabolako elkartean. Afaria egingo dute, lehenengo, eta bertso saioa gero. Bertan izango dira, besteari bestea, Iker Agirre eta Ander Arriolabengoa aramaioarrak. Gaia jarriko ditu, bestetik, Lierni Altuna aramaioarrak. Sariketa Arabako Bertsozale Elkarteak antolatzen du, baina Arabako bertsolariekin batera Euskal Herriko beste probintziako gazteek ere hartuko dute parte. Hiru kamporaketa egongo dira eta lehenengo bi sailkatuak pasatuko dira Gasteizen, abenduaren 1ean, jokatuko den finalera.

> TXIRRITOLA ELKARTEA  
**Txirritolak antolatuta Partxis lehiaketa izango da gaur, barikua**

Arratsaldeko sei etan hasiko da Santiñan partxis lehiaketa. Bi talde bereiziko dituzte: 6 eta 14 urte bitarteko gazteak eta 15 urtetik gorakoak. Sariei dagokienez, nagusien taldean 90 euro irabaziko ditu txapeldunak eta gaztxoen taldeko irabazoleak, berriz, 75 euro jasoko ditu.

> ZINEMA  
**'Maitagarri amandrea' filma botako dute domeka arratsaldean**

Herriko gaztetxoek *Maitagarri amandrea* filma ikusteko aukera izango dute domekan arratsaldeko bostetan kultura etxeen. Anabelek, filmeko protagonistak, amandre maitagarri bat gura du eta lortu ere lortuko du. Murray da bera eta abentura zoro eta barregarien elkartu dira biak.

OSPAKIZUNA > SAN MILIXAN EGUNA

## Pilotak eta 60 metroko soka San Milaxaneko azokan, domekan

Profesionalendako pilotak egiten dituen artisaua etorriko da Donibane Lohizunetik, eta Vianatik etorritako artisauek 60 metroko soka egingo dute kalean

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA  
Etzi, domeka, ospatuko dute San Milixan eguna Gatzagan. Artisauen lanaren inguruan antolatzen dute jaia, eta ikuskizuna eta azoka elkartuko dituzte aste bukaera guztian.

TXOTXONGILOAK ETA ZERAMIKA  
Gaur, egubakoitza, hasi eta domeka eguerdira bitartean txotxongilo erakusketa izango da Garro jauregiko lehen solairuan. Hondarribiako Menina tailer entzutesuko artisauen txotxongiloak eta panpinak izango dira ikusgai. Hona ordutegia: gaur, 17:00etan, inaugurazio ekitaldia; zapatuan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta domekan, 10:00etatik 14:00etara.

Bihar arratsaldean eta domeka goizean, gainera, zeramika tailerra jarriko dute San Miguel plazan dagoen lokal baten. Buztina lantzeko aukera izango dute ume zein helduek.

ARTISAUEN LANAK AZOKAN  
Artisau azoka izango da domeka protagonista. 10:00etan hasi eta 14:00ak bitartean zer ikusi eta zer



SORGINAK Taloak egingo dituzte Gatzagako emakumeek.

GATZ MUSEOA > ERAKUSTALDIA

## Gatzarekin egindako bonboiak eskainiko dituzte museoan etzi

Gatza zelan ateratzen zuten erakutsiko dute, eta Gesaltza Añanatik etorritakoek euren ekoizpenaren berri emango dute

emango dute. Gainera, Gesaltza Añanako (Araba) lagun taldea etorriko da museora, eta euren ekoizpenaren berri emango dute. Eta Madrilgo gatzaga baten gaineko argibideak ere jarriko dituzte bisitarien eskura.

### GATZEKO BONBOIAK

Gatz eta bonboiak ezkontzeko arazorik ez dagoela erakutsi zuten iazko San Milixanetan, eta aurten ere gatzarekin egindako bonboiak eskainiko dituzte. Oñatiako Klaxk elkarteko kideek osagaiak eman dizkie -eurek etortzerik ez dutelako: kakaoa, txokolatea... Eta gatzagarra astean ibili dira bai bonboiak egiten, bai gatza ekoizten. Hala, bonboi goxo-goxoak izango dituzte, domekan, das-tatu zein erosteko.

Eta umeak asper ez daitezten eskulantxoak egiteko aukera izango dute. Gatzez egindako koloretako plastilina emango diete eskura eta iruditxoak egingo dituzte.



MUSEOA Aitziber Gorosabel museoko arduraduna azalpenak ematen, iaz. M.A.

erosi ugari egongo da pilotaleku kuan. Bitxiak, otarreak, euskal zeramikazko ontiak, jostailuak, ehoziriak, tapizak, zetazko jantziak pilotak eta beste asko ekarriko dituzte.

Ander Ugarte artisaua Donibane Lohizunetik (Lapurdi) etorriko da pilotak zelan egiten dituen erakustera. Pilotari profesionalendako pilotak egiten dituen Punpa tailerreko kidea da Ugarte, eta hainbat eratako pilotak ekarrisko ditu.

Vianatik (Nafarroa) etorriko diren artisauak, ostera, 60 metroko soka lodia egingo dute. Eguinaldiak laguntzen badu kalean izango da ikuskizuna: pilotaleku sarreran hasi, Labidea denda eta KZgunea arteko tuneletik pasatu eta atzeko kalerairano.

### APARKALEKUA, GATZAGAINEN

Bisitariek aurten ezingo dute herrian aparkatu, zirkulazioa hobeto bideratzeko asmoz. Gatzagain eta Gure Ametsa jatetxeetako aparkalekuetan utzi beharko dituzte autoak. Eta autobusa ibiliko da joan-etorrian goiz guztian.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

## &gt; MENDIA

**Aloña Mendik Andia mendilerrora irteera egingo du hilaren 18an**

Nafarroa aldera egingo dute Aloña Mendikoek, Andia mendilerrora. Goñi herrian hasiko dute ibilbidea, Trinitate aldera egiteko. Tartean Malkasko tontorra egingo dute (1.237 metro) eta Lezauen amaituko dute ibilbidea. 08:00etarako egin dute hitzordua, Txaketua aurrealdean.

## &gt; PILOTA

**Gipuzkoako Txapelketako partiduak, gaur**

Bergarako (19:30), Aretxabaletako (20:00) eta Arrasateko (21:15) pilotalekuetan gaur iluntzean jokatuko dituzte Gipuzkoako Txapelketako norgehiagokak.

Bihar, berriz, infantil mailako ibarreko hainbat taldeko ordezkariek Bergaran jokatuko dute, 16:30ean.

## &gt; TXIRRINDULARITZA

**Irizarren lagunarteak bazkaria egingo du hilaren 17an**

Markel Irizar txirrindulari oñatiarraren lagunarteak bazkaria antolatu du azaroaren 17rako. Zott tabernan egingo dute bazkaria, eta beretara joan gura dutenek Oñati, Aker edo Izarraitz tabernan eman beharko dute izeina. Hilaren 12a da izena emateko azken eguna.

## &gt; FUTBOLA

**Erregionalean, Antzuolak etxearen eta Bergarak Azpeitian**

Erregionalean mailako bederatzigarren jardunaldia jokatuko dute Antzuolak eta Bergarak asteburuan.

Antzuolak Soraluze haruko du etxearen (zapatua, 16:00, Estala) eta Bergarak mutilek Azpeitira egingo dute, Lagun Onak taldeareen kontra lehizterera (zapatua, 15:30).

## &gt; MENDIA

**Pol-Pol mendi elkarteko batzarra egingo du hilaren 29an**

Bergarako Pol-Pol mendi elkarteko ezohiko batzarra egingo du azaroaren 29an. 19:30ean egingo dute batzar hori, mendi elkartearen egoitzan.

Batzar berezi horren helburua izango da zuzendaritzat talde berria aurkeztea; horretarako, baziak guztiak deitu dituzte batzarrera.

## ATLETISMOA &gt; BEHOBIA-DONOSTIA 07

# Inoizko proba jendetsuena eta herrikoiena

Aurtengo lasterketan ez da aparteko izarrik egongo, baina parte-hartze errekorra hautsi da

**14.600 lasterkarik parte hartuko dute lasterketan, iaz baino 2.300 lagun gehiagok**

## KABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Urtetik urtera geroago eta korrikalari gehiagok dute lekua Behobia-Donostia proban, eta domekan, berriro ere, orain arteko errekorra hautsiko da. 14.600 korrikalari izango dira Behobian, maratoi erdia egiteko gertu-ibilbidean desbideraketa txiki bat jarri dute, eta probak orain arte baino 90 metro gehiago izango ditu, 20,2 kilometro guztira-.

Lasterkari horien artean ia 6.000 korrikalari gipuzkoarrak dira, tartean debagoiendar asko. Eta, ibarreko ordezkarien kopuru zehatza ez badugu ere, eredu moduan esan behar da Arrasateko kirol denda batean 450 zenbakia banatu dituztela –eta leku gehiagotan banatu dituzte zenbaikiak–.

## EZ DAGO IZAR NABARMENIK

Aurtengo edizioan ez dira maila goreneko korrikalari asko egongo, baina argi dago zeintzuk diren faboritoak. Batetik, Chema Martinezek merituak egin ditu aukeratu zerrrendan egoteko, birritan igo da-eta podiumaren gorenara. Irteera puntuau izango dira,

baita ere, Kamel Ziani –Martinezek izango duen kontrario gogorrena–, Hossaim Kaanache, Marcel Zamora eta Martin Fiz –dagoeneko profesional mailatik erretiratuta dagoen arren, Gasteizko atleta ordubete eta bost minuturen bueltan ibiliko da–. Horiekin batera, ikusteko dago zer-nolako neurria ematen duten garai batean handi izan ziren Baratzelonako jokalari ohi Luis Enriquez eta txirrindulari ohi Neil Stephens, Iñigo Chaurreau, Iñaki Murua edo Abraham Olanok.

Emakumezkoetan, berriz, Sarah Kerubo kenyarra da faboritoetako bat. Kenyako 10.000 metroko lasterketa poltsikoratu zuen, eta Segoviako maratoi erdian ere azkarrenna izan zen (01:13:00). Hala, faboritoarekin batera, lasterketan parte hartuko duen emakumeen kopuruak nabarmen gora egin badu ere –%16 emakumezkoak izango dira–, egia da Gipuzkoako korrikalari onenak ez direla proban izango. Besteak beste, Arrasateko kirolegian lan egiten duen Iratxe Aranbururen hutsunea sumatuko dugu, Zarauzko min



KORRIKALARI UHOLDEA Iazko erretiratuan, ibilbidea bete eta gero hainbat korrikalari helmugatzen dira.

hartuta dabil-eta: "Oso amorrata nabil, gainera, baina ez dago besterik egiterik. Tendinitisa dut orpazurdan (Akilesen tendoia) eta erre recuperatuta egongo nintzela uste banuen ere, beherakada izan nuen, eta hemen nabil oraindik horrekin bueltaka".

## RITXAR FERNANDEZ, INDARTSU

Aste barruan gainontzeko komunikabideek Ritxar Fernandez aipatu ez duten arren –Fernandezek 01:01:40ko marka dauka, baina ez da gauza bera Donostian edo Oñatin bizitza–, domekako probari begira Oñatikoak indartsu ikusten du bere burua: "Ferre-

tinarekin izan nituen arazoak gainditu ditut, eta iaz baino bi aste gutxiago entrenatu banaiz ere, indartsu nago". Aurreko urteekin alderatuta, Oñatikoak beste prestakuntza bat darama, Donostiako maratoiarri begira: "Abuztuan AEBetan izan nintzen, Oregongo lasterketa batean parte hartzen. Eta, horrek zelanbait baldintzatu egin ditu entrenamendua, handik itzultzeraoan atseden hartu nuen-eta. Dena dela, merezi izan zuen hara joatea, kirol mailan sekulako esperientzia izan da-eta".

Aurreko edizioetan moduan, aurten ere Ayuda en Accion gobernuz kanpoko erakundeko

## Aitor Elkorok gertu du erretiroa, baina ez du pilota uzteko asmorik

Aitor Elkorok (Elgeta, 1967) laster utziko dio pilotari profesional izateari, dagoeneko ez du-eta "aurrera egiteko motibaziorik". Berez, otsailera arte du Asperekin kontratua, baina lehenago utziko du, datozen asteotan jokatuko ditu azken norgehiagokak.

Elgetakoak 1987an egin zuen debutua, 1997an buruz buruko txapelketako finalera iritsi zen (22-18 irabazi zion Arretxek) eta birritan eskuratu zuen binakako txapela (1996 eta 1999). Profesional izan barik ere, pilotan jarraitu gura du Elkorok.



ARTXIBOA



ra iristen; domekan ere milaka lagun batuko dira Bulebarrean.

JOSETXO ARANTZABAL

ordezkarriak izango dira helmugan, korrikalariek zapatiletan eramango dituzten txipak jasotzen. Txip bakotzeke erakunde-

ak 0,80 euro jasotzen ditu; "dirutta", euren esanetan. Hala, domekan batuko duten dirua Peruko San Juan de Luriganchon ater-

petxe bat egiteko izango da; aterpetxe horretan, tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeak hartuko dituzte.

X.U./T.M. > ARRASATE  
Iker Sarabiak ondo ezagutzen du Behobia-Donostia lasterketa, proba horretarako 10-15 korrikalari prestatzairekin batera, berak ere hainbat urtetan hartu duelako parte. Debagoiendarren artean, iaz Sarabiak egin zuen seigarren denbora onena (01:13:38).

Jendeak ondo prestatzen du Behobia-Donostia maratoi erdia?

Denetik dago. Batzuk poliki-poliki hasten dira entrenatzen, eta horrela egin behar da, erresistentzia lanetzeari garrantzia emanez. Beste batzuk, berriz, irailean hasten dira korrikan. Eta, hori ez da komenigariena.

Eta, gehienak ze helbururekin joaten dira Behobiara?

Hogeitako kilometroko proba izanda, esango nuke gehienak lasterketa amaitzera joaten direla, eta ez aparteko markaren bat egitera.

Lasterketara begira dagoeneko ez dago gehiago entrenatzerik. Zer egin behar da egun hauetan?

Azkeneko egun hauek deskantsua hartzeko dira, garrantzitsua da hori, eta baita oso ondo hidratatzea ere. Hala ere, korrikalariei esango nieke bihar, zapatua, korrika apur bat egi-



TXOMIN MADINA

teko; oso gutxi, 20 minutu inguru poliki-poliki, baina irten daitezela kalera apur batean.

Jaten dugunak ere garrantzia izango du gero gorputzak ondo erantzuteko.

Bai, azken egun hauetan karbohidratoak hartzea komeni da: makarroiak, arroza... Eta horrekin batera, lehen esan duguna, ondo hidratatzea.

Eta hurrengo eguneko giharretako minari zelan egin aurre?

Lasterketa ondorengoko egunetan gorputzak atseden hartzea eskatzen du, garrantzitsua da hori. Eta, egun horietan ere ondo hidratatzan jarraitu behar dugu.

## Kirola, bizi kalitatearen oinarri

Bizi kalitate maila handia izateko kirola egitea ezinbestekoa da, modu egokian eta helburu garbiekin

Kirola egitearen garrantziaz eta onurez geroago eta ohartuago dago gizartea, oro har, baina kirola egiteko moduek eta helburuek ere berebiziko garrantzia dute.

Goi mailako kirola nagusi den gizarte honetan, zaila izaten da kirol horren eraginatik eta balioetatik askatzea; esfortzua, errendimendua, emaitzak dira garrantzitsuenak. Horrekin lotuta, kirol proba jakinetarako prestaketa sakonak egin eta proba bukatu eta gero kirol egiteari lagatzen diotenak ere hainbat dira. Iku-si besterik ez dago etzi, domeka, jokatuko den Behobia-Donostia maratoi erdirako zenbat jende diharduen prestaketak egiten. Baino proba egin eta gero zenbatek jarraitzen dute entrenatzen?

Hori horrela, kirola egiteak duen adina garrantzia dute kirola egiteko moduek eta baita helburuek ere. Kirola eta heziketa, heziketa eta kirola, bi jarduera horien arteko oreka eta osagarritasuna aurkitzea oso garrantzitsua da bizi kalitaterako eta ongizate psikologikorako.



AEROBIKA Ibarreko udalek kirol ekintza ugari jartzen dute erabiltzaileen eskura.

### BIZI KALITATEA

Bizi kalitate kontzeptua zer den zehaztea ez da lan batere erraza, subjektiboa delako. Hau da, norberaren pertzepzioaren eta interpretazioaren baitan dago. Gure behar psiko-fisiologikoak zenbaieraino asetzan ditugun konturaz garen neurrian balioetsiko dugu gure bizi kalitate maila.

Besteak beste, honako ezaurri positibo hauek balioetsi izan dira: osasuna, aisialdia, askatasuna, ondasun ekonomikoak, erosotasuna, ongizatea, ziurtasuna, familia eta adiskide-ekiko harremanak, onarpen soziala... Ariketa fisikoaren eta kirolaren bitartez, atal horiek guztia hobe ditzakegu.

Hori horrela, bizi kalitate ona lortzeko ezinbestekoa dugu bizimodu osasuntsua egitea. Heduaroan bizi estilo aktiboak bermatzeko, ordea, ohiturak haurtzaroan landu behar ditugu kirol kultura egokiaren bidez.

### BIZI ESTILO OSASUNTSUA

Bizi kalitateko aldagai ahalik eta gehienak hobetu nahi baldin baditugu, bizi estilo osasuntsua egin beharko ditugu. Hori ez da kirol kultura egokiarekin bakanrik lortzen; honakoak ere zaintza komeni da: elikadura ohiturak; aisiaidiko jarduerak; tabako, edari alkoholdun, droga eta botiken kontsumo urria; garbitasuna; lotarako orduak; jarduera sexuala; prebentziozko osasun azterketak; estresa; ikasketa ohiturak...

Bizi kalitatearekin batera, ongizate psikologikoa ere oso garrantzitsua da. Ongizate psikologikoak bizitzarekin dugun satisfakzio eta poztasun maila adierazten du. Hain justu ere, ariketa fisikoari esker, pertzepzio hori hobetu egiten da, eta bizi-tzaz eta munduaz ikuspegia bai-korragoa eskuratu.

KIROL  
ZERBITZUEN  
BERRIAK  
JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

FUTBOLA &gt; PREFERENTE

# Aretxabaletak Touring hartuko du, azkena

Asteburuan UDAk eta Aloña Mendik jokatuko dute etxeen; lehenak azken postuan dagoen Touring hartuko du eta Aloñak bi puntura daukan Zestoa izango du aurrean

X.U. &gt; BERGARA

Aurrealdean dabiltsan taldeek behar baino distantzia handia goa hartu aurretik esnatu behar dute ibarreko taldeek, Aloñak eta Mondrak batez ere -15 eta 18 gol jaso dituzte-. Egia esateko, gure ordezkarien artean ez dago alde handirik, eta bispahiru puntuoko aldeak ez du erakusten nor dabilen ondo eta nor ez.

UDAk ez du gura bezain ondo jokatzen, eta egin dituen gol kopuru bera jaso du (11). Hala ere, gol horiei errentagarritasuna aterata seigarren dira sailkapenean, lau partidu irabazi eta hiru berdin-duta. Domekan, Igor Arenazaren mutilek partidu bakarra irabazi duen Touring hartuko dute (16:30).

**ZESTOA MENDEAN HARTU**

Hori da oñatiaren helburua: bi puntura dagoen Zestoari irabazi, sailkapenean talde horri aurrehartu eta etxeko zaleei poztasun-



IBAN ESPINOSA Trintxerpeko jokalari bat falta egiten ari zaiola, protestan. J.A.

na ematea. Asmo horrekin zelaratu dira Josu Zubiaaren mutilik domekan (15:45). Hamar puntu dituen taldea izateko, izaera golegilea du Oñatiako taldeak (16 gol), baina defentsako lana zaindu behar dute gehiago, preferentean talde bakarrak jaso du-eta eurak baino gol gehiago (18 gol), azkeneko postuan dagoen Tourin-gek, hain zuzen (19).

**MONDRAK ANDOAINEN**

Mondraren eta domekako kontrario Euskaldunaren artean ere ez dago alde handirik: bi puntu aurretik da Arrasateko taldea. Joan den astean UDAREN aurrean mamu bat uxatu zuten arrasatearrek: ondo hasi zuten partidua. Baina orduan, azken minutuan eterri zen kolpea, Hernaniren kontra jaso zuten berbera.



ALOÑA MENDIKO KARATE TALDEA

## Gipuzkoako Karate Txapelketa egingo dute bihar Zubikoan, 16:30ean

Kadete eta gazte mailetako Gipuzkoako Karate Txapelketa egingo dute bihar arratsaldean Oñatiako Zubikoa kirolegian (16:30). Hala, gizonezko eta emakumezkoetan, karatekek kata eta kumite modalitateetan jardun beharko dute. Lehia horien ondoren, kluben arteko taldeko txapelketa jokatuko dute karateka gipuzkoarrek.

Debagoinari dagokionez, antolatziale lanetan jardutearekin batera Oñatiako karatekak txapelketan lehiatuko dira. Haiek batera, Arrasateko, Aretxabaletako eta Bergarakoek ere jardungo dute. Erretratuan, bi karateka aurrez aurre, borroka bateko mugimendua irudikatzen.

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**  
Real-Celta de Vigo  
Domeka. 17:00. Añota.

**Preferente maila**  
Aloña Mendi-Zestoa  
Domeka. 15:45. Azkogain.  
Euskalduna-Mondra  
Domeka. 17:00. Allurralde.  
Aretxabaleta-Touring  
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Lehen erregionala**  
Lagun Onak-Bergara  
Zapatura. 15:30. Garmendi.  
Antzuola-Soraluze  
Zapatura. 16:00. Estala.

**Bigarren erregionala**  
Mondra-Aretxabaleta  
Zapatura. 14:00. Mojategi.  
BTLS-Elgeta  
Domeka. 17:30. Ipintza.

**Ohorezko mailako gazteak**  
Mondra-Urola  
Zapatura. 18:00. Mojategi.  
Burumendi-Aretxabaleta  
Zapatura. 15:30. San Miguel.  
Bergara-Orioko  
Zapatura. 18:00. Ipintza.  
Anaitasuna-Aloña Mendi  
Zapatura. 15:45. Txerloia.

**Lehen mailako gazteak**  
Ilintxa-Aretxabaleta B Arizm.  
Domeka. 16:15. Bikuña.  
Soraluze-Bergara  
Zapatura. 11:00. Ezozia.

**Ohorezko mailako kadeteak**  
Aloña Mendi-Eibar  
Zapatura. 11:30. Ibarra.  
Antiguoko-Bergara  
Domeka. 12:00. Berio.

**Lehen mailako kadeteak**  
Bergara-Arizmendi  
Domeka. 11:30. Ipintza.  
Aretxabaleta-Eibartarrak  
Zapatura. 16:00. Ibarra.  
Arrasate-Ilintxa  
Zapatura. 12:00. Mojategi.

**Kadete Txiki**  
Internacional-Arrasate  
Domeka. 15:30. Matigoxotegi.

**Ohorezko mailako infantilak**  
Zumaia-Arrasate  
Zapatura. 18:00. Aita Mari.  
Ordizia-Bergara  
Zapatura. 11:00. Altamira.  
Anaitasuna-Aretxab. Arizm.  
Zapatura. 15:30. Txerloia.

**Lehen mailako infantilak**  
Aloña Mendi-Urkি  
Domeka. 10:30. Ibarra.  
Arrasate-Urola  
Zapatura. 10:00. Mojategi.  
Aretx. Arizmendi-B. Beasain  
Domeka. 11:30. Ibarra.

**Emakumezkoen Liga**  
Arizmendi B-Anaitasuna  
Zapatura. 12:30. Almen.  
Bergara-Elgoibar  
Zapatura. 16:00. Ipintza.  
Mondra-Arizmendi  
Zapatura. 16:30. Mojategi.

**Gipuzkoako ligako gazte maila (emakumezkoak)**  
Mondragon Unib.-Ordizia  
Zapatura. 16:00. Iturripe.

**Gipuzkoako ligako kadete maila, gizonezkoak**  
Konde Pand.-MU C  
Zapatura. 12:00. Musakola.

**MU B-Oiarso**  
Domeka. 11:00. Musakola.

**Aloña Mendi-La Salle**

**KARATEA**

**Gipuzkoako Txapelketa**  
Gazte eta kadeteak  
Zapatura. 16:30. Zubikoa.

**Kadete maila, emakumezkoak**  
Usurbil-Verkol Aloña Mendi  
Zapatura. 16:00. Oiardo.

**Ereintza-Bergara**  
Zapatura. 17:30. Erreteria.

**Verkol Aloña-Leizaran Etx.**  
Domeka. 10:00. Zubikoa.

**Bergara-Pulpo**  
Domeka. 10:00. Labegaraiet.

**Liderra mendean hartuta, zapatuan Artamono Eskoriatzan**

Joan den asteburuan Eskoriatzak ezustea eman zuen EHU taldearen kantxan (0-3). Biharkom kontrarioa azken postuan dago.



# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



## > QUIMI PORTET

Bihar, zapatua, Oñatin kontzertua egingo du, 22:00etan > 45



## >'APPLEBERRI.COM'


Parte-hartzea bultatzeko berritu dute euskarazko bloga > 51



## > IBAN

### PEREZ

Historia ikasten ari den oñatiarrak kirola egitea du gustuko; egun, triatloian dabil. Blog pertsonalean jaso dezakegu haren kontuen berri > 50



KULTUR ZIRKUITUA Debagoienean azaroan izango diren ikuskizunak.

AZALA: ALEX AZKARATE

# Ibarreko I. Kultur Zirkuitua

Topaguneak eta Debagoieneko euskara elkarleek elkarlanean antolatu dute

Hileko egubakoitzetan eta dohainik izango dira prestatutako ekitaldi guztiak

AITZIBER ARANBURUZABALA > BERGARA Topaguneak, Euskara Elkarteen Federazioak eta AED, Jardun, Laixan eta Loramendi euskara elkarleek elkarlanean antolatu dute Debagoieneko I. Kultur Zirkuitua.

Ekimen horren barruan, hainbat ikuskizun antolatu dituzte azaroko egubakoitzetarako ibarreko hainbat herritan. Ekitaldi guztiak dohainik izango dira. Debagoieneko Kultur Zirkuituak aurrez antolatu izan duten Kul-

tur Errota ekimenean du jatorria. Euskara Elkarteen eta Topagunearen helburu nagusia euskararen erabilera bultatztea da. Era berean, kultura eskaintza aberastu eta kultura kontsumitzeko ohitura sortzea da beste asmoetako bat. Helburu horiek lortzeko tresna da, besteak beste, Kultur Errota.

Ekimen horrekin, bada, kultura aukerak herrietara hurbiltszea lortzen da; 2007. urtean 200 emanaldi antolatu dituzte zirkuitu horren barruan. > 44

## Debagoieneko I. Kultur Zirkuitua

(43. orrialdetik dator)

Iaz bide berria zabaldu zuen Topaguneak, eskualde zirkuituak antolatuz. Ekimen berriarekin, hurbil dauden elkarteen kultura programazioa koordinatu eta eskaizta bateratua bultzatu nahi du federazioak.

Formatu txikiko ekitaldiak dira eskualdeko Kultur Zirkuitua ekimenak batzen dituenak; antolatzileen esanetan, kalitate handikoak guztiak.

Lau dira gure eskualdean antolatutako hitzorduak: Aretxabaletan, Bergaran, Oñatin eta Arrasaten. Guztiak, azaroko egubakoitzetan, gaur hasita.

### 'NAIROBITARRA'

Josu Iztueta tolosarraren bidaien kontakizunekin amesteko bidea izango da gaur, egubakoitzta, 19:00etan, Aretxabaletako udaltxe zaharrean.

Iztueta eta haren lagunek egindako bidaia ditu oinarri bidaia-diaporamak. 1980an abiatu ziren, Tolosatik Kenyako Nairobi hiriburura autobus zaharbatean. 1982an, berriz, mudantza kamio batean joan ziren Afrika iparraldera eta Europara; itsasontziz Kanadairaino heldu ziren gero. Egindako bidaia, baina, ez dira hor amaitzen, Alaska eta Ushuaia, Ozeano Barea eta Atlantikorainoko bideak ere ezagutu dituzte-eta.

### 'PIANO BAT BERTSOTAN'

Ainhoa Ansa eta Jagoba Astiazaran bikoteak bertsolaritzan bezala musikarekin ere improvisa daitekeela frogatuko du Bergarako Pol-Pol tabernan azaroaren 16an, 22:30ean.

Publikoak aktiboki parte hartzen du ikuskizunean: batetik, gai-jartzaile eta, bestetik, kantari. Ikuskizuna ikustera doanak entzun nahi duen kantua aukeratu ahal izango du; musikariekin errepertorioa osatzeko, eskarien zozketa egingo dute gero. Era berean, publikoak ere kantatzeko aukera izango du, aurrean izango duen pantailan kantuen hitzak irakurrita.

### JOSEBA IRAZOKI

Kide zen Onddo taldearen ildotik jarraituz, pop estiloko abestiz egindako proposamena egingo du Joseba Irazokik, Berako musikariak, Oñatiko gaztelekuaren, azaroaren 23an, 22:30ean.

Kantu intimo eta lasaiak era akustikoan eskainiko ditu, Mikel Artieda (Tapia eta Leturia, Ruper Ordorika...) baxu-jolearen laguntzarekin. Hitzetan, berriz, Mikel Taberna idazlearen lanak erabiltzen ditu, baita Beñardo Goietxe (Pettirenen letra egilea izandako), Xabier Silbeira eta Daniel Irazokirenak ere.

### IGOR DE QUADRA

Irudi, objektu eta mimoan oinarritutako antzerkia eskainiko du Igor de Quadra aktoreak Arrasateko Kulturan, azaroaren 30ean.



AURKEZPENA AED eta Jardun euskara elkartetako kideak aurkezpenean.

MIREN ARREGI

## Debagoieneko Kultur Zirkuitua

ELKARTEA	KULTURGILEA	IKUSKIZUNA	EGUNA	ORDUA	TOKIA
Loramendi, Aretxabaleta	Josu Iztueta	'Nairobitarra'	Azaroak 9	19:00	Udaletxe Zaharra
Jardun, Bergara	A. Ansa eta J. Astiazaran	'Piano bat bertsotan'	Azaroak 16	22:30	Pol-Pol taberna
Laixan, Oñati	Joseba Irazoki	Kontzertua	Azaroak 23	22:30	Gazteleku
AED, Arrasate	Igor de Quadra	Methology	Azaroak 30	22:30	Kulturate

ITURRIA: TOPAGUNEA, EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA

Antzezlanean, aktore baten bidaia surrealista eta absurdoa azaltzen du, *'Nor naiz ni?* galdera korapilatsua, errealtitate eta ame-

tsaren tartean, umorez eta jolasen azalduz. Eskarmentu handia du De Quadrak, atzerrian bereziki, besteak beste: Londresko Co.

Theatre de L'Ange Fou konpainian lan egindakoa da. 2004an, berriz, Pinokio Prize saria irabazi zuen Belgikan.

## PROPAGANDA EZ!

Bazenekien postontzietako publizitateak urtero 250.000 kilotik gora paper hondakin sortzen dituela Debagoienean? Eta hauetatik 200.000 kilo inguru zabor poltsara botatzen direla?

Zure postontzian propagandarik jaso nahi ez baduzu bi aukera proposatzen dizkizugu:

- Bizilagunekin adostu eta atarian propagandaren aurkako eranskailua jarri.
- Zure postontzian propagandaren aurkako eranskailu txikia jarri.

Eranskailuak hurrengo puntuetaan eskuratu ditzakezu:

- Debagoieneko Udaletxe guztieta.
- Debagoieneko Mankomunitateak Arrasaten dituen bulegoetan: Nafarroa Etorbidea 23 (CIE) eta Arrasate Pasealekua 5 behea.
- Arrasateko Garbigunean: Uribarri Etorbidea, 47.
- Bergarako Garbigunean: Angiozarrerako bidea.
- Oñatiko Garbigunean: Garagaltza Auzoa.

Nahi izan ezkerro telefonoz (943 79 33 99) eta emailez ere eskatu daitezke ([ingurumena@debagoiena.net](mailto:ingurumena@debagoiena.net)).

Eta gogoratu, zaborrik onena, sortzen ez dena!



Gipuzkoako Foru Aldundia



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

KONTZERTUA > QUIMI PORTET OÑATIKO GAZTELEKUAN

# Quimi Portetek azken lana aurkeztuko du bihar Oñatin

Oñatiko gaztelekuau izango da Quimi Portet bere bakarkako ibilbideko azken diskoa aurkezten; *Matem els dimarts i els divendres* izena du lanak. Ikuskizuna, ziurtatuta

MIREN ARREGI > OÑATI

Quimi Portet musikagile ezaguena zuzenean ikusi eta entzuteko aukera egongo da bihar, zapatua, Oñatiko gaztelekuau gaueko hamarretan. Hain zuen ere, 21:30ean zabalduko dituzte gaztelekuo ateak.

Quimi Portet Kataluniako Vic herrian jaio zen, 1957an. Betidanki musikarekiko zaletasunak 1976an eman zituen lehen frumentuak, Kilimanjaros taldearen sorreran parte hartu zuen-eta. Ordutik hona beste hainbat proiektutan aritu izan da Portet;



QUIMI PORTET bihar gauean taularatuko da Oñatiko gaztelekuau.

GOIENKARIA

besteak beste, 1979an The Dumpers taldea sortu zuen Rodney Reay abeslariarekin, Josep Simon eta Quim Solerrekin batera. Rock gogorra egiten zuen Kataluniako talde indartsua zen The Dumpers. 1980an Kul de Man-

dril taldea sortu zuen Quimi Portetek, Lluis Marin eta Quim Vilaplanaarekin batera. Hirukoteak hainbat kontzertu egin zituen 80. eta 81. urteetan. Baina musikaz gain, beste hainbat alorretan ere lan egin behar izan du Portetek;

izan ere, bizitzan zehar denetik egin behar izan duten horietako da; soldatzale lanetan aritu zen, patatak biltzen ere bai, *Manos arriba* izeneko irrati saioa zuendu zuen eta furgoneta baten laguntzarekin toailak banatzen ibiltzea zer den ere badaki.

1981ean, Manolo Gartziak eta Quimi Portetek elkar ezagutu zuten. Hala, gitarrista gisa hasi zen Portet Los Rapidos taldean. 1985ean, Quimi Portet ezagun egin zuen El Ultimo de la Fila sortu zuten eta 1996ra arte iraun zuen taldeak bizirik. Garai hartan hasi zuen Portetek bakarkako ibilbidea, *Personers Stranyers* diskorekin. Ordutik gaur arte hainbat disko argitaratu ditu eta hainbat sari irabazi, gainera; tartean, *Cançoner Electromagnetic* diskorekin irabazitako. Aurtengo otsailean kaleratu du azken lana (*Matem els dimarts i els divendres*), eta hura aurkezteria etorriko da Portet Oñatiko gaztelekuau. Umorea eta ikuskizuna ziurtatuta, beraz, bihar Oñatiko gaztelekuau.

ANTZERKIA

## Elliot aktorearen antzezlana Elgetan

'Rock comedy show' antzeztuko du Elliot aktore suitzarrak gaur Espaloian

M.A > ELGETA

Rock comedy show antzezlana ekarriko du Elliot aktore suitzarrak gaur Elgetako Espaloira. Yllana ekoizle etxearen koprodukzio bat da Elliotek antzeztuko duena. Rock show comedy mimoan oinarritzen den antzezlana da eta bertan hainbat pertsonaiari ematen die bizitza Elliot aktoreak. Mimoan oinarritutakoa bai, baina ez da soinurik faltako gaur Espaloian; izan ere, esketx bakoitzak soinua izango du lagun.

Elliotek Euskal herrian egingo duen emanaldi bakarra izango da gaur gauean Espaloian ikusi ahal izango duzuena. 22:00etan hasiko da ikuskizuna eta sarrerek 12 eta 10 euro balioko dute.



Arrasateko hogeita hamahiru taldek eta Aramaioko hiruk hartuko dute parte asteburuan Arrasateko Kantari ikuskizunean

MIREN ARREGI > ARRASATE  
Aurreko asteotan Debagoieneko beste herri batzuetan egin den moduan, asteburu honetan Arrasaten egingo dute Debagoienean Kantari karaoke ikuskizuna. Amaia antzokia abestoki eta dantzatoki bihurtuko da bai zapatuan eta baita domekan ere, bertan era-kutsiko baitute Arrasateko eta Aramaioko ume eta gaztetxoek abesten eta dantzatzen duten abi-lezia. Hiru izan ezik, talde guztiak Arrasatekoak dira, eta aipa-

tutako hiru horiek, berriz, Aramaiokoak. Guztiak ere Arrasateko Amaia antzokian arituko dira.

36 taldetan banatuta, 8 eta 12 urte bitarteko 150 umek eta gaztetxok hartuko dute parte asteburuan Kantari ikuskizunean. Zapatauan, 16:30ean hasi eta 20:00ak bitartean 20 talde taularatuko dira; tartean, Aramaioko hiru taldeak. Domekan 16 talde-ri egokituko zaie txanda, eta haien ere 16:30etik 20:00ak bitartean egingo dute erakustaldia.

Goiena Telebistak, Arrasateko emanaldiekin, guztira zazpi saio ekoiztuko ditu: zapatauan lau eta domekan beste hirurak.

Arrasateko Amaia antzokira bertaratzen direnentzungeno dituzten kantuen artean honako hauek daude: Skalarriak taldearen *Nere herri*, Oskorriren *Katuen testamentue*, Itoizen *Lau teilatu*, Alaitz eta Maiderren *Amets bat*, Latzen taldearen *Laztana*, Herztzainak taldearen *Aitormenta* eta Zaramaren *Iñaki*.

EGITARAUA

> NON

Amaia antzokian.

> NOIZ

Azaroaren 10ean eta 11n.

> ORDUA

Arratsaldean, 16:30etik 20:00etara

> TALDEAK

Arrasateko 33 talde eta Aramaioko hiru arituko dira asteburu honetan Arrasateko Amaia antzokian

**IRAGARKI SAILKATUAK**

**BERGARA**

- Zubiaurre 67 m<sup>2</sup>. Berrieta.
- Simon Arrieta 30 m<sup>2</sup>. Eguizkista.
- Martoko 92 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Osintxu 80 m<sup>2</sup>. Berrieta.
- Ibargarai, 40 m<sup>2</sup>. Berrieta.
- Bidekarutxeta 60 m<sup>2</sup>. Berrieta.
- Zubia 75 m<sup>2</sup>. Txokarekin.
- Ibarburu 84 m<sup>2</sup>. Terrazarekin.
- Zubia 60 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Juan. Bifamiliala.
- Zubiaurre 76 m<sup>2</sup>. Berrieta.
- Zabalotegi 70 m<sup>2</sup>. Prezio oso ona.

**ANTZUOLA:**

- Buztintzuri 76 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Alherra 123 m<sup>2</sup>. Duplex.

**ELGETA:**

- San Roke 90 m<sup>2</sup>. Berrieta.
- Salbador 90 m<sup>2</sup>. Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

**DEBA GARAIA**  
INMOBILIARIA  
Teleforo Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**

- Artekale, 82 m<sup>2</sup>, ondo
- San Pedro, 72 m<sup>2</sup>, ondo
- Zabalotegi, 80 m<sup>2</sup>, ondo
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo
- Artekale, 70 m<sup>2</sup>, oso ondo
- Bolu, 103 m<sup>2</sup>, oso eguzkitusua
- Ibarra, 130 m<sup>2</sup>, aukera ona
- Zubia 70 m<sup>2</sup>, ondo
- Matxiategi, 65 m<sup>2</sup>, berrieko
- Aranerreka, 87 m<sup>2</sup>, ondo
- Bidekarutxeta, duplexa, berrieta
- San Anton Abad, 70 m<sup>2</sup>, oso ondo
- Masterreko etxebizitzak, 3 logela eta duplexak.

**SORALUZE**

- Baltegieta, 83 m<sup>2</sup>, berria

**ANTZUOLA**

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguiz auzoa, 85 m<sup>2</sup>, erdi berrieta.

**ELGETA**

- San Roke, 75 m<sup>2</sup>, ia berria.

**1/ ETXEBIZITZAK****101. SALDU**

**Antzuola.** Baserrria salgai 5 hektarea lurrekin. Solairu bakoitzeko 250 m<sup>2</sup> (2 solairu). Ura eta elektrizitatearekin. Irinmoi auzoan. Paisai zoragarria eta erre-pide ona. 270.455 euro (prezioa adostu daiteke). Deitu ezazue telefono honetara: 943 76 62 98 edo 656 73 25 99.

**Antzuola.** Etxebizitza salgai Herríko Plazan. 90 metro koadro; 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. Berogailuarekin. Kanpoaldera begira. 4 balkoi. Bizihera sartzeko moduan. Deitu ezazue telefono honetara: 943 76 65 03 edo 943 78 03 69.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai, Otarola 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria. 3 logela, 2 komun, bizihera sartzeko moduan. Deitu ezazue telefono honetara: 675 71 37 27.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai, erdialdean. Guztiz berritua eta oso egoera onean. 68 m<sup>2</sup>; bi logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Igogailuarekin. Deitu ezazue telefono honetara: 609 65 73 86.

**Arrasate.** Zarugalden. 52 m<sup>2</sup>, guztiz berritua. 24.600 euro negoziagarri. Deitu ezazue telefono honetara: 943 79 34 59.

**Bergara.** Elorregin 90 metro koadroko etxea, guztiz berriztatua. 100 metro koadroko gamburgarauka. Duplex bihurtuko aukera. 206.000 euro, negoziagarriak. Deitu ezazue telefono honetara: 666 70 59 90.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Guztiz berritua. Berogailua eta garbana. Deitu ezazue telefono honetara: 619 41 39 72.

**Bergara.** Frontoi inguruan 93 m<sup>2</sup>-ko etxea salgai. La berria. Sukaldea, komunak eta hiru horma-armaria guztiz jantzia.

**BERGARAKO UDALA**

**Bergarako Udala Euskara Departamenturako aldi baterako itzultzalea kontratatu eta lan-poltsa osatzera doa lehiaketa-oposizio bidez.**

**Izangaien baldintzak:**

- Diplomatura tituluduna.
- 4. hizkuntza eskakizuna izatea.

**Instantziak aurkezteko epeak:**

- 2007ko azaroaren 20a arte.

Oinarriak udaletxeko idazkaritzako bulegoetan, eta [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean.

Bergara, 2007ko urriak 31



ALKATEA

**IRAGARKI SAILKATUAK**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrak iragarri ditugu.

**943 25 05 01 sailkatuak@goiiena.com**

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITU: GAINERAKO 18 EURO (+BEZ-A) ORDANDIU BEHARKO DIRA MODULUKO.

PREZIO BEREZIA: EGUBAKOTZETAKO ETA ASTELEHENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERRO, 25 EURO (+BEZA).

GOIENKARIK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitekeen operazioen erantzukizunik.

**BERGARA**

**Taberna errentan ematen da.**  
**943 76 54 75**

Oso argitsua. Bizihera sartzeko prest. Garaje atarian berantaukeren. Deitu ezazue telefono honetara: 655 74 57 67.

**Bergara.** Ganbarekin duplexa egindako etxebizitza berrixta salgai. Berogailuarekin eta guztiz jantzia. 50 m<sup>2</sup>, 186.000 euro. Negoziatzeko prest. Deitu ezazue telefono honetara: 655 72 16.

**Bergara.** Ibarra kalean etxebizitza salgai, berrixta eta bizi-tzeko gertu. Berogailua. Jantzia. Bikote eta pertsona bakanrendako oso egoika. 50 m<sup>2</sup>, 186.000 euro. Deitu ezazue telefono honetara: 655 71 04 55.

**Bergara.** San Lorentzon etxebizitza salgai. Guztiz jantzia. 669 53 97 03.

**Bergara.** Simon Arrieta plazan 97 metro karratuko etxea. Bi logela. Trasteleku eta igogailua. Deitu ezazue telefono honetara: 646 45 64 13.

**Benidorm.** Etxebizitza ematen da errentan Benidormen, hon-dartzatik gertu. Deitu ezazue telefono honetara: 941 21 6380 edo 656 18 85 02.

**103. ERRENTAN EMAN**

**Arrasate.** Etxebizitza ematen dut errentan, erdialdean. Iksleendako. Deitu ezazue telefono honetara: 646 45 64 13.

**Benidorm.** Etxebizitza ematen da errentan Benidormen, hon-dartzatik gertu. Deitu ezazue telefono honetara: 941 21 6380 edo 656 18 85 02.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Aramaio.** Bikote gazte batek etxebizitza errentan hartuko luke Aramaio edo inguruaren. Deitu ezazue telefono honetara: 646 27 80 68.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da Arrasaten, etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu ezazue telefono honetara: 606 62 95 47.

**Arrasaten.** Ama-alaba batzuek etxebizitza hartuko luke te errentan. 615 74 67 45.

**Bergara.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 638 89 19 81.

**Debagoina.** Emakumea gerto ad

URTEURRENA

## Cipriana Arizmendiarieta Ojanguren

Angel Barandiaranen alarguna

Lehen urteurreneko meza  
domekan, azaroaren 11n,  
15:00etan,  
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Miren Pilare Mugika Urkizu

Lehen urteurreneko meza  
domekan, azaroaren 11n,  
15:00etan,  
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Josu Bolinaga Aretxaga

Bergaran hil zen 2007ko urriaren 25ean, 45 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei,  
samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eta  
erraustak bota zirenean bertaratutakoei,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko azaroaren 9an.

ESKER ONA

## Angel Goenetxea Uribarri

Bergaran hil zen 2007ko azaroaren 1ean, 56 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko azaroaren 9an.

ESKER ONA

## Juli Arregi Egidazu

Gaspar Ezkuraren alarguna

Arrasaten hil zen 2007ko urriaren 31n, 96 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2007ko azaroaren 9an.

ESKER ONA

## Pedro Ignacio Maiztegi Etxabé

Oñatin hil zen 2007ko urriaren 29an, 59 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2007ko azaroaren 9an.

ESKER ONA

## Dionisia Arriolabengoa Mendizabal

Cornelio Gaminderen alarguna

Arrasaten hil zen 2007ko urriaren 31n, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko azaroaren 9an.

ESKER ONA

## Mateo Iturbe Uribe

'Santamaña'

Arrasaten hil zen 2007ko urriaren 31n, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2007ko azaroaren 9an.

ESKER ONA

## Maria Arrieta Muruamendiaraz

Bergaran hil zen 2007ko azaroaren 4an, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko azaroaren 9an.

ESKER ONA

## Maria Dolores Villar Urzelai

Arrasaten hil zen 2007ko azaroaren 1ean, 88 urte zituela.

Arrasaten jaioa ta Oñatin hasia,  
bizitzu luze ta oparoa  
ikasbide ezin hobea sendiarentzat.  
Eskerrik asko zure kemenia ta maitasunarenengatik.  
Zure seme-alabak eta bilobak.  
Mila esker momentu hauetan gurekin  
egon zareten guztioi.



Arrasaten, 2007ko azaroaren 9an.

ESKER ONA

## Manuel Aizpurua Manzisidor

Aretxabaletan hil zen 2007ko urriaren 27an, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Aretxabaletan, 2007ko azaroaren 9an.

MEZA

## Carlos Beitia Beltran de Heredia

Arrasaten hil zen 2007ko irailaren 28an, 52 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza zapatuaren,  
azaroaren 10ean, 19:00etan,  
Eskoriatzako San Pedro elizan.  
Eskerrik asko, familiaren partez, guztiagatik.



Arrasaten, 2007ko azaroaren 9an.

ESKER ONA

## Emilio Garcia San Martin

Gasteizen hil zen 2007ko azaroaren 5ean, 61 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Aramaion, 2007ko azaroaren 9an.

ESKER ONA

## Emilio Garcia San Martin

Gasteizen hil zen 2007ko azaroaren 5ean, 61 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko bere emaztearen familia eta  
izoko Balbinaren izenean.



Aramaion, 2007ko azaroaren 9an.

Babeslea:





# OROILORE

Hileta eta beilateko zerbitzuak

Momentu txar horietan sortzen diren  
galdera, kezka eta arazo guztiei  
aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da

Amillaga 27, Bergara  
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76  
Zerbitzua Debagoiena osorako

**bila-bila 7****hitz gezidunak**

Saharakoa	▼	Aurkitu	▼	Palestinako hiria	▼
* Irudiko fruitua	►	Larrau		Hitzar-menak	
Harri	►				
Hori argiak					
Bikia	▼	Azala	►		
Lehenaren ondorengo		Gironako autoetan	▼		
Sugegorriak	►				Gizon izena
Iparretarrak	►	Oinarrizko edaria	►	Suari dario	►
		Z birritan		Gar	
Argizagi, astro	►			Sufrea	►
Higuinduta, nazkaturik	►			Kontsonantea	▼
					Fosforoa
					Kontsonantea

GOIENKARIA

**sudokua**

4			6	7	3		2
	9	8					
7			3	2	1		
	1				6		
9	4	1			5		
			9	7			
2	8	4	7				6

**hieroglifoa**

Nola etorri zarete?

DDZDD

**hizki salda**

5 euskal txirrindulariren izenak

Z	C	E	T	U	G	I	J	A
N	U	B	I	C	H	R	M	L
D	E	B	H	Z	A	I	R	U
A	T	U	E	E	N	Z	I	G
G	I	D	Y	L	K	A	N	O
O	N	K	L	C	D	R	O	N
Y	O	G	F	N	I	I	O	R
A	G	A	R	A	T	E	A	A
M	D	E	O	Ñ	A	M	A	C

**bono fotoa**

Elgeako mendien eta eskulturaren artean ageri den tontor gurutzedun hori Oñatiko "jentilen" pasialeku izan omen da mendeetan zehar. Nola deitzen da?

Argazkia eta galdera > Iñigo Blain

**Super BM**

Super BMk emandako  
**50 euroko erosketa-txartela**  
zozketatuko du GOIENKARIk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....  
IZEN-DEITURAK .....  
TELEFONOA.....

Ekari txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Golenako edozein egoitzara

**Urzante oliba-olio birjina estra**

75 cl-ko botila

**3,68 €**

Bi eramanda, bakoitzak 2,76 €

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA**  
Bergarako AINHOA LETErendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!  
Galderaren erantzun zuzena: Barajuen.

**umore giroan**

Kike Amonarriz

**Ke arteko bilerak**





Jon Imanolek auzo lagunen arteko bilerara joan behar izan du. Ia inor ez du ezagutzen eta isilik egotea erabaki du.

Gero eta gutxiagotan gertatzen den arren, erretzai-lez beteriko bilera egokitu zaio. Jon Imanolek ordu erdi bat ke artean pasa eta gero, guztiz nazka-nazka egin da, altxa egin da eta:

- Nazkatu naiz eta ezin dut gehiago. Zuek ohartzen al zarete ni erretzaile pasibo bihurtu nauzuela?

Eta erretzaileetako batek:

- Tabakoak duen prezioarekin erretzaile pasibo ez, erretzaile aprobetxategi bihurtu haiz!

**soluzioak**

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

### LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

### ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

### ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

### LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

### URIARTE SANTOS FERNANDO

Oñati / Atzeko kale 6, behea / 943 78 24 89

## BARNE MEDIKUNTZA

### IRIGOEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibarraiai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90

### ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

### BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriozt 7 – 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

### LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfonso X. Jakintza 5 / 943 79 17 74

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

### GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

### INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

### ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON

Arrasate/ Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

## FISIOTERAPEUTAK

### ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

### ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

### BASTERRETXEA MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

### EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 – 7 / 943 79 95 64

### IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdinalete 2 / 943 76 21 31

### IRATZARRI FISIOTERAPIA LOGOPEDIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri etorbidea 7 / 943 53 39 90

### UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

## GINEKOLOGIA

### RODRIGUEZ SANTOS JAVIER

Oñati / Atzeko kale 6, behea / 943 78 24 89

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

### IRATZARRI LOGOPEDIA FISIOTERAPIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri Etorbidea7 / 943 53 39 90

## MASAJISTAK

### ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kiroldegin 943 77 01 33 / 943 77 16 77

### ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

### ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargain 44, behea / 943 76 73 43

### CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

### ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

### ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

### BEGIENDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

### INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

### ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

### ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

### MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

### PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

## ORTOPEDIA

### ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NERA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

### AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerlek zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

### GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

### AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA

Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62

### GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

### NUÑEZ TXOMIN

Iban Perez > Ikaslea, blogaria eta kirolaria

# "Zenbat eta denbora luzeagoa pasa lasterketetan, gehiago disfrutatzen dut"

Txikitán eskolan ipini zioten **Pibangaitzina eta oraindik ere** hala ezagutzen dute oñatiar

hau. Gasteizen Historia ikaske-tak egiten ari da eta aisialdia kirolean ematen du; triatloian

dabil azkenaldian. Oñatin edo Gasteizen ez bada Nafarroan, Aiegin egoten da. Blogari ere

jarduten du Iban Perezek, egunero kontuak eta iritziak jen-de artera zabaltzen.

#### IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Pertsona aktibo modura aurkeztu du bere burua eta gauza asko egi-tea du gustuko: kirola, ikastea eta lagunekinegotea, esaterako. Horien eta beste hainbat konturen gaine-an egin dugu berba oñatiarrarekin.

#### Kirola da zure jardueretako bat. Zein kirol egiten duzu?

Orain triatloian nabil. Umetan igeriketan ibili nintzen eta gero bizikletan apur bat. Bizikletarekin ez nuen jarraitu, baina igeriketan bai. Unibertsitatean hasi nintzenean igeriketa utzi eta korrika egiteari ekin nion. Bizikletari berriz heldu nion gero eta orain igeriketarekin batera hiruretan jarduten dut.

#### Kirolaletzat ala kirolaritzat daukazu zure burua?

Ongi pasatzeko egiten dut kirola. Lehiaketetan hartzen dut parte, baina gustuko dudalako.

#### Asko entrenatzen zara?

Aste barruan ia egunero, lagunekin Gasteizen. Aste bukaeretan zailagoa izaten da entrenatzea, baina probak izaten ditut sarri.

#### Zein da egin duzun azken lasterketa?

Urduñan mendiko duatloia egin nuen. Oso gogorra izan zen, baina gustukoa. Zenbat eta gogo-rragoak izan, zenbat eta denbora luzeagoa pasa proban, orduan eta gehiago disfrutatzen dut. Pasa den asteburuan Soraluze-Bergara lasterketa ere egin nuen.

#### Eta asteburu honetan Behobia-Donostia. Prest zaude?

Aurreko astean, asteazkenean, egin nuen azken entrenamendu serioa. Soraluze-Bergara proban nire burua probatu nuen eta asteon barrena entrenamendu lasaiak egin ditut. Bestalde, zapatiari ere txipa garaiz ipini nion. Izan ere, iazko Gasteizko maratoi erdian irteera baino ordu laurden lehenago konturatutu nintzen txipa falta nuela, eta egindako denbora ona izan arren, sailkapenean ez zen nire izenik ager-tu; eta gauza bera ez gertatzeko oraingoan, jadanik ipinita dut.

#### Gasteizen asko egoten zara. Oñati txiki geratu zaizu?

Ikastera joan nintzen orain dela hiru urte eta gustua hartu diot hiriari. Ez zait Oñati txiki geratu, baina beharrak eraginda geratzen naiz Gasteizen, egunero joan- etorrian ibiltzea amesgaiztoa litzatekeelako. Ikasle etxe batean nago



IRATI AGIRREAZALDEGI

#### PERTSONALA

**Herria:** Oñati. **Adina:** 21 urte. **Ikasketak?** Historia. **Zaletasunak:** Kirola, lagunekin irtetea eta ikasten ari naizena, historia. **Maniarik baduzu?** Lasterketak hasi baino ordubete edo ordu erdi lehenago kafe-hutsa hartzea. **Bidaiatzeko toki bat?** Amsterdam.

Hiru egun pasatu nituen eta motz egin zitzaidan egonaldia. **Lasai egoteko toki bat?** Lizarra aldame-neko Aiegi herria. **Amets bat?** Ironman lasterketa bat egitea; Hawaikoa polita dela diote, baina edozein amaituz gero beteko nuke ametsa.

lagunekin, eta gustura bizi naiz. Hala ere, Oñatiaren falta sumatu orduko etortzen naiz familiaren-gana eta lagunengana. Bainaga agenda beteta izaten dut eta beti ez da erraza lagunekin geratzea.

#### Kanpora asko irteten zara?

Karrerak dauzkadanean bidaiatzen dut, baina gainontzean apena. Aiegira, Nafarroa, sarritan joaten naiz eta udan soros-le lanetan ibiltzen naiz. Bestalde, aurten irailean Donejakue bidea egin dut bizikletaz, bakarrik. Asko gozatu dut eta bidaia erakutsi dit gai naizela bizitzeko hain beharrezkoak ez diren gauzakin.

#### Historia ikasten ari zara Gasteizen. Nolatan erabaki zenuen hori ikastea?

Gustatu egiten zait eta, gainera, uste dut historialariok gauza handiak egin ditzakegula munduan. Historiak erakusten digu zer ez genukeen egin behar etorkizunean; hortaz, saiatzen gara aztertzen pasatu dena, gerora guk oker berberak ez egiteko.

#### Blogari modura ere historia egingo duzu?

Idazteko gogoa neukan eta aukera sortu zitzaidan. Ez dut mundua aldatzeko uesterik; baina batzuek nire iritzia eta nire kontuak jakin ditzaten baliagarria da. Ez dut kontrolatzen jende askok jarraitzen duen ala ez, baina inoiz GOIENKARIAn nire blogeko artikuluren bat kalera-tu dute eta esan izan dit batek edo bestek irakurri duela.

#### Zertaz idazten duzu blogean?

Denetarik: nire mundua, gau-kotasuneko gaiak, iritzi pertsonalak. Blogak ematen dit askatasuna batzuetan lagun artean berba egiteko aurkitzen ez dudana. Era berean, ezagutzen ez nautenek nire berri izateko ere balio du.

#### Beste zaletasunik baduzu?

Edozein gazterenak: musika entzutea. Denetarik entzuten dut: Bruce Springsteen, talde euskal-dunak, ska, jazza... Irakurtzea ere asko gustatzen zait.

#### Aurrerantzean zein asmo duzu?

Kirolean gozatzen jarraitzea eta beharbada 2008an Donostia-ko Maratoia egitea, baina bien bitartean beste duatlooi, triatloia eta lasterketan parte hartzea. Ikasketetan, karrera amaitzea eta gero lanean hastea edo ikasketak luzatzea. Eta, azkenik, blogari segitza.

**Appleberri**  
Eman haginkada sagarrari!

**Euskal Wikipedia bultzatzeko lehiaketan iPhone eta iPod artikuluak**

Azaroaren 5etik 10erako astera Zientzia Astea antolatu dute EHUK eta Eusko Jaurlaritzak, beste hainbat erakunderen lagunza eta babesari esker. Elikaldi nagusia, *Wikipedia Euskarak Bi!* izeneko lehiaketa da. Zientzia eta Teknologien esparruan sailkatu daitzekeen edukia sortzea da lehiaketaren helburua, eta trukean sari bikainak jasoko dituzte.

**Nori zuzendua**

Deialdia DBH, Babilergo eta Lanbide Heziketako ikasle eta irakasle zein Unibertsitateko ikasle eta publiko orokorri zuzendua dago. Izena emateko epea urriaren 15ean zabaldu zen eta dagoeneko parte-hartzalea ugari dihardu lanean.

**iPod eta iPhone ekarpenak**

Bi lehakide daude lehiaketan parte hartzen iPod eta iPhone artikuluek egiten. iPhone artikulua nahiko osatuta dago eta iPod artikulua oraindik zirriborroa da. Appleberriak Islako Akerra eta Julien Maneros tankideak bereziki zoriondu nahi ditugu lan bukuna egiten hari direla.

**Sariak banaketa**

2007ko azaroaren 7an egingo da Sari banaketa. Wikipediaren sortzailea den Jimmy Wales ekitzialdiaren buru izango da.

This entry was posted on Saturday, October 20th, 2007 at 12:01 am and is filed under iPhone, iPod, Foro, Oinarrizko. You can follow any responses to this entry through the RSS 2.0 feed. You can leave a response, or trackback from your own site.

« Software eguneraketa kopuru handia      iTunes 7.5 eguneraketa »

DISEINU BERRIA Besteak beste, atal berriak sortu dituzte, elementu grafikoak indartu eta menuak bestela antolatu. GOIENKARIA

INFORMATIKA > MAC ORDENAGAILUAK

## Apple-en euskal blogak aldaketak egin ditu, jendeak parte hartzeko

'Appleberri.com' Mac ordenagailu erabiltzaileendako webgunea berritasun askorekin dator; berau kudeatzen dabilta, besteak beste, hiru debagoiendar gazte

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA Appleberri.com euskal Mac ordenagailu erabiltzaileei zuzendutako webguneak diseinu eta atal berriak ditu. Parte-hartzea bultzatu nahi dute arduradunek bigarren aro honetan, eta, horretako, aukera berriak sortu dituzte: argazki galeria, bideo-kasta eta foro berriak. Webgunea berritzen eta hura mantentzen.

tzen hiru debagoiendar daude: Antton Peña aramaioarra, Imanol Soriano arrasatearra eta Libe Aranburuzabala eskoria-tzarra, taldeko kide berria. Denean, bost lagunek kudeatzen dute webgunea, denak euskaldunak eta gazteak.

**DISEINU BERRIA**  
Diseinu aldaketa bi beharrek eragin dute, nagusiki: edukiak kudeatzeko sistemaren aldaketa, batek, eta, bestetik, erabiltzaileei parte hartzeko aukera berria eskaintza. Horretarako, atal berriak sortu, elementu grafikoak indartu, menuak bestela antolatu eta edukiak informazio osagarri hornitu dira, irudiak eta bideoak, gehienbat.

"EZ dugu Appleberri albiste-gi soil bat izan dadin nahi. Albistegi izateaz gain, eztabaideagunea ere izatea nahi dugu. Edonori

parte hartzeko aukera eman nahi diogu", esaten dute webgunearen kudeatzaileek, eta han argitaratzeko moduko edozein albiste edo ekarpen daukanari eurekin harremanetan jartzeko dei egiten diote.

**BLOGETIK WEBGUNERA**  
Iaz sortu zuen Appleberri.com webgunea Antton Peñak, Apple munduan gertatzen diren berriak zabaltzeko. Blog pertsonal izatek, euskarazko Appleren blog komunitario ez-ofiziala izatera pasa zen handik gutxira.

Webgunea osatzen duen atal nagusia albisteak dira, baina Appleberri ez da albistegi soil bat. Albistegi izateaz gain, eztabaide gune ere izatea nahi dute, eta edonori parte hartzeko aukera eman nahi diote, modu erraz batean informazioa elkartrukatu, osatu, zuzendu edo eztabaideatzeko.

## teknologia berriak

> POLTSIKOKO TELEFONOAK

### Sony Ericsson K660 3G telefonoa, Interneten nabigatzeko pentsatutako aparailua

Sony Ericsson K660 sakelakoa Interneten nabigatzeko pentsatua dago.

Aplikazio oso interesgarriak ditu, hala nola Google Maps, argazkiak sarera igotzeko programa bat eta RSS irakurgailuen aplikazioa.

Bestelako ezaugarriak ohiko sakelakoen antzerakoak dira: bi megapixelesko kamera, Bluetooth, FM irrati eta Memory Stick Micro M2 txartelentzako erreten bat.

Urtarril hasieran kaleratuko da; salneurria, zehazteke.



K660 modeloak diseinu oso landua eta azken belaunaldioko teknologia ditu.

> USB GAILUAK

### DiskGo, 32 gigabyteko edukiera duen lapitz digitala, datuen enkriptazio sistemarekin

DiskGo 32 GBko edukiera duen USB lapitz digitala da. Edukiera handi horrekin, dokumentuak, aurkezpenak, argazkiak eta musika kopuru handia eraman daiteke. USB gailu horrek Cryptarchiver Lite delako datuen enkriptazioarako softwarea dakin.

32 GBko edukiera duen lapitz 276 eurotan eros daiteke. Beste edukiera batzuetan ere eskuragarri dago: 4, 8 eta 16 GBkoak, 50, 85 eta 170 eurotan, hurrenez hurren.



DiskGo lapitz digitala 4, 8, 16 eta 32 GBko edukieran eskura daiteke.

> TFT PANTAILAK

### Samsung-ek SyncMaster gamako hiru modelo berri kaleratuko ditu, 19 eta 22 hazbetekoak

Samsung etxeak SyncMaster gamako hiru modelo aurkeztu ditu: 19 hazbeteko bi pantaila eta 22 hazbeteko bat.

Hiru modeloek dituzten ezaugarriak honako hauek dira: MagicBright2 aplikazioa erabilita, distira automatikoki optimizatza; horrez gain, bost milisegundoko erantzun denbora eta bozgorailuak.

Salneurriak honako hauek dira: SyncMaster 920PM modeloak 172 euro kostatzen da; SyncMaster 920WM, 152 euro; eta SyncMaster 2200WM, 241 euro.



Hiru modeloetan, distira automatikoki optimizatzeko aukera dago.

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net-eko-blog.komertzialak](http://www.goiena.net-eko-blog.komertzialak)

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)

/aebpn /denetik /gertu /lorelan /puerta-ingles  
/aiastui /dragon-oriental /gorkataxi /korozabaleta /richimaiers  
/aretxargi /dukiena /gurea /markiegi /tabernaberri  
/argi-plastik /ego /gutzizeder /maulanda /udalaitz  
/arregi /ekiore /hamaika /mayte /urdeki  
/atai /ekin /itxaseder /merkeopari /ugartearotza  
/azkarate /elejalde /irudisport /multiopicas /urbjeta  
/bastida /ezkutuorly /ixaun /ohiak /urko  
/briz- /galgorri /izeder /ogizun /vitoria  
aseguruak /gallastegi /jacing /okipark /zaindusz  
/BZ-sistemas /ganesh /joseba /otzeta /ziripot  
/bolusukaldeak /garaia /lamaino-etxeberri /pando

Eta baita ere:

[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.amgautoak.com](http://www.amgautoak.com)  
[www.baster-aldejateak.com](http://www.baster-aldejateak.com)  
[www.ehmff.com](http://www.ehmff.com)  
[www.gelatzu.com](http://www.gelatzu.com)  
[www.goikobenta.com](http://www.goikobenta.com)  
[www.haurtxoa.com](http://www.haurtxoa.com)  
[www.klorofila.com](http://www.klorofila.com)  
[www.landaluze.com](http://www.landaluze.com)  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
[www.toldoslete.com](http://www.toldoslete.com)  
[www.uxarte.net](http://www.uxarte.net)



**berriak**

&gt; KANTARI

**Kantariko zazpi saio grabatuko ditu Goiena Telebistak asteburuan**

Arrasateko Amaia antzokian arituko dira asteburu honetan Arrasateko eta Aramaioko umeak kantuan eta dantzan. Izan ere, 107 haur eta gaztetxok hartuko dute parte zapatuan eta domekan Kantari ikuski-zunean. Guztira zazpi saio grabatuko ditu Goiena Telebistak; lau zapatuan eta hiru domekan. GOITB-ko lantallearekin batera Lazkano enpresakoak ari dira; soinu eta argiteriaz arduratzenten dira.

> GOIENA TELEBISTA  
**Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak zozketatuko dituzte**

Azaroaren 24an, zapatua, Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunek *Eskerrik asko* deritzon ikuskizuna eskainiko dute Eskoriatzan.

Goiena Telebistak ikuskizuna ikusi ahal izateko sarrerak zozketatuko ditu. Sarrera bat lortzeko honako prozedura jarraitu behar duzu: bidali SMS bat 5756 zenbakira GTB mezuarekin eta *Eskerrik asko* ikuskizuneako zozketan sartuko zarete.

> ARRASATE IRRATIA  
**Osasun eta sendabelar kontuak datorren astean**

Datorren astean, osasunarekin lotutako hainbat hitzordu izango dira Arrasaten. Tartean, eguztenean sendabelarren gaineke ikastaroa hasiko dute Ekin emakumeen elkartean. Eta egunero, berriz, bihotzko eta gai-xotasun kardiako gainean berbaldia antolatu du Atcore elkarrekin; hizlaria Garikoitz Lasa Poliklinika-koko medikua izango da. Irratian landuko ditugu biak.

> ARRASATE IRRATIA  
**Abenduan bukatuko da sarrerak eskuratzeko aukera**

Uda sasoia hasi zenetik, Donostiako Aquariumari esker, aste-ro lau sarrera zozkatzenten ditugu gure uhinetan, entzuleak arrainen erreinutxo hura bisi-tatzera joan daitezen. Bada, oraingoz bide beretik jarraituko dugu, baina gogoan izatea komeni da abenduan bukatuko dela zozketa hori. Eta aben-dua aipatu dugunet, komenida, baita ere, gogora ekartzea abendua dela Aquariumerako sarrera horiek erabilzeko azkeneko hilabetea.

'ILUNPEAN' &gt; EGUBAKOITZA, 22:15

# Mari Carmen Garmendia izango da 'Ilunpean' saioan

Politikan eman ditu Mari Carmen Garmendiak azkeneko urteak, eta orain kulturagintzan dabil

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Ormaiztegikoa sortzez, Donostian eman ditu bizitzako urte gehienak. Euskaltzale amorrataua izan da txiki-txikitik, eta hogei urte baino gehiago eman ditu Garmendiak irakaskuntzan, irakasle. Politikan lehen urratsak eman zituenean egin zen ezagun; Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako arduradun izan zen eta baita Jaurlaritzako bozeramaile ere. Kultura sailburua ere izan da, Ardantzarekin lehenik eta Ibarretxerekin ondoren. Gaur egun, berriz, kulturagintzan dihardu lanean.

KOLABORAZIOAK &gt; AITOR ARREGI ZINEMAGILEA

## Aitor Arregi zinemagilea izango da 'Telebegi' ataleko kolaboratzaile berria

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Orri honen azpiko aldean dagoen *Telebegi* kolaboratzaileen tar-teak, orain artekoez gain, beste luxuzko kolaboratzaile bat izango du hemendik aurrera. Aitor Arregi da hura, oñatiarra eta zinemagilea. Ikusten duzuenez,



MARI KARMEN GARMENDIA GOIENKARIA-rako argazkian. IKER BARANDIARAN

**telebegi**

Aitor Arregi

### 'The Sopranos'

Tony Soprano bi familiaren buru da: bata, genetikoa eta bestea, mafioso. Biek eragindako presioek sortutako antisietate eta izu krisiak direla-eta, Tonyk psikiatra batengana jotzea erabaki du.

Aspalditik nuen entzunda telesail honen berri. AEBe-tan telebista Emmy sari ugari irabazi ditu. Hemen Canal + katea hasi zen emititzen. Orain, berriz, La Sextan ikus dezakegu, programatzaileek, gaueko ordu txikitik erbestearatu, beste hainbat telesail bikain bezalatsu.

Hilabete dela, telesailaren lehen denboraldia pasa zidaten DVDan; bigarren denboraldia amaitu dut jadanik. Harrapatu egin naute Sopranotarrek. Hasieran, pertsonaiak gugandik urrun daudela dirudi; egia bestelakoa da. Gangster gupidagabe horiek, estortsio eta hilketa tarteetan, etxeak arazoak dituzte, erabakiak hartzeko beldur dira, bizitza egonkor bat bilatzen dute, krisi existentzialak dituzte... Finean, edozein pertsona arrunt bezala. Ala?

Batzuek diote fikzioa dela bizitza erreala irudikatzeko tresna onena. *The Sopranos*-en kasuan, ados nago. Idazten bukatutakoan, banoa hirugarren denboraldia ikustera!

hemendik aurrera telebistaren gaineko hausnarketak egingo dituztenak; Edu Mendibil, Leire Kortabarria, Edorta Arana eta Aitor Arregi.

Gaztea bada ere, puntako lanak egiten badakiela erakutsi du Arregik azken urteotan. 2004an *Glup* izeneko film luzearekin Goya sarietarako izendautua izan zen. Urte berean aurkeztu zuen *Sahara Maraton* eta 2006an etorri zen *Cristobal Molon* animaziozko filma. Haren azken lana, *Lucio*, aurtengo Zinemaldian aurkeztu du eta harrera oso ona izan du, gainera.

**arrasate irratia**

FM 107.7

**Zapatua**

10:00 Asteko gainbegiratua. Juan Luis Zabala idazlea, *Ilunpean* saioan, *Danbaka.cometa Kantari* saioetako musika kontuak, hirugarren adinekoen gaineako Zaharrak berri saioan eta beste.

**Domeka**

10:00 Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik eguzteneera**

10:00-12:00 Igo Autobusera.

Albistegia  
Eguraldiaren iragarprena (Joxe Landa)  
Ilunpean  
Kantaka  
Zaharrak Berri  
Astearen errepasoa  
Elkarritzetak  
Zozketak  
Zorion agurra  
(parte hartzeko: 943 71 17 31  
*irratia@golea.com*).

11:55 Arrasateko albisteak, labur.

12:05 Euskadi Irratiko albistegia.

12:10 Izarran ordua: abesti ezagunak.

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 Igo Autobusera! (errep.).

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

## GOITBko programazioa

**Ilunpean****GOITBko programazioa****Ilunpean****GOITBko programazioa****Ilunpean**



Karaoke Ikuskizuna

# Arrasateko Amaia Antzokian

Azaroaren 10ean eta 11n

## Azaroaren 10ean:



- 1. saioa: 16:30ean
- 2. saioa: 17:40ean
- 3. saioa: 18:40ean
- 4. saioa: 19:40ean

## Azaroaren 11n:

- 1. saioa: 17:00etan
- 2. saioa: 18:15ean
- 3. saioa: 19:30ean

Zatoz zure herriko kantariak animatzera!!

BABESLEA



gaztetxoen  
elkartea  
club juvenil

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



# Azaroak 9-16

MONIKA BELASTEGI  
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa  
eguzteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

## Erakusketa



LEINTZ GATZAGA

### > Hondarribiako Menina tailerreko txotxon-giloen erakusketa aste bukaeran

Domekan ospatuko duten San Milixan jaiaren harira antolatu dute erakusketa. Gaur, egubakoitza, egingo dute inaugurazio ekitaldia, 17:00etan. Zapatuko ordutegia izango da: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00. Domekakoa, berriz: 10:00-14:00.

## Jaia



ARAMAIO

### > Trikiti eguna ospatuko dute gaur, egubakoitza, 18:00etan hasita

Trikiti doinuak izango dira nagusi gaur, barikua. 18:00etan kalejira egingo dute Trikitixa Eskolako ikasleek. Gero, udaletxeko arkueetan buzkantza eta txorizoa egongo dira dastatzeko, ardo eta sagardoarekin lagunduta.

## Karaoke ikuskizuna



ARRASATE

### > Debagoienean Kantari Arrasatera iritsiko da aste bukaeran

Arrasateko 8 eta 12 urte bitarteko txanda iritsi da. Egindako entsegu guztiek zer-nolako fruituak ematen dituzten ikusiko dugu bihar, zapatua, (15:30) eta etzi, domeka (16:00), Amaia antzokian grabatuko dituzten saioetan.

## Hitzaldiak

### ARETXABAleta

#### > 'Nairobitarra' delako ikus-entzunezkoa

Loramendi elkartea antolatu du Josu Iztuetaren ikus-entzunezkoia.

Gaur, egubakoitza, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

### ESKORIATZA

#### > Ciudad Juarezko (Mexiko) hilketen gaineko hitzaldia

Emakumeen aurkako indarkeria: Ciudad Juarezko feminicidioa delako hitzaldia egingo dute Julia Esther Cano eta Elia Escobedok. Nuestras hijas de regreso a casa elkarteko kideak dira. Elkarhezitzen taldeak antolatu du hitzaldia.

Hilaren 13an, martitzena, 18:30ean, kultura etxeen.

### OÑATI

#### > Ciudad Juarezko (Mexiko) hilketen gaineko hitzaldia

Eskoriatzan bezala, Emakumeen aurkako indarkeria: Ciudad Juarezko feminicidioa delako hitzaldia egingo dute Julia Esther Cano eta Elia Escobedok. Nuestras hijas de regreso a casa elkarteko kideak dira.

Hilaren 14an, eguztena, 19:00etan, kultura etxeen.

### ESKORIATZA

#### > Bularreko minbiziaren gaineko hitzaldia

Bularreko minbiziaren detekzio goiztiarra delako hitzaldia egingo du M. Jesus Mitxelena Donostiarra institutu onkologikoko kideak.

Hilaren 14an, eguztena, 18:00etan, kultura etxeen.

### ARRASATE

#### > Umore gaua izango da Iamai kafetegian

Mari Simancas umoregileak hartuko du parte.

Gaur, egubakoitza, 00:00etan.

### ARRASATE

#### > Bihotzeko eta gaixotasun kardiakoen gaineko hitzaldia

Atcore elkartea antolatu du eta berbaldia egingo du Garikoitz Lasa Poliklinikako medikuak.

Hilaren 15ean, eguna, 19:00etan, Kulturaren.

## Erakusketak

### ANTZUOLA

#### > Argazki lehiaketako lanak ikusgai egongo dira

Argazki lehiaketan parte hartu duten lanak ikusgai jarriko dituzte 12:00-14:00 eta 18:00-20:00 ordutegian. Horre-

## Musika

BERGARA

### > Akordeoi eta txistu kontzertua osoko bilkuren aretoan

Garikoitz Mendizabalek jardungo du txistuarekin eta Aitor Furundarenak, akordioarekin.

Gaur, egubakoitza, 19:30ean.

BERGARA

### > DJ saioak gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Ziripoten

Gaur, DJ Lalasek jardungo du. Biher, Mitx Meatakak. Biak ala biak, 23:00etan.

ARRASATE

### > Hainbat DJk 'Electric Fridays' gaua egingo dute 3.60 aretoan

Seth Troxler (Detroiteko), Kasper&Papol, Koldo Intermusic eta Ion2 EF arituko dira.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

OÑATI

### > Quimi Portet musikari kataluniarraren kontzertua

Musikari kataluniarraren izena Manolo Garcarenarekin batera egin zen ezaguna Estatu osoan El Ultimo de la Fila taldeko partaide izateagatik, baina aurretik beste hainbat taldetan ere parte hartu zuen. Bakarlari gisa ere ibilbide luzea egin du. Oñatin, hain justu, bakarkako azken lana aurkeztuko du: *Matem els dimarts I els divendres*.

Bihar, zapatua, 22:00etan, gazteleku.

BERGARA

### > Disko jartzaleen gaua Jam aretoan

Jardungo dute Daniel Stephaniek, Pablo Akaros&Pedro Suitek, Haitz, U. Bellamyk eta Gafapasteak.

Bihar, zapatua, 23:00etan.

ARRASATE

### > Punk kontzertua Gure Leku tabernan

Nealita Fola eta Los Rechazados taldeek egingo dute emanaldia. Biher, zapatua, 23:00etan.

BERGARA

### > Los Cretinos eta La Banda del Abuelo taldeen kontzertua

Arrasateko taldeek gaztetxeen egingo dute emanaldia. Biher, zapatua, 22:30ean.

ARRASATE

### > The Governors taldeak kontzertua egingo du

The Governorsekin batera Neubat taldea ere arituko da. Biher, zapatua, 23:00etan, 3.60n.

OÑATI

### > Musika Bandak kontzertua egingo du

Oñatiko Musika Bandak

Santa Ana aretoan egingo du emanaldia.

Etzi, domeka, 12:30ean.

ARAMAIO

### > Arrasate Musikaleko Txistula-rien kontzertua

Urteroko kontzertua egingo dute Arrasateko txistulariek Gantzaga auzoan. Etzi, domeka, 11:00etako meza eta gero.

OÑATI

### > Pake Lekuko abesbatzak kontzertua egingo du

Zaharren egoitzako abesbatzak Santa Ana aretoan egingo du emanaldia.

Hilaren 12an, astelehena, 17:30ean.

## Antzerkia

ANTZUOLA

### > 'Izerdi patsetan' delako antzezlan umoretsua

Mari Simancas umoregileak hartuko du parte.

Gaur, egubakoitza, 00:00etan.

Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktoreek erakutsiko dute botatzen duten izerdiaren araberakoak direla gizonezkoak.

Gaur, egubakoitza, 22:00etan, Olaran etxeen.

ELGETA

### > Elliot mimo suitzarrak emanaldia egingo du

Rock Comedy Show da

Ellioteek egingo duen antzezlan. Koprodukzio bat da, Yllana talde entzutetsuarekin egindakoa. Mimoa da lanaren oinarria.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Espaloia antzokian.

ARRASATE

### > Umore gaua izango da Iamai kafetegian

Mari Simancas umoregileak hartuko du parte.

Gaur, egubakoitza, 00:00etan.

ARRASATE

### > Herriko historia ezagutzea ibilaldiak antolatu ditu AEDK

Harutze ta Honutze, Mondrauen du izena ekimenak eta herrian barrena egingo dituzten ibilaldietan oinarrizten da. Industrializazioa, Erdi Aroa eta beste hainbat gai landuko dituzte eta ibilaldi bakotzea aditu batek emango ditu azalpenak. Lehen ibilaldia izango da biher, zapatua, eta gaia Erdi Aroa. Azalpenak emango ditu EHUKO irakasle Anabel Ugalde. 11:30ean eta 18:00etan izango dira irteerak, Arbolapetatik abiatuta.



PROPOSAMENA

kin batera, sari ematea egindo  
dute etzi, domeka, 19:00etan.

Bihar, zapatua eta etzi, domeka,  
Olaran etxeen.

#### ARRASATE

##### > Mila Carballoren pintura erakusketa

Margolariek Harresiko  
pareteten zintzilikatu ditu  
lanak.

Gaur, egubakoitza, hasi eta 25era arte.


## Ikastaroak

#### DEBAGOIENA

##### > Keinu hizkuntza ikasteko eskolak antolatu dituzte

Aransgi elkarretek antolatu  
du ikastaroa. Urtarrilean  
hasiko da eta interesa duten  
debagoiendar guztiak har  
dezakete parte. Ikastaroa  
Bergaran izango da, Aransgi-  
ren egoitzan. Eskolak izango  
dira martitzenetan, 19:00-21:00.  
Lehentasuna izango dute  
gorren senitarteko eta lagu-  
nek. Matrikula 85 euro da.

Izena emateko jo Aransgira edo deitu  
943 76 27 03 zenbakira.



### Cassandra's dream \*\*\*

Zuzendaria: Woody Allen.

Aktoreak: Ewan McGregor, Colin  
Farrell, Tom Wilkinson.  
AEB, 2007.  
90 min.

**C**assandra's dream nahiko film eztabajatua gertatu da: ez duela ematen Woody Allenen filma, gogo eta inspirazio gutxirekin egina dagoela... Eta ez dut uste horrela denik. Filmak *Delitos y faltas* eta *Match point*-ekin lotura nabarmenak ditu: diru, luxua eta gizartean maila bat lortzeko edozer gauza egiteko prest dagoen jendea dugu istorioen protagonista. Ekintza txar horiek kontzientzia arazoak erakartzen dituzte, eta, horrela, gauzak korapilatuz joango dira.

Hiru filmetan gure munduaren gaineko begiradak nahiko pesimistak dira. *Delitos y faltas*-en drama eta komedia filosofiarekin batzen dira eta lan borobil bat osatzen dute, eta *Match point* eta *Cassandra's dream* lan narratiboagoak dira. Lehenengo ironia eta sensualitate handiagokoa da, eta bigarrena oso lan zehatza eta lehorra da. *Cassandra's Dream* thriller bat da: bi anaia –bata ahula eta atsekabetua eta bestea berekoia eta praktikoagoa– dirua lortzeko hilketa bat burutzeko tentatuak izango dira. Hilketa burutzeko duda moralak, hilketaren prestaketak eta hilketak dakartzan ondorioak ikusiko ditugu. Pertsonaiak pertsona normalak dira, ez dira hiltzaile profesionalak, nahiko gertukoak egiten zaizkigu eta nolakoak diren ikusita –euren ahultasun eta trapestasunekin– ederki antzematen da planak okertuz joango direla.

Bihar, zapatua, goizez, San Martin plazan.

## Bestelakoak

#### ARETXABAleta

##### > Futbolin txapelketa Loramen- di elkartarekin

Haizea tabernan izango da  
txapelketa. Izenematea izango  
da 16:00etatik 17:00etara,  
txapelketa egunean.

Bihar, zapatua.

#### ARRASATE

##### > Herriko baserrietako produk- tuen feria

Herriko baserrietako  
produkturik onenak erosteko  
aukera izango da. 09:00etan  
irekiko dute azoka.

Bihar, zapatua, Seber Altube plazan.

# Zinema

#### ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Sin reservas  
Egubakoitz: 22:00  
Astelena: 20:30.

Lucio  
Eguera: 20:30.

#### ARAMAIO KULTURA ETXEA

Maitagarri amandrea  
Domeka: 17:00.

#### ELGETA ESPALOIA

Beethoven  
Domeka: 17:30.

#### BANANAS

Eguaztena: 21:30.

#### ESKORIATZA IBARRAUNDI MUSEOA

Pinocho 3000  
Domeka: 17:30.

#### OÑATI KULTURA ETXEA

Promesas del Este  
Egubakoitz eta zapatua:  
22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelena: 19:30.

#### TORTUGA NINJA: JOVENES MUTANTES

Zapatua eta domeka:  
17:00.

#### DELIRIOUS

Eguera: 20:00.

#### EIBAR UNZAGA

Leones por corderos  
Egubakoitz: 19:30, 22:15.  
Zapatua eta domeka:  
17:00, 19:30, 22:15.  
Astelena, martitzena  
eta eguztena: 19:30,  
22:15.

#### RATATOUILLE

Once  
Egubakoitz: 22:45.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:45, 22:30.

#### 13 ROSAS

17:00, 19:45, 22:30

#### EL SUEÑO DE CASANDRA

17:30, 20:00, 22:30

#### EL CASO WELLS

17:30, 20:00, 22:30

#### LA ZONA

17:30, 20:00, 22:30

#### RATATOUILLE \*\*\*\*\*

AEB, 2007. Zuzendaria: Brad  
Bird. Marrazki biziundak.  
110 min.

Remy sagu mokofina da, eta ez da

konformatzen zaborrontzietako

jakiekin. Parisko jatetxe onenetako

baten chefetan nahi du.

#### AMOR Y OTROS DESASTRES

Erresuma Batua, 2006.

Zuzendaria: Alek Keshishian.

Aktoreak: Brittany Murphy,

Matthew Rhys, Orlando Bloom,

Gwyneth Paltrow.

90 min.

Bere lagun onenek bikotekidea

aurkitzen iaioa da Emily Jackson

Jacks. Bain bestetzi maitasun kon-

tuetan lagunten dien arron, eza-

gutuko ote du bere maitasun han-

dia, agertzen denean?

#### BRATZ: LA PELÍCULA

AEB, 2007. Zuzendaria: Sean

McNamara. Aktoreak: Nathalia

Ramos, Jane Parrish.

110 min.

Yasmine, Jade, Sasha eta Cloe beti-

ko lagun minak dira. Instituzioen

hasten direnean, arazoak izango

Antonio Zabala

#### GASTEIZ GURIDI

Leones por corderos  
17:30, 20:00, 22:30.

Cortometrajes 6x1  
17:00.

Tierra  
Egubakoitz: 18:45, 20:30.

Zapatua: 17:00, 18:45,

20:30.

Domeka: 17:30, 19:45.

EL ASESINATO DE JESSE  
JAMES POR EL COBARDE  
ROBERT FORD  
22:30.

BETIZU ETA URREZKO  
ZINTZARRIA  
17:00.

PERSEPOLIS  
18:45, 20:30, 22:30.

LA TORRE DE SUSO  
17:00, 19:45, 22:30.

STAR DUST  
17:00.

LIO EMBARAZOSO  
Egubakoitz: 22:30.

Zapatua eta domeka:  
19:45, 22:30.

RESIDENT EVIL 3:  
EXTINCIÓN  
17:00, 22:30.

UN FUNERAL DE MUERTE  
18:45, 20:35.

FLORIDA-GURIDI

Elizabeth: la edad de oro  
17:00, 19:45, 22:30.

OVIEDO EXPRESS  
Egubakoitz: 22:30.

Zapatua eta domeka:  
17:00, 22:30.

55 DIAS DE INVIERNO  
17:00.

ADIOS PEQUEÑA ADIOS  
20:15, 22:30, 00:45.

MOVIDA BAJO EL MAR  
12:45, 16:00, 17:40.

LAS 13 ROSAS  
19:25, 21:55, 00:20.

RATATOUILLE  
12:15, 15:55, 18:10.

INVASION  
20:25, 22:25, 00:25.

EL SUEÑO DE CASANDRA  
22:20, 00:40.

LIO EMBARAZOSO  
12:15, 15:35, 17:55, 20:15,  
20:15.

PROMESAS DEL ESTE  
22:35, 00:35.

LOS SEIS SIGNOS DE LA LUZ  
12:15, 16:15, 18:15.

ADIOS PEQUEÑA ADIOS  
20:15, 22:30, 00:45.

MOVIDA BAJO EL MAR  
12:45, 16:00, 17:40.

LAS 13 ROSAS  
19:25, 21:55, 00:20.

RATATOUILLE  
12:15, 15:55, 18:10.

INVASION  
20:25, 22:25, 00:25.

GAUERDIKO SAIOAK, EGUBAKOITZ  
ETA ZAPATUA  
Eguera, ikuslearen eguna.

#### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Leones por corderos  
12:15, 16:00, 18:00, 20:00,

22:00, 00:00.

EL HOMBRE DE ARENA  
12:15, 15:30, 17:45, 20:05,

22:25, 00:45.

EL HOMBRE DE ARENA  
12:15, 16:25, 18:25, 20:25,

22:25, 00:25.

SILENCIO DESDE EL MAL  
12:15, 16:35, 18:35, 20:35,

22:35, 00:35.

TIERRA  
12:15, 16:05, 18:05, 20:05,

22:05, 00:05.

RESIDENT EVIL  
12:15, 16:05, 18:05, 20:05,

22:05, 00:05.

SHOOT'EM UP  
16:15, 18:15, 20:30, 22:35,

00:45.

ADIOS PEQUEÑA ADIOS  
17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

LOS TOTEMWAKERS  
16:10, 18:10, 20:15, 22:15.

SAW IV  
16:00, 18:05, 20:15

# Euskal kantuetan onenak

**EUSKAL KANTU TXAPELKETA** Euskal kantu txapelketako finalera iristea lortu duten bost arrasatearrekin egon gara

**MIRIAN BITERI > ARRASATE**  
 Bihar, zapatua, Gipuzkoako euskal kantu txapelketako finala izango da Donostiako Printzipal antzokian. Debagoiendarrak ez dira faltako agertokian. Miren Morales, Maialen Linazisoro, Eneritz Urrutia, Ainhoa Baltzategi eta Beatriz Azurmendi arrasatearrak izango dira han.

Haienek egon gara, Goikoburu Gazte abesbatzak Saiolanen duen egoitzan. Abesbatza horren partaide dira 16 eta 18 urte bitarteko bost neska horiek. Urdureta, era berean, ilusionatuta daudela onartu dute bostek.

Ainhoa Baltzategi eta Beatriz Azurmendi aurten estreinatu dira esandako txapelketan: "Joan den urtean ezin izan nintzen aurkeztu, oraindik ez nituen eta 16 urte". Besteendako, berriz, bigarren aldia da.

Eneritz Urrutiak bestelako lehiaketan ere parte hartu izan du: "Trikiti txapelketan nago, joan den domekan kanporaketa izan genuen. Oraindik ez dakit pasatu naizen edo ez", azaldu du.

Hasieran "oso urduri" egon zirela jakinarazi dute bostek. Baina "txapelketak aurrera egin ahala urduritasuna kendu egin zitzagun eta gozatzen hasi ginen", dio Baltzategik.

## BI TALDE

Bi taldetan daude banatuta. Moralesek eta Linazisorok Black Tie taldea osatzen dute. Bikoteen atalean jardungo dute, Maria Fagan gitarrista ondoan dutela. Azken horrek eginiko abesti bat kantatuko dute, *Damua* izeneko. Urrutia, Baltzategi eta Azurmendi taldeka arituko dira. Maialen Axpe trikitilariaren lagunza izango dute, M-n Ezten taldearen *Beldurak ahaztuta* interpretatzeko.

Irabazi edo ez, behar bezala ospatuko dutela diote: "Afarria egingo dugu denok batera, txapeldunak ez bagara ere", jakinarazi du Linazisorok. Etorkizunean, musikaz bizi izatea gustatuko litzaiekeela diote. Jakin badakite, ordea, bidea ez dela samurra izango. Urrutia trikitia jotzen hasi da dagoeneko.

**FINALA BIHAR** Donostiako Printzipal antzokiko agertokira igoko dira bihar, zapatua, 18:00etan

**OSPATZEKO GOGOA** Lehiaketa irabazten ez badute ere, berdin ospatuko dutela jakinarazi dute



FINALERA IRITSI DIRA Ezkerretik hasita, Baltzategi, Azurmendi, Morales, Urrutia eta Linazisoro.

GOIENKARIA

## ahobero

**"Epailea Kataluniakoa dela? Ez da besterik esan behar"**

Bernd Schuster > Entrenatzailea

Real Madril futbol taldeko entrenatzaileak ez daki galten. Joan den domekan 0-2 galdu zuen bere taldeak, Sevillaren aurka. Partiduaren ostean haserre azaldu zen prentsurrekoan. Epailearen jokabidea kritikatu zuen, taldearen eta norberaren akaitsak aztertu beharrean. Ez zuen gustuko izan epailea Kataluniakoa zela jakitea.

## iturri onetik

**40 urte beteko dira abenduaren 31n trena Debagoienetik kentu zutela**

Datorren abenduaren 31n, 40 urte beteko dira trena gure ibarretik kentu zutela. 1967ko abenduaren 31n pasa zen azken aldiz Debagoienetik. Gaur egungo garraioaren egoera eutsiezina ikusita, hora erabaki zuzena izan zen edo ez zalantzaz jartzen dute askok. Garraio publikoa ez da behar bezala bultzatzen gurean, eta, horren ondorioz, autoz beteta daude egunero ibarreko errepideak.

## piperraутса

Mikel Irizar > www.goina.net/blogak/piperraутса

### Lopez aulkian

I barretxe lehendakariaren auzipetzeari eman zaio garrantzia, eta ulertzen dut. Ibarretxe epaituta Batasunarekin biltzeagatik, komunitate baten ordezkarri nagusia aulkian eserazako dute bere eginkizun politikoari dagokion gertakari batengatik. Pentsatzeko da horrek nolako eraso sentimendua piztuko duen gure artean, nolako elkartasun bota ekar dakoileen auzipetuarri.

Niri, ordea, Lopez aulkian ikustea iruditzen zait esanguratsuago. Espainiako alderdi sozialista, artean oposizioan zegoela, legea bortxatzeko ariketan hasi zenean gobernu populararekin asmakizun arriskutsuetan, onartuko zuketen Ibarretxe epaitzeraino iristea. Baino Lopez bera kolpatzea gehiegia da haientzat ere, imajinatzen dut argi gorriren bat piztuko zitzaiela.

## ai, eñe!



**SIMOn, artoz eginiko inprimagailua eskuragai**

SIMOn teknologia berrien azoka izaten ari da egunotan Madrilren. Horretan, artoz eginiko inprimagailua aurkeztu du HP empresak.

<http://simo.vnunet.es>



Bisita ezazu Gipuzkoako sukaldetako armairu eta bainugelan erakusketa handiena



31 sukalde baino gehiago ikusgai  
600 m<sup>2</sup> baino gehiagoko erakusketa  
Europako lehen markak

Merkatuko prezio hoberenak



Ordutegia: 10 - 13 eta 16 - 19:30 . Larunbata: 10 - 13

Kataide Poligonoa 4 - ARRASATE - 943 770157



**Fabrikazio eta muntaia profesionala**  
Aurrekontuak eta aholkularitza konpromisorik gabe



Kalitate-prezio erlazio paregabea